



# ttipi-ttapa



ZOZKETA / 11



**Olaia Zabaleta leitzarra kaleko katuei bizitza duina emateko lanean / 8**



**Requiema sortu du Egoitz Telletxea Lesakako musikariak / 12**



**23 urteren ondotik Tere Arretxea administrariak erretiroa hartu du / 24**

## SINADURAK



XABAT ILLARREGI MARZOL / 3



AITOR AROTZENA ALBIZU / 3



ESTEBE APEZTEGUI MURUA / 3



MAIALEN SOBRINO LOPEZ / 4



Oinatz BENGOTXEA BERASATEGI

«KANTXAN GOZATZEA

HANDIA DA BAINA

BIZITZAZ GOZATZEA

ERE EDERRA DA»

la 20 urtez profesionaletan ibili eta gero, Leitzako pilotari handiak larunbat honetan jokatuko du profesionaletako bere azken partida Labriten. Hala ere, urrira bitarte frontoi txikiagoetan aritzeko asmoa du eta azken partida Leitzako plazan jokatuko du. / 50

BAIKO PILOTA

## Badator joare soinua

Neurri bereziak hartuta, baina inauterien seinalea egiteko asmoa dute Iturenen eta Zubietan. / 28-29

# bidas il

N-121A errepidea 74. Km. Behobia/Irun

Astelehenetik larunbatera:  
06:30 - 22:00  
Igande eta jai egunak:  
7:00 - 21:00

Dendan: janaria, ogia, opilak, pizza...  
freskagarriak, edari alkoholdunak, kafea...



**Kalitate oneko  
erregaia  
preziorik  
merkeenean!**

## BERA LESAKA

Agenda  
2022

URTARRILA  
OTSAILA



[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)



LESAKAKO  
UDALA

### URTARRILA

#### MARGO ERAKUSKETA DAIA PERUARENA

Ireki urtarrilaren 22tik aitzinera,  
larunbat eta igandeetan  
**16:00-20:00** Ikastolako  
areto nagusian  
**Antolatzailea**  
Labiaga ikastola



BERA

29

LARUNBATA

#### MERKATU TTIKIA BERTAKO ARTISAU ETA PRODUKTUEKIN

10:00-14:30  
Plaza zaharra



LESAKA

29

LARUNBATA

#### EMANALDIA NAFARROAKO VIII. TRIKITIXA JAIALDIA

17:30 Harriondoa Kultur Etxea  
Sarrera 12 €  
Informazio gehiago  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)  
**Antolatzailea** Nafarroako  
Trikitixa Elkarte



LESAKA

30

IGANDEA

#### KULTURA ZINEMA HARRIONDOAN

17:00 Harriondoa  
Kultur Etxea  
**Antolatzailea**  
Irain Eskola eta  
Tantirumiaru  
ikastolako guraso  
elkarteak



LESAKA

### OTSAILA

6

IGANDEA

#### KULTURA ZINEMA HARRIONDOAN

17:00 Harriondoa Kultur Etxea  
**Antolatzailea** Irain Eskola eta  
Tantirumiaru ikastolako guraso  
elkarteak

LESAKA

#### ISIDORO FAGOAGA: ENTZUNALDIK

31

ASTELEHENA

#### PERKUSIO ENTZUNALDIA

18:00 Kultur etxean

BERA



8

ASTEARTEA  
(Otsaila)

#### TRIKITIXA ENTZUNALDIA

18:00 Kultur etxean

BERA

6

IGANDEA

#### ANTZERKIA BIDAIDE (METROKOADROKA)

17:30 Kultur etxean  
Sarrera 4 €

BERA



## NIRE TXANDA

XABAT ILLARREGI MARZOL

### Nork du maskara?

Bi aldiz sanferminak, bi aldiz santiburtzioak, bi aldiz San Juan bezpera, beste bi aldiz Gabonak eta urte zaharra... Eta orain, bigarren aldiz galduko ditugu inauteriak? Bi urte dira kutsatuak gora eta behera, intzidentziak gora eta behera eta neurriak gora eta behera (edo hobe esanda, neurriak gora eta gora) gabiltzala. Eta osasuna hainbeste aldarrikatzen dugun garaiotan, uste dut ahazturik dugula osasuna mentala zer den, eta are gehiago, zein garrantzia duen. Kalera ateratzea, harremanak izatea, parranda egitea, «libre» ibil zaitzkeela sentitzea eta gazteak berez dituen ezaugarriak aprobetxatu ahal izatea osasuna da. Nahikoa dela uste dut, beti berdinar jarri dira jo-puntuak azken bi urteotan (gazteak, kulturgi-leak...) eta neurriak zentzurik ez dutela denok dakigu (pasaportea, tabernen itxiera ordutegia, maskara aire librean...). Hortaz, kendu diezaiozun neurrien tranpari maskara eta jantzi ditzagun guk maskarak, mozorrotu gaitezen. Neurriak deuseztatzen hasteko eta gure neurria bizitzeko garaia da, gaurkoa ezin izanen baitugu bihar edo hemendik hamar urtera bizi. Gaur, gaurkoa.

**«NEURRIE  
MASKARA KENDU  
ETA MASKARAK  
JANTZI DITZAGUN»**



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Urtarrileko maldan gorabeherak

Urtarrileko maldan behera ziztuan jautsi da Adur Etxezarreta eskiatzaile aresoarra Italia aldean, baina gainerakoentzat malda goitira begira dagoelakoan nago. Joan den urtea bukatu bezala, aurtengoan ere ur azpian hasi dugu eta batzuk, Beran, beraien etxeetatik kanpo lo egin behar izan dute. Ekaitza eta gero omen dator barealdia eta Eguberrien ondotik inauteriak. Edo?

## NABARMENTZEKOAK



**ITSASO  
ELIZAGOIEN  
ETXALAR**



**ADUR  
ETXEZARRETA  
ARESO**

Seigarrenez, Carlos Nuñez gaitero ezagunarekin Eguberrietako biran parte hartu du Etxalariko trikitilariak. Otsail hondarrean Argentinan eta Txilen kontzertuak emanen ditu.

Ilbeltzaren 14an Italiako Tarvision jokaturako Europako Kopako jaitziera proban bigarren sailkatu zen Aresoko eskiatzailea. Bere ibilbideko emaitzarik aipagarrienetakoa lortu du.

## ATZERA BEGIRA



2012-01-26 · TTIPI-TTAPA · 558 zk.

### Jabier Tirapu neuropsikologoarekin

Neurozientzia Klinikoa Saria hartu berrian, duela hamar urte elkarrizketa egin zion TTIPI-TTAPAK Jabier Tirapu Ustarroz Leitza-ko neuropsikologoari. Gizakia «gero eta baldarragoa» dela zioen: «Gizakia mugitzeko egina dago, arrazoitzeko eta emozioak sentitzeko. Lehen zerbait jakiteko asko mugitu behar zen: liburute-gira, eskolara... Orain, ordea, hitz gakoak Googlen sartu eta informazioa eskuratu dugu. Bizitza gero eta erosoagoa da, gero eta pasiboagoak gara eta gure garunak esfortzu txikiagoa egin behar du. Zenbat eta teknologia gehiago, gizakia orduan eta baldarragoa da». Horrez gain, «garunarentzako onena ibiltzea» dela eta «emozio sistema garatzea ezinbestekoa» dela nabarmendu zuen. «Garuna ongi garatzeko kuriositatea ere garrantzitsua da».



**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.us

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publizitatea**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,  
Maidor Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

**Fundazioaren Presidentea**  
Pello Apeztekoa  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia  
**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte  
**2022ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 42€  
Leitza 33€  
Hego Euskal Herria 50€  
Ipar Euskal Herria, Europa 98€  
Amerika eta Australia 147€





## KOLABORAZIOAK

ESTEBE APEZETXE MURUA

**Ondokoa zer?**

Neure buruari zin egin nion ez nuela TTIPI-TTAPAK eskainitako tarte hau Covid-19aren pandemiari buruz solastatzeko erabiliko, nahikoa berotzen genuela geure burua handik eta hemendik heldu zaigun informazio kontrajarrien digestioa egiteko... baina honetakoan uste dut badela garaia aski dela errateko.

Hollywoodeko gidoilari onenak ere nekez idatz zezakeen bizitzaren ari garena baino istorio makurragarrik. Dena akitzen hasi zela iduri zuelarik azken sorpresatxoa altxatua ziguten agintariek: Covid pasaporte. Neurri honen ezarpena berez oinarritzko eskubideen kontrako eraso da, muga sozialak inposatzen baitizkio ez duenari. Frantzia berriki gogortu dute agiri honen inguruko legedia eta Macron presidentek inolako lotsarik gabe adierazi du txertatu gabeak «izorratzeko» egin duela. Orain arte balio zuten PCR negatiboak ez dira onartuko hemendik aitzinera zinema, ostatu edo kirol instalazioetan sartzeko.

Baina ez dago bertaraino joan beharrik arau honen kontraerrian zientifikoak agerian uzteko. Bertzela nola ulertzen ahal da eritasuna pasatu eta gero birusaren kontrako antigorputz naturalak dituzula ziurtatzen duen odol azterketa bat ez aski izatea agiri hau jasotzeko? Horixe bera gertatzen ari da hemen bada... Akaso txerto bati esker sortutako balizko antigorputz horiek baliagarriagoak al dira gure gorputzak modu natu-

**«OSASUNA DELA, SEGURTASUNA DELA EDOZER ONARTZEN DUGU»**

ralean sortutakoak baino? Interes ekonomikoaz gain, zer gehiago dago guziaren gibelean?

Neurria bera baino kezkarriagoa iruditzen zait honen aitzinean hartzen ari garen jarrera epela.

Ezkerrekoak omen diren

alderdiak isilik edo mintzatzekotan ahopeka, burrunba sobera atera gabe, inor mindu ez dadin. Hedabideak (idazten ari naizen hau barne) kutsatu eta hildakoen kopuruen dantzan, Foruzaingoak kale edanean identifikatutako gazteei buruzko berri inozoetan edo ildo bakarreko «eztabaida» zentzugabeetan itota. Ez dago lekuri deus zalantza paratzeko, eta paratuz gero *negazionismo*aren edo insolidarioaren domina laster irabazten da.

Eta herritarrok? Fokua erabat aldrebestuta dugu. Osasun sistemaren kolapso eta profesionalen faltaren arduradunak bilatu ordez, gure karraketan hiru koloretako poliziak elkarri begira zergatik dauden erizainak eskas diren bitartean galdetu beharrean, apoak eta sugeak botatzen dizkiogu konfinamenduan kanpora ateratzen denari, edo heriotzak egozten txertatu ez denari. Izan ere, aise errazagoa da ondokoa zanpatzea sistemaren kontra egitea baino.

Nolabaiteko gurasokeriaz eta trufatzaile begiratzen diogu Erdi Aroko jendarteari agoteek jasaten zuten bazterkeriari buruzko istorioak aditzen ditugularik. Legenarra zabaltzen zuten ustean oinarrituta herrietatik uxatzen zituzten, elizan zokoratzen eta bereizgarriak eraman behar izaten zituzten. XXI. mendean ere ez du iduri gauzak sobera aldatu direnik eta bateko osasuna dela, bertzeko segurtasuna dela, edozer justifikatzen edo onartzen dugu. Orain ziurtagiria da, ondokoa zer? Gero ez du balio negar egiteak...



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

**Ispilu jolasa: zenbatu eta kontatu**

Urtea hasteko egin dezagun esperimendu ttiki bat: pentsatu miresten duzun pertsona batengan eta pentsatu, baita ere, zergatik miresten duzun; eman, adibidez, pertsona horren hiru ezaugarri. Ahal baduzu egin ariketa taldean, baina ahoz erran beharrean idatzi erantzunak papertxo batean motz-motz: paperaren alde batean izena eta kontrakoan ezaugarriak. Ez dut zure erantzuna sobera baldintzatu nahi, baina izan daiteke fantasiako zein erreal, hildako norbait edo bizirik dagoena, ezagutzen duzuna edo ospetsua bertzerik ez dena. Kitto? Altxatu paperak multzo batean.

Eutsi taldeari eta pentsa ezazue zuen auzo, herri edo inguru hurbilean egin duen ekarpenagatik miresten duzun norbaitengan. Idatzi bertze paper pusketan batean zergatik miresten duzun, bakarka berriz ere: izena aldi batean eta miresten dituzun ezaugarriak bertzean. Bigarren paper multzoa. Errepikatu ariketa hirugarren aldiz (trankil, azkena da), baina oraingoan pentsatu egin duen lanagatik miresten duzun norbaitengan. Esperimendua egiaz egin nahi baduzu ez irakurri hemendik aitzin, *spoiler* alerta!

Esperimenduaren lehendabiziko fasea akitzen duzuelarik irakurri paperak banan-banan talde osoaren aitzinean, anonimotasuna gorde nahi baduzue paperak nahastuta, ez

**«SORPRESA MULTZO BAT BILDUKO DUZU ESPERIMENTU HAU EGITEN BADUZU»**

dezazuen jakin zein den norena. Taldekide guztien dako hor akituko da ariketa, baina esperimendua zuk proposatu duzunez plusa eramanen duzue trukean paper zatitxoekin batera.

Aztertu erantzunak.

Lehendabizi, paratu buruz goiti papertxoak izenen aldetik eta begiratu ongi: izen horiek partekatzen al dute ezaugarriak? Erreparatu, adibidez, jatorri, sexu, adin, klase sozial edo arrazari. Eta badago alderik hiru multzoen artean edo denetan izen iduritsuak ageri dira? Orain eman buelta papertxoei eta miresten dituzuen ezaugarrien inguruan galdera berbera erantzuteaz gain saiatu, gero, ikuspuntua aldatzen, disezioan harago joaten: pentsatu ezaugarri horiek, gehienetan, nork izaten dituen.

Nire hipotesia da sorpresa multzo bat (laugarrena) bilduko duzula esperimendu hau egiten baduzu. Hortaz, kasu, papera ere alde biko aitzo izaten ahal da, zenbatu eta kontatu behar baitugu. Guttienozale garen arren zitala delako arraina maitatzea uretatik kanpo bizirauteko duen gaitasunagatik, segurik izena eta izena batu nahi baditugu.

## 11 GALDERA LABUR

ASIER OSES GAINZA TURISMO TEKNIKARIA

## «Lesakako turismoa hazkunde fasean dago»

### Nor dugu Asier Oses?

23 urteko beratar alai.

### Zein dira zure zaletasunak?

Bidaiatzea, kirola egitea, lagunekin gelditzea, familiarekin egotea eta musika entzutea.

### Zer ikasketa egin dituzu?

Deustuko Unibertsitatean Turismo Gradua egin nuen. Geroztik, beti saiatu naiz etengabe eduki berriak barneratzen; turismo-ikastaroak egin, ingelesa, alemana eta frantsesa hobetu, Madrilgo eta Berlingo turismo-azoketan ibili naiz...

### Noiz hasi zinen Lesakako turismo bulegoan lanean?

2021eko apirilean hasi nintzen sei hilabeterako, turismo plan bat egiteko. Irailean bertze urte baterako lanpostua atera zuen udalak, deialdira aurkeztu nintzen eta kontratua lortu dut.

### Zergatik Lesakan?

Gradua bukatzean argi nuen herri edo hiri baten turismoa kudeatzen lan egin nahi nuela, baina sektorea guztiz geldirik zegoen. Lan eskaintza ateratzean ez nuen zalantzarik izan.

### Nolakoa da Lesakako turismoa?

Hazkunde fasean dago, turista kopurua handitzen doa urtero eta satisfazio-maila hagitz altua da. Hobetzeko proposamenen artean, produktu turistiko berriak eratztea, seinalizazioak eta sektore pribatu eta publikoaren arteko koordinazioa aipatuko nituzke.

### Olentzeroren Jatorria izeneko ginkana sortu duzue. Nola?

Herriko turismoa dinamizatze-ko ekintzak proposatzean, sektorean pil-pilean zeuden joerak aztertu genituen eta gamifika-



zioa horietako bat zen. Ginkana turistikoak prestatzen dituen enpresa batekin harremanetan jarri eta proiektuari ekin genion. **Zertan datza proiektua?**

Lesaka ezagutzeko eta familia eta lagunekin egiteko bertze plan bat da, *escape room* baten antzekoa. Olentzeron oinarritutako enigmak gaituz, hasierako arazoari irtenbidea eman behar zaio. Komentutik abiatzen da eta QR kodea eskaneatuta zuzenean jokoan sartzen da. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez

eta frantsesez egin daiteke urteko 365 egunetan.

### Zein izan da herritarren erantzuna?

Harrera hagitz ona izan du, 150 lagun inguruk parte hartu dute dagoeneko eta haien iritziekin hobetzeko aukera dugu.

### Zure asmoak epe motzera?

Turismo plana aitzinera eramatea eta turismoa dinamizatzea, betiere herritarren eta turistaren arteko oreka bilatuz.

### Eta epe luzera?

Sektorean esperientzia lortu eta enpresa propioa sortzea.

**1951tik**  
**Casa Cambra**  
**lentzeria-etxea**  
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

**Albornozak**  
**Mantelak**  
**Kuxinak**  
**Edredoi nordikoak**  
**Ohe estalkiak**  
**Maindireak**  
**Toailak**  
**Edredoi-azal nordikoak**



## IRAKURLEAK MINTZO

### Katti, politte, eskerrik asko

**SAIOA SAGASTIBELTZA GANBOA, JONE LOZANO MIRANDA, GARIKOITZ SAGASTIBELTZA SUBER-BIOLA... ETA, GUTXIENEZ, BESTE 60 IKASLE OHIEK SINATUTA, ETA GEHIAGO IZANGO GARELA SEGURU)**

LEITZAKO AMAZABAL INSTITUTUKO IKASLE OHIAK

«Politte, zer moduz zatea? Zerbatte behar al duzue?» galdetuz jasotzen gintuzun gure institutuko ikasle jarduneko edozein goizetan. Nerabe zein gazte zarella, ohikoak ez diren galderak ziren Amazabal Institutuan, eta guk ikaragarri eskertzen dizugu ohikotasunetik at, ikasleekiko zure begirunea, zaintza eta arreta.

Ordurarte, Katti, Leitzako zein inguruko herrietako festetan ikusten zintugun azoketan saltzen, izan arropa koloretsu zein biziak, izan zilarrezko belarritako eta eraztunak. Bati baino gehiagori sudurrekoa edo belarritakoa ere paratu zenigun. Eta ondoren, zortedun, oso zortedun, izan ginen eta gara, gure nerabe eta gaztaroko bidelagun izan zaitugulako.

Leitzako Institutuko atezaintzako bulegotik zenbat ikasle pasako ote ginen zu han zeundela? Atea beti zegoen irekita... Hileroko minarekin bageunden, infusio bero bat hartzeko; irakasleren batekin haserrealdiren bat izan ondoren, lasai atsedean hartu eta zure kontsejuak jasotzeko; ikasle mugimendu zein gazte mugimendutik ekimenen bat antolatua bagenuen, fotokopiak ateratzeko; ikasleok ideiarekin bat bagenuen, gaiaren inguruan gogoetatu eta bultzada jasotzeko; orduan hain ohikoa ez zen mobilizazio edo ekimen feministaren bat antolatuzeko laguntza eskaintzeko; aurpegi tristeak identifikatu eta besarkada eta animoak emateko... Eta noski, jai egun arrotzetan institutua irekitzeko etortzen zinen, eta irakasleren bat falta bazen, hantxe zinen ikasgelaren batean, azterketaren batean edo «zaintza egiten», beti, ikasleoi gauzak errazten, laguntzen, sustengatzen... Elkarrekin lehian jartzen gaituen bizi

eredu honen aurrean, boterea gustuko ez zuen emakume indartsua izan zara. Desobedientea. Ertzean kokatzen zinen, erabakietatik baztertuak ginenekin batera. Helduen boterearen eremuan ametsengatik borrokatzeko akuilu eta arnas zinen gazteontzako. Gure aliatu bihurria.

Gure genealogiari gehitu beharreko sorgina zara. Intsumitua arau eta lege askoren aurrean... eta noski ordaindu egin zenuen. Akaso ez genuen asmatu guk zu zaintzen zuk gu adina, eta emandako guztia itzultzen. Eta ziurrenik nahi eta behar baino beranduago iritsi da aitortza hau, Katti, baina jakin gure baitan ez dela sekula itzaliko begirada goxoz apainduriko zure irribarre errebelde eta intsumitua. Eta oraindik orain, zurekin batera Amazabal Institutuko pasilloetan partekatutako hamaika ixtorio gogoratzen ditugula.

Eskerrik asko amesteko, eraldatzeko, hazteko hegoak indartzeagatik, hegan egiten ikasteko bidelagun izateagatik. Nahi genituen bizitzak eraikitzeke lurzoru indartsu bat jartzen egindako lanagatik. Askatasun olatuek zipirtintzeagatik. Herritar (eta, bereziki, emakume) gisa, izateko, egoteko eta bizitzeko mila modu daudela erakusteagatik.

Maitasuna eskaini zenigun eta guk ere maite zaitugula esan nahi dizugu.

Beti arte, *matte zattu*, Katti.

Besarkada estu bat senide eta lagunei.

### Hizkuntza eskolan

#### XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Laurogeiko hamarkadan, tarteka-marteka, eta, batez ere, bolada batzuetan, Iruñeko Hizkuntza Eskolara joatea egokitzen zitzaidan, euskara-eskolak emateko. Izan ere, garai hartan, Nafarroako Gobernuak oraindik ez zeukan toki propiorik euskara-ikastaro trinkoak emateko, eta eraikin hura erabiltzen zuen, hain justu ere, zeregin hartarako.

Ordurako, ni gurpil aulkian mugitzen nintzen, eta ikastetxe hartan ere, arazo batzuk izaten nituen sartzeko, ateratze-

ko eta baita barruan ibiltzeko ere, nire kabuz, autonomiaz mugitzeko, alegia. Zehazkiago esateko (...) sarrera nagusian espaloi bat zegoen, arrapalarik ez zeukana; ezkaratz barruan, ate handi, astun eta moldakaitz bat; eta, jada erabat barnean, hiru igogailu, baina denak botoiak oso goian zeuzkatenak.

Gauzak hala, eskolako zuzendariarekin hitz egin eta ea zer ondorio zekarkidan ikustea bururatu zitzaidan. Pentsatu eta egin. Garai hartan, hizkuntza eskolako zuzendari jauna, Andres Iñigo Ariztegi iturendarra genuen, eta harekin hitz egin behar. Momentua iritsita, aida batean, nire arazoak eta oztopoak kontatu nizkion, bai eta balizko konponbideak proposatu ere. Berak, berehalaxe, bere eskuetan zegoen guztia egiten saiatuko zela hitz eman zidan, alegia, Nafarroako Gobernuan eta Iruñeko udalean izapideak eta kudeaketak egiten, sarrerako espaloian arrapala bat egin zezaten, ezkaratz barreneko ate baldar hartan, txirrin bat jar zezaten atezainari deitzeko, eta, azkenik, igogailuetan kanpoko eta barruko botoiak jaits zitzaitez, ni ere eroso iritsi ahal izateko. Ordura arte, halako kasuetan, ezin da esan oso zorte eta arrakasta handirik izan nuenik, beraz, aldi hartan ere, nahiko sinesgogor gelditu nintzen gai harekin, baina, bueno, itxaropen pixka bat gordetzea ere beti komeni omen da, eta hango okasio hartan ere halaxe egin nuen.

Denbora, beti bezala, orduan ere azkar eta etengabe joan zen aurrera, eta hara non gertatu zen, hiru hilabete baino lehen, egin beharreko lan guztiak burutuak zeudela! A zer ustekabekoa eta alde beste kasu askorekin alderatuta! Izan ere, ordura arteko kasu gehienetan, edo ez zidaten jaramonik egiten, edota egiten baldin bazidaten, izaten zen oso-oso denbora luzeta igaro eta gero, baina ez oraingoan bezain laster (...).

Argi dagoena zera da, Iruñeko Hizkuntza Eskolako kasuan, bere zuzendari Andres Iñigo Ariztegi ez zidala batere inoren lotsarik sentiarazi, baizik eta alderantziz, mirespena, poza eta harrotasuna.

# Zaindu maite duzun hori...

# Nola erran



## ari izan ≠ egon

Horretaz ez du berariazko araurik eman Euskaltzaindiak. Jokamolde nagusiaren arabera, erabat bereiztekoak dira *egon*, *batetik*, eta *ari izan/ibili/jardun*, *bertzetik*.

*Egon* estatikoa-edo da; *ari izan/ibili/jardun*, berriz, zerbait dinamikoa. Hortaz, kontraesankorra da mugimendua eskatzen duen ekintza *egon* aditzarekin adieraztea. Euskaltzaindiaren arabera, hala moduzkoa da **?lanean dago** esapidea

**-?lanean dago** > lanean da, lantokian dago, lanean ari da, lanean dabil/dihardu.

## Kalko ustelak

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### '\*Zein hizkuntzetan idatzia dago?' ala 'Zein hizkuntzatan idatzia dago?'

*\*zein egoeretan, \*zein mailetan, zein jardueretan, \*zein hizkuntzetan...* Okerrak dira. *Zein egoeratan, zein mailatan, zein jardueratan, zein hizkuntzatan...* dira zuzenak. *Zein* galdetzaileak deklinabide mugagabea eskatzen du. Eta horrekin batera, kontuz ibili behar dugu -a itsatsia duten hitzekin: egoera, maila, jarduera, hizkuntza, ekintza...

Hona hemen adibide batzuk:

- **\*Zein egoeretan** dago gure hezkuntza sistema?  
> **Zein egoeratan** dago gure hezkuntza sistema?
- \*Zein ikastetxetan ibili zara? **Zein mailetan?** > Zein ikastetxetan ibili zara?  
**Zein mailatan?**
- \*Berdin zait **zein hizkuntzetan** idatzia dagoen, poesia da interesatzen zaidana > Berdin zait **zein hizkuntzatan** idatzia dagoen, poesia da interesatzen zaidana.

## Bitxikeriak

Osatu esaera

Inor \_ z \_ a

\_ \_ a \_ i \_

j \_ \_ t \_ e \_

Inor

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Olaia Zabaleta Lasarteren hurrengo proiektua katuak zikiratzea izanen litzateke. IRAITZ ASTIZ

## «Kaleko katuen egoera tamalgarria da eta bizi duina merezi dute»

**OLAIA ZABALETA LASARTE** KALEKO KATUEN ALDEKO BOLUNTARIOA

Duela hiru urte eta erdi hasi zen Leitzako kaleko katuak zaintzen eta, tarte horretan, zaindu ez ezik, 19 katurentzako etxea bilatu du. Kaleko katuen «baldintza gogorrez» eta arazoa konpontzearen beharraz aritu da. «Maitasunaren eta zaintzaren beharrean kaleko katu asko» daudela adierazi du

**G. PIKABEA** | LEITZA

«Jaioberriak edo gazteak dira gehienak, eta gaixotasunagatik, jateko faltagatik, hotzagatik edo pozoituta hiltzen dira». Olaia Zabaleta Lasarteren (Leitza, 1995) hitzetan horixe da kaleko katuen errealitate «tamalgarria». Hori da aldatu nahi duen egoera. Hiru urte daramatza kaleko katuei bizitza duina emateko lanean,

ahal den neurrian adopzioan emateko «ongi zainduz, eskuetara ohituz, txertatuz eta zikiratuz» eta ezin bada, «ahalik eta hobekien elikatuz eta osasun arazoak dauzkatenean albaitariarengana eramanez». Bidea «bakartia, arrotza, gogorra eta sakrifkatua» izaten ari dela aitortu du, «askotan pentsatu dut uztea», baina katuen «euskarri» dela ikusita

eta haiengandik hartzen duen maitasunagatik merezi duela sentituta, hasitako bidean jarraitzen du. «Bizitza oro garrantzitsua dela» nabarmendu nahi izan du eta «animaliak ere merezi duten tratu onarekin eta maitasunarekin zaindu» behar direla aldarrikatu du.

**Nondik heldu zaizu katuekiko maitasun hori?**

Animaliekiko zaletasuna gurasoei zor diet. Zorionez, ttikitatik nire etxea animaliez betea egon da: hamsterrak, untxiak, txakurrak... trikuak eta guzti! Etxean ez dugu inoiz katurik izan, baina beraien-ganako maitasuna amarengandik datorrela pentsatzen dut. Nire ama beratarra da eta ezkondukoan Leitzara bizitzera etorri zenean, kaleko katuak zaintzen zituen. Bizilagunak beti esaten dit katuei larranbiloarekin begiak sendatzen aritzen zela etxe sarrerako eskaileretan. Animaliekiko zaletasuna eta maitasuna geneetan dudala esaten dut beti.

**Leitzara bizitzera bueltatu eta aste batera etxeko eskaileretan hilzorian zegoen katu batekin egin zenuen topo, eta pozoituta hil zen. Orduan konturatu omen zinen «Leitzan dagoen arazoaz»...**

Nire aita Leitzako Alde Zaharrean hazia eta hezia da. Ni, ordea, Amazabalen bizitu izan naiz 18 urte nituen arte. Kanpoan ikasten nengoen bitartean gurasoak alde zaharreko etxera aldatu ziren. Beti entzun izan dut aita alde zaharreko katuez hitz egiten, Leitzako beste auzoetan ez hainbeste, baina alde zaharrean asko izaten zirela eta gaztea zenean bat-batean asko desagertzen zirela kontatu izan du. Katuen maitale asko dago munduan, baina baita gorroto handia dieten pertsonak ere. Banuen katuen pozoitze eta hilketa masiboen berri, baina zinez, nire kabuz ikusi nuenean sinetsi nuen. Eskaileretan aurkitu nuen katu hura etxera igo, kaxa batean sartu eta sutondoan jarri nuen, bere heriotza ahalik eta arinena izan zedin. Lauzpabost ordu pasatu zituen agonia betean, ahotik aparra botaz eta muskuluen espasmoak zeuzkala. Sufrimenduz beteriko bere miaua ezin dut hitzez deskribatu. Huraxe izan zen nire buruan zerbaitek klik egin zuen momentua.

**Zerk egin zizun klik? Zertan hasi zinen?**



Pozoituta hil zen katuaren kasuaren ondoren, beste egun batean, *bajerara* edo etxabera jaitsi eta nire bizitzan inoiz ikusi dudan irudirik politenetariko bat ikusi nuen: iskin batean hiru katu eme zeuden zazpi katakumez inguratutik. Inoiz ez dut jakin hiru emeek katuak aldi berean izan zituzten, edo baten kumeek besteen ama sena piztu zuten. Baina hiruren elkarlanari esker, katakumeak beti zuten esnea eta beroa eskura. Dena ez zen polita, ordea. Katakumeek begiak guztiz infektatuak zeuzkaten. Orduantxe hasi zen nire bidaia kaleko katuekin.

### Hiru urte eta erdi pasatu dira geroztik. Nolakoa izaten ari da bidea?

Bidea bakartia, arrotza, gogorra eta sakrifikatua izan da. Malko asko erori dira bidean, ez dut lortu katu guztiak salbatzea. Egunero zerbaiz txarra gerta dakieke, asko desagertu egiten dira eta asteak pasa izan ditut leihotik begira noiz bueltatuko diren zain. Asko hil dira nire besoetan. Asko itzaltzen ikusi ditut, gaixotasunengatik, eta beste hainbat pozoituta. Gutxi dira osasuntsu kaleko baldintza gogorrei aurre egiteko gai. Eta hori gutxi balitz, osasuntsu mantentzea lortzen duten katuek pertsona silueta duten beste izaki batzuen malezia gainditu behar dute. Horrez gain, beti baliabide mugatuak izan ditut eta oso frustragarria izan daiteke. Askotan pentsatu dut uztea, sufrimenduak ez duela merezi, baina katuak ezagutu eta maitatu ondoren, ezin dituzu utzi, zu baitzara daukaten euskarri bakarra. Beti dago laguntza behar duen katuren bat. Hala ere, bide aldapatsu honetan badaude konpentsatzen duten hainbat alderdi: alde batetik, katakumeei etxea lortu eta jabeak argazkiak bildaltzen dizkidanean, osasuntsu eta zoriontsu bizi direla ikustea, edo bestetik, zaintzen ditudan katuren maitasuna sentitzea. Animaliak uste du-



Zabaletak zaintzen dituen katuetoako batzuk. OLALIA ZABALETAK UTZITAKO ARGAZKIAK

guna baino azkarragoak dira eta badakite nork zaintzen eta maitatzen dituzten. Oso modu berezian adierazten duten esker ona.

### Tarte honetan zenbat katu artatu dituzu?

19 katu atera ditut kaleetatik. Elkarteen edo sare sozialen bitartez denei etxea lortu diet. Txertatuak, zikiratuak eta ongi zainduak daude.

### Nolako laguntza ematen diezu?

Katuak adopzioan emateko momenturik idealena bi, hiru edo lau hilabete dauzkaten da. Beraz, auzoan katu jaioberriak daudela ohartzuz gero, harrapatzen saiatzen naiz eta adopzioan ematea lortzen dudana arte etxean izaten ditut gizakien eskuetara ohitu dai-

tezen. Lau hilabete baino gehiago dauzkatenean, oso zaila izaten da harrapatzea. Gainera, basatiagoak bihurtzen dira eta askoz zailagoa da gizakien eskuetara ohitzea. Adopzioan emateko aukerarik ez badago, laguntzen jarraitzeko modu bakarra ahalik eta hobekien elikatzea eta osasun arazoak dauzkatenean albaitariarengana eramatea da. Badira beraien izaeragatik etxeko katu izan daitezkeen katu helduak ere, baina normalean, inork ez ditu katu helduak adoptatu nahi izaten eta askoz ere zailagoa izaten da horiei etxea aurkitzea. Bestalde, nire hurrengo proiektua zaintzen dudana katuren kolonian katuak zikiratzea izanen

«KATUEN MAITALE ASKO DAGO BAINA BAITA GORROTO DIETENAK ERE»

«BIDEA BAKARTIA, GOGORRA, SAKRIFIKATUA ETA ARROTZA IZAN DA»

litzateke, populazioa jaisteko eta erreproduzioen edo elkarri pasatzen dizkieten gaixotasunak ekidin ahal izateko. Baina hori proiektu zaila da, ez dut baliabiderik.

### Xaldu katuari gertatutakoa ere gogor salatu izan duzu...

Xaldu nire kolonian dagoen katurik maitagarrietariko bat da. Ez du inoiz beldurrik izan pertsonengana hurbiltzeko eta beti dabil mimoen bila. Egun batean bere aurreko hantetako batean zauri haundi batekin agertu zen, hantura ikaragarriarekin. Asko beldurtu nintzen, hanka hautsi zuela pentsatu nuen, eta segituan askotan laguntzen didan albaitariaren elkarrekin jarririntzen harremanetan. Iruñera eraman nuen eta plakak egin zizkieten hanka hautsia zuen edo ez zehazteko. Xaldu jasotzera bueltatu nintzenean, albaitariaren aurpegiak zerbaiz larria gertatu zela adierazi zidan. Plakak erakutsi zizkidanean hasieran ezin nuen ulertu zer gertatzen zen. Xalduri tiro egin ziotela eta hezur bat puskatu ziotela azaldu zidan. Bala oraindik barruan zeukan.

### Zer sentitu zenuen?

Zaila egiten zait sentitu nuena hitzez adieraztea. Xaldu hazten ikusi dut, askotan sendatu dizkioet begiak, baita albaitariarengana eraman ere. Nire egunerokoaren parte da, nire bizitzaren parte. Xalduren hankarekin batera nire barruko zerbaiz puskatu zela esaten dut beti. Amorrua eta inpotentzia ziren barrenean nagusi sentitzen nituenak. Buruan, berriz, ezin ulertua. Ezin ulertu zergatik eta zein helbururekin egin zezakeen norbaitek horrelako zerbaiz.

### Leitzako herriaren ekintza eza salatu izan duzu. Zein hutsune ikusten dituzu?

Hutsune nagusia gizakiok beste aldera begiratzeko dugun gaitasuna dela iruditzen zait. Jende on asko dago Leitza eta leku guztietan, animalien maitale direnak, baita →



Zabaleta tirokatu zuten Xaldu katuarekin. IRAITZ ASTIZ

animalien maitale ez izanda ere, sekula inolako minik eginen ez lieketenak ere. Baina gizarteak besteen sufrimenduren aurrean beste alde batera begiratzen erakutsi digu; denarekin enpatia izanzen bagenu, jasanezina izanzen litzatekeelako. Baina badira aldaketa handiak ekar ditzaketen ekintza ttikiak. Eta katuen kasuan oraindik gehiago. Leitzako biztanleen eta udaltxearen elkarlanaren bitartez, gaur egun katuek duten egoera guztiz alda daiteke.

**Gizatasuna garesti dagoela uste duzu?**

Gizarte sistema honek sentiberatasunik ez izatera garamatza. Arrazionaltasuna oinarriztat hartuta, sentsibilitatea barrualdeko iskin batean galdu dugu. Gizatasuna sentsibilitaterik gabe ezinezkoa da eta gaur egun, sentsibilitatea leku gutxitan aurki dezakegu.

**Bada kaleko katuen kontrolik edo daturik?**

Nik dakidala Leitzan ez dago ez inolako kontrolik, ezta daturik ere.

**Zein da kaleko katuen egoera gaur egun?**

Kasuan kasu aztertu beharko litzateke. Batzuk genetikagatik hobeki bizirauten dute kalean, gaixotu gabe. Baina gutxi batzuen kasua da, gehienak gaixotu eta gaixotasunak elkarri transmititzen dizkiete. Horri elikagai falta gehituta, gehienetan baldintza tamalgarriak dauzkate.

**Zein aukera dituzte?**

Gaur egun Leitzako kaleetan bizi diren katuek aukera gutxi dauzkate. Gaixotasunen, hartzaren edo gosearen ondorioz, lau urte bete baino lehenagotik hiltzen dira, eta ongi zain-

dutako katuen bizi itzaropena 12-15 urte bitartekoa da. Hiltzen diren gehienak jaioberriak edo gazteak dira, gutxi batzuk baino ez dute lortzen heldu izatea, eta lortzen duten horien artean, gutxi dute gaixotasunik gabeko bizi duina.

**Abandonu kopurua murrizteko zein bide ikusten dituzu?**

Kontzientziazioa da bide bakarra. Orokorrean, oso kontsumistak gara, zerbait nahi badugu erosi egiten dugu eta behar ez dugunean bota. Animaliak ez dira ez objektuak, ez jostailuak. Lan eta ardura handia eskatzen dute. Beraz, 15 urtez animalia horrek behar dituen zaintza eta maitasuna emateko gai ez bazara, ez adoptatu.

**«EZIN BADITUZU BEHAR BEZALA ZAINDU EZ ADOPTATU»**

**«KATUEI BIZITZA DUINA EMAN AHAL IZATEKO LAGUNTZA NAHI NUKE»**

**Badira adopzioan ematen dituzten elkarteak. Nahikoak dira?**

Azken urteotan hainbat elkarterekin izan naiz harremanetan: Katuetxe (Hernani), Katubihotz (Donostia) eta Katx-Felina (Iruñerria). Denak boluntarioez osatutako elkarteak dira, eta ez, ez dira nahikoak. Egiten duten lana ikaragarria da, sakrifizioa eta dedikazioa dute oinarri. Baina beti gainezka daude eta ez dute baliabide nahikorik. Entitate publikoen laguntza ezinbestekoa da arazoari aurre egiteko.

**Nolakoa da katuak adopzioan hartzen dituen jendearen profila?**

Nire esperientzian oinarrituta, gehienak ume ttikiak dauzkaten familiak dira, baita bikote gazteak ere.

**Norbaitek katu bat nahi badu, adoptatu ala erosi zalantza izan dezake. Zuk zer esanen zenioke?**

Animaliak erosis, erreproduzio masiboa bultzatzen da. Ez dugu katuen erreproduzio masiborik behar. Bizitza ugari daude kalean, bizitza ugari galtzen dira kalean. Kaleko katu asko daude maitasunaren eta zaintzaren beharrean.

**Zein mezu luzatuko zenuke?**

Laguntza eskatu nahi nuke; lan hau egiten jarraitu ahal izateko, katuei bizitza duina ematen jarraitu ahal izateko, katuak kaletik ateratzen jarraitzeko eta beraien erreproduzioa mugatzeko. Bestalde, norbaitek lan honetan laguntzeko interesa baldin badu, lau esku bi baino urrutirago ailegatzen dira. Jendeari mugitzeko esanen nioke, beste aldera ez begiratzeko, arazoari aurre egiteko eta urtetan luzatu den arazo honi behingoz denon artean bukaera emateko. Bide batez, bidean lagundu didan orori esker ona adieraztea gustatuko litzaidake, gurasoei eta elkarteetako guztiei.

**Zerbait gaineratuko zenuke?**

Bizitza oro garrantzitsua da, eta animaliak merezi duten tratu onarekin eta maitasunarekin zaindu behar dira.

**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**797** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

**Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**

Joxe Miel Labaien Maskotena | URDAZUBI

**Onddo ta Punto - Kamiseta bat**

Vicente Goñi Irungarai | ORONOZ-MUGAIRI

**Salting Iruña - Bi sarrera**

Maria Luz Serrano Zenoz | ELIZONDO

**Martiko - Lote bat**

Maria Ariztegi Igoa | LESAKA

**Irrisarri Land - Sarrera bat**

Nati Mitxelena Bazterrika | DONEZTEBE

**Lesakako Udal Kiroldegia - Sarrera bat**

Blanka Taberna Bergara | LESAKA

**Tarttalo - Liburu bat**

Agurtzane Baraibar Zubitur | LEITZA

**Tarttalo - Liburu bat**

Sara Baleztena Agerralde | DONAMARIA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**

[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**BUATXABAL**

[www.buatxabal.com](http://www.buatxabal.com)



Jertse bat

**SALTING IRUÑA**

[www.saltingcenters.com](http://www.saltingcenters.com)



Bi sarrera

**ZUGARRAMURDIKO LEZEA**

[www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com)



Sarrera bat

**BKZ ABENTURA**

[www.navarraaventura.com](http://www.navarraaventura.com)



Sarrera bat

**ARKUPE**

[www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)



Lote bat

**LI  
BU  
RU  
AK**



Tristura



Totototo

**elkar**

[www.elkar.eus](http://www.elkar.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.erein.eus](http://www.erein.eus)



Eliza karrika, 18 - Donoztebe

## «Requiem hau ez da nire lehen musika-lana, baina bai mardulena»

**EGOITZ TELLETXEA ETXEPARE** LESAKAKO MUSIKARIA

Bortz urteko lanaren ondotik bereziki organo eta korurako Requiem-a sortu du Egoitz Telletxea Etxeparek (Lesaka, 1987). Historiarekiko eta musikarekiko zaletasun handia du Telletxeak, baina berak ere onartu du lan handia izan dela

### AITOR AROTZENA

«Hildako norbaiten omenez ospatzen den meza musikatu». Horrela definitu du Requiem-a Egoitz Telletxeak. Musikaren historian aunitz idatzi dira. «Artikuluren batean irakurri nuen 2.000tik goiti idatziak direla. Normalean hil eta denbora batera ospatzen zen meza eta orduan jotzen eta abesten zen requiema. Requiemaren letra mezako letra da, letra liturgikoa, ez da aparte egiten den kantua. Gero, XIX. mendean, musikaren zenbait korrontek requiemaren letra hartu eta meza bat egin beharrean, oratorio edo kontzertu moduko bat egiten zuten. Orduan Requiemak elizetatik kontzertu-aretoetara aldatu ziren», aipatu digu musikari lesakarrak. Hamasei zatiz osatua dago berak idatzi berri duena. «Normalean hamabi izaten dituzte requiem estandarrek –dio-, eta hauek aldi berean azpizatiak izaten dituzte. Badira laburragoak ere. Baina zatitan banatzearena subjektikoa da, konposatzaile bakoitzak bere modura zatitzen du letra, baina requiem klasikoek hamabi izaten dituzte. Nik hala egin nuen eta gero, bertze lau zati sartu dizkiot, zenbait requiem erromantikotan topatzen diren zatiak edo lurperatzeko orduan errezatzen diren otoitzak». Orubete inguruko pieza izanen da, 130 orrikoa.

### Organoaz eta ahotsaz gain, bertze zenbait musika tresnarentzat egindako lana ere bada...

Gehien bat organo eta aho-tsarentzako pentsatutako pieza da, baina tartean tartean badira oboerako zatiak, metala (bi tronpa, bi tronboi, eta bombardino) eta tinbala ere. Pixko bat *suizida* da, hori dena behar bezala harmonizatu eta instrumentatzea ez da erraza eta seguruenik akats pila bat egin izanen ditut... goiti etorri nintzen eta erran nuen, 'egin behar dugu gauza espektakularra'.

### Zenbat denbora eman duzu lan honetan?

Bortz urteko sortze-prozesua izan da, 2015eko uztailean idatzi nuen lehenbiziko puska eta itxialdi garaian bukatu nuen, 2020ko maiatza aldera. Konposizio lana baino gehiago ikerketa garaia izan da eta hagitz ongi pasatu dut. Goi-mailako musika formakuntzarik ez dut, autodidakta naiz konposizio munduan. Organoarentzat edo ahotsarentzat idaztea ez da edozer gauza. Ordu pila bat eman ditut organorako partiturak aztertzen, organo eta kororako daudenak, requiemak aditu eta irakurtzen... ikerketalan handia dago, baina hori gustukoa dudanez,

hagitz gustura aritu naiz. Iku-sitakoaren eta ikasitakoaren arabera idazten eta konposatzen joan naiz, era guztietako eraginekin, gauza batzuk hemendik hartuz, bertzeak handik... Hainbat konpositoreren eraginak nabari dira.

### Requiema izaki, eskaintzetan, joan zaizkizunak izan dituzu burutan...

Requiem honen lehenbiziko puska, egitan, 2011n idatzi nuen, baina ez zuen requiem bat izan nahi. Irakasle bezala hasi berria nintzenean urte baten buruan bi ikasle hil zitzaizkidan, eta haiei omenaldi ttiki bat egiteko asmoz idatzi nuen... Geroztik, zoritxarrez, jende dexente hil zait inguruan eta haiei eskaini nahi nien. Omenaldi sentitua da, haien ohorez.

### Grabaketa nola egin duzu, egiazko musikariekin?

Ez. Audio ttiki bat egin dut, MIDItik Mp4ra pasatua neronek. Ez da musikariekin egina. Eta ez dut uste inoiz Requiem osoa grabatuko denik ere. Nik barrenean neraman, idatzi nahi nuen eta egin dut. Zaila izanen da dena grabatzea, izugarriko despliegea beharko litzatekeelako. Lagunek eta koro munduan ibiltzen

## Historia eta musika zalea, baita Osasunazalea ere

Baina historia eta musika zalea izateaz gain, futbolzalea ere bada Telletxea, edo berak dioen bezala, "osasunazalea", Bortzirietako Gorriak peñako presidentea. «Ez naiz bereziki futbolzalea egia erran eta futbolerako ez dut inoiz gaitasunik izan. Osasunazalea, bai. Nafar eta euskaldun bezala talde xume horrek islatzen dituen baloreak gustuko ditut, gainera taldearekiko atxiki-mendu berezia ematen dit jokalarri batzuk ezagutu izanak. Partiduen bueltan sortzen den giroa hagitz gustukoa dut, lagunarte hori eta zer erranik



Egoitz Telletxea

ez Sadarrera joatea. Futbola, kirola den heinean kultura ere bada, bertze kontu bat da kirol honen inguruan sortu den guztia eta aunitzetan ikusi behar izaten ditugun eredu

negargarriak. Batzuentzat kontraerrana ere izan daiteke kulturazalea eta futbolzalea izatea, musika klasikoko partiturak idaztea eta latinezko testuak irakurtzea eta igandetan Osasunako kamixeta eta bufandarekin taldea animatzea. «Ez dago inongo kontraerranik. Jakinmina eta afizioak ez dute talkarik egiten hemen. Osasunak sufriarazten gaituenarekin tarteka latinez egiten dut otoitz (kar, kar). Artearen Historian katedraduna den bakarren bat ezagutzen dut Osasunako bufandajari eta eraldatzen dena...».


diren batzuk erran didate zatiren bat kontzertura eraman daitekeela eta estreinatzeko moduan izanen garela, baina pandemia garai honetan ez da erraza. Beharbada hemendik urte batera, bira edo hamarrera, puskaren bat aditzeko aukera izanen dugu. Niri ilusioa eginen lidake.

**Musika ez ezik, hitzak ere hor daude, latinez gehienak...**

Latina hizkuntza ederra da, boteretsua. Batxilergoan eta karreran ikasi nuen eta dokumentu zaharrak aztertzea gustatzen zaidanez suertatzen zait latinarekin lan egitea. Requiemaren letra ongi ulertu nahi nuen, letrak inspiratzen zidan musika konposatzeko ere. Latinean ez naiz inondik ere aditua, baina pixko bat kontrolatzen dut. Kontuan eduki 1970eko hamarkada arte mezak latinez ematen zirela eta elizaren hizkuntza liturgiko eta ofiziala latina zela. Kontzilio Batikanoaren ondotik hasi ziren tokian tokiko hizkuntzetara itzultzen eta latina baztertu zen. Nire kasuan, hamabosgarren zatian Xabier Iratzederrek latinetik euskarara egindako itzulpen bati musika jarri diot. Jatorrizko olerkia Benediktarrek haien hiletetarako erabiltzen duten erresponstu bat da eta latinez zegoen baina Iratzederrek euskaratu zuen eta bere itzulpenari musika jarri diot.

**Zer harrera izan du zure inguruan?**

Inguruan musikari aunitz ditut eta gehieneak 'Nolako harrikada duzun!' erran didate, 'Nola sartzen zara horrelako jaleotan?'. Baina ezagutzen naute eta badakite zerbait buruan sartzen zaidanean egin egiten dudala. Inguruko jendeak harriduraz hartu du, baina zoriondu naute. Ni kontent, beraiek kontent, denak kontent... Sarean dago, Drive batean. Niri egindako lan guztiak partekatzea gustatzen zait, ez nire kajoian gordeta edukitzea. Norbaitek zerbait egin nahi badu partitura horiekin, ederki.



Egoitz Telletxea, Lesakako San Martin elizako XVI. mendeko atearen aitzinean, Requiem-a eskutan duela.

**Korurako, txarangarako eta musika bandarako piezak ere konposatu dituzu...**

Bai, Requiem hau ez da inondik ere sortu dudana lehenbiziko pieza, baina bai horrelako

tamainako lehen pieza. Orain arte musika bandarentzat idatzi dut, txarangarentzako. Trikitixa, gaita, txistu eta akordeoiarentzat ere badut zerbait. Idaztea beti gustatu izan zait,

nik uste nire lehenbiziko pieza 15 urterekin idatzi nuela eta orduz geroztik aunitz idatzi dut, ikaragarri gustatzen zait. Pieza batzuk estrenatuak ditut eta bertze batzuk ez, baina idaztea da gauza. Egunerokotasunetik ateratzeko eta estresa kentzeko terapia ona da. Idatzi-urratu, idatzi-bota, idatzi-lagunen bati pasatu ea gustatzen zaion... bertze batzuk mendira joaten diren bezala niri hau gustatzen zait.

**«IKERKETA LAN HANDIA DAGO, BAINA HORI DUT GUSTUKOENA»**

**«ESTRESA KENTZeko TERAPIA ONA DA MUSIKA KONPOSATZEA»**



Udalak hainbat txosten eskatu ditu konponketa nola egin ikusteko.

## Hilabete hasierako euriteak zuloa egin du Plaza Zaharrean

24 familia beren etxebizitzetatik atera behar izan zituzten, segurtasunagatik, eta bortz egun eman zituzten etxetik kanpo

### TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 10ean zulo handi bat agertu zen Plaza Zaharren eta Herriko Etxeko Plazaren artean dauden eskaileren inguruan, eta Plaza Zaharreko 24 etxebizitzetako bizilagunak prebentiboki etxetik atera behar izan zituzten etxebizitzetako zimenduak egoera onean zeuden ikusteko.

Ondoko egunetan Nafarroako Gobernuako teknikariek hainbat azterketa egin zituzten zuloa nondik sortu zen ikeritzeko, eta eraikinaren zimenduak kaltetuak ziren ikusteko. Nafarroako Gobernu Lu-



Zuloa, goitik ikusita.

### UDALA HAINBAT ENPRESAREKIN HARREMANETAN DA LANAK EGITEKO

rralde Kohesiorako departamentuko teknikariek egindako txostenean agerienez, Kalbarioko errearen goiko partean, etxeetatik goitiago, lursailaren zati bat kolapsatu zen abenduko euriteetan, eta kanalizazioaren zati txiki bat hondoratu zen orduan. Hondoratutako lurrak eta harriak errekan behera eraman zituen urak eta, pixkanaka, ubidea kaltetuta gelditu zen. Horren ondorioz, azken euriteetan ura pilatu eta lur-zati bat kolapsatu egin zen, eskailerak zeuden tokian, eta, azkenean, kanalizazioa buxatu egin zen.

Nafarroako Gobernuako geologiako teknikarien eta suhiltzaileen artean koordinatutako lanak erakutsi du eraikinaren zimentazioa ez dagoela kaltetuta. Txosten geologikoaren arabera, etxebizitza bloke osoko lurzorua gogorra eta lehorra dago, eta zimenduetan ez dago kalterik. Eraikina egonkortzeko lanak eginda, eta ura eta gasa berrezarrita, bizilagunak urtarrilaren 14an itzuli ziren beren etxetara, Lorenzobaitakoak izan ezik.

Udala hainbat ingeniari-tza enpresarekin harremanetan da orain egin behar diren berrezartze-lanak eta moduak zehazteko. Desnibel handiko eremua da eta horrek zaildu egiten du makineriak eta langileak segurtasunez lan egitea. Horregatik, hainbat txosten eskatu behar dituzte konponbide bideragarriena zein den ikusteko.

## Argiteria publikoaren auditoria egin du udalak

### TTIPI-TTAPA

Herriko karriketan dauden argiak aztertu ditu udalak Aizkorpe Koop. Elkarteari emandako lanarekin. Azterketak oraingo kontsumoa gututzeko eta eraginkorrago izateko proposamenak egin ditu. 2011n egin zuen udalak azkeneko kanpoko argiztapen instalazioen auditoria energetikoa, eta auditoria horretan, urtean 308.367 kWh-ko energia kontsumoa identifikatu zen. Geroztik, argiteria-instalazioetan hainbat jarduerak egin dira energia kontsumoa murrizteko, eta azken auditoriarekin ikusi da energia kontsumoa %38,5 murriztu dela.

Guztira hamalau koadro ikuskatu dituzte eta guztira 702 argi-puntu identifikatu. Ondoko kale eta auzo hauetan daude koadroak: Altzate, Bidasoa, Ugalzuria, Urruña, Sara karrika, Kanttonberri, Kaxerna, Zalain industrialdea, Eztegarra, Bortzirriak, Iturlandeta, Zalain, Suspellitiki eta Zia.

Auditoria honetarako, 2021eko ekaineko energia elektrikoaren prezioei eustea pentsatu da, datozen hilabeteetan aurreikusten delako energiaren prezioa lehengo mailara jaitsiko dela.

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

**Ansonera** ostatu · jatetxea  
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

**MARITX**  
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailera jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Bi parte hartzaile hasierako maldetan lasterka.



Bikoteka zein hirukoteka egin zuten Santa Barbarainoko ibilbidea.

## 38 taldek hartu dute parte Santa Barbarako igoeran

Nahia Fagoagak eta Maddalen Jimenezek irabazi dituzte lehenengoz egin den argazki lehiaketako sariak

### AINHOA LARRETxea AGIRRE

Guztira 38 bikotek eta hirukotek hartu zuten parte urtarriaren 15ean Manttale Mendi Lasterketa Taldeak Berako XV. Mendi Egunean antolatutako kronoigoeran. 5,5 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten Ricardo baroja eskolako ataritik Santa Barbarako kaxkoraino joan-etorria eginez. Aurten ez zuten Santa Barbarara ohiko mendi irteera antolatu, baina, mendizale anitzek zirkuitua osatzea erabaki zuten.

Parte hartzaileak minutuko tartearekin atera ziren, eta bakoitzak dortsala bost minutu lehenago jaso zuen. Ohikoa den bezala, izena ematea doakoa izan zen, eta parte-hartzaile bakoitzak produktu gastronomikoak zituen poltsa bat eta buff bat jaso zituen lasterketa bukatzean. Aurten ere, denborak neurtu ziren, baina ez zen sailkapenik egin, ez eta saririk eman ere.

Covid-19a dela eta, ezin izan zituzten Mendi Eguneko ohiko ekitaldi denak egin, baina goizetik iluntzera arteko ekitaldiak antolatu zituen Mant-

tale Mendi Lasterketa Taldeak. Goizean, Labiagara ibilaldi bat egin zen, eta ate irekien eguna izan zen Artxila Eskalada Taldearen Rokodromoan. Erlojupekoaren ondotik, kultur etxean *Jötunn* dokumentalaren emanaldia izan zen, Mikel Sarasola kayakista donostiarren eskutik.

### 33 argazki lehiaketan

Lehendabiziko, Bortziritako mendien argazki lehiaketa antolatu du Manttalen. 33 argazki jaso dituzte denera eta Nahia Fagoagak irabazi du epaimahiaren saria. Maddalen Jimenezen argazkia, izan da, aldiz, instagramen bozka gehien jaso dituen. Martiko produktu-sorta bana jaso zuten sari gisa biek.

Manttalek eskerrak eman nahi dizkie Mendi Eguna ospatzeko aukera eman duten boluntario, parte-hartzaile eta ikusle guztiei. «2023an egoera normalera itzultzea espero dugu, urtero egiten ditugun jarduerak guztiak berreskuratzeko, Xabier Zubietaren, Xabier Saralegiren eta Loro Pikabearen oroimenez».



Eguraldi ederra lagun izan zuten aurtengo edizioan.

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
SUMINISTROS CARROCEROS

**www.ibargoyen.net** ☎ **943 616 587**  
**Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN**

## Eskolako atezain eta administrari izateko deialdia egin dute

Bi lanpostuetarako eskabideak aurkezteko epea hilaren 27an eta 28an bukatuko da

### AITOR AROTZENA

Administrari-ofizial eta eskolako atezain lanpostuak oposizio-lehiaketa bidez betetzeko izangai zerrendak eratzeko deialdia egin du udalak. Era berean, etorkizunerako lan poltsa ere osatu nahi du deialdien bidez.

Administrari lanpostuak C mailako ordainsariak izanen ditu, eta ondorengo lanak bete beharko ditu: jendea hartzea, ordenagailuak erabiltzea, testu lanketak eta kudeaketa programakerabiltzea bertzeak bertze. Lanposturako nahitaezkoa da euskara jakitea eta EGA titulua edo baliokidea izatea. Titulurik eduki ezean, izangaiak proba bat gainditu beharko du hizkuntza gaitasuna nahikoa duela frogatzeko. Urtarrilaren 27an bukatuko da eskabideak aurkezteko epea.

Eskolako atezain lanpostuari dagokionez, D mailako lan-saria izanen du, eta hainbat lan egin beharko ditu: atezaintzaz eta berogailuaz arduratzea, eskolako giltza guztiak gorde-

tzea eta kontrolatzea, instalazio guztiak irekitzea eta ixtea, solairuetako argiak kontrolatzea, leihoak ixtea... nahitaezkoa izanen da lanposturako euskara jakitea eta ahozko B2 titulua eta idatzizko B1 maila edukitzea guttienez. Eskabidea aurkezteko azken eguna urtarrilaren 28a izanen da.

Deialdien informazio guztia [www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus) webgunean dago, eta bertan lor daitezke bete beharreko eskabideak, herriko Udal Erregistroan aurkeztu beharko direnak.

### Haur eta nerabeen parte-hartze organoa

Haur eta nerabeen parte-hartze organoa herritarren partaidetzarako organo sektoriala da, haurren eta nerabeen parte-hartze aktiboa garatzeko berariazko gunea. «Haurrak gure herriaren etorkizuna dira, eta haiei entzun eta hitza emateko» organo bat sortu nahi du udalak. Gurasoei proiektu honen berri emateko informazio bilera egin zuten urtarrilaren 15ean udaletxean.

## Nafarroako VIII. trikiti jaialdia egingen dute larunbatean Harriondoan

Nafarroako Trikitixa elkarteak, Lesakako trikitilari taldearen, udalaren, EITBren eta Tirikitrauki eskusoinu-dendaren laguntzarekin zortzigarren aldiz antolatutako Nafarroako trikiti jaialdia egingen dute urtarrilaren 29an, larunbatean 17:30ean Harriondoan. Sarre-rak [www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus) webgunean erosi daitezke (12 euro).

Amaia Eneterreaga aurkezle dela, Oihan Arizala eta Goiari taldea; Xabi Arakama, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañaga; Ruben Isasi, Xabier Valle eta Argibel Euba; Maider Martineau, Arnaud Bibonne eta Jokin Irungarai; Leire, Amaia eta Gari; eta Aritz Alustiza, Leire Etxezarreta eta Maitane Arteaga izanen dira oholtzan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Beti Gazteko argazki lehiaketako sariak

Beti Gazte antolatutako argazki lehiaketako irabazlea Jose Angel Amuchastegi izan da *Dura Ronda* argazkiarekin (ezk.). Bigarren saria Fernando Morenok eraman du eta kirol argazki onenaren saria Carlos de Cosek. Bazkide baten argazki onena Fidel Ordokiren *Tximeleta* izan da (esk.).



UTZITAKO ARGAZKIA

## Zahar Etxean lan baldintza duinen eske

Nafarroako zahar egoitzetan lan baldintza duinak eskatuz greba egin zuten ilbeltzaren 13an ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek deituta, *Nafarroako hitzarmen duina orain!* goiburupean. Irudietan ageri denez, Andra Mari Zahar Etxean ere karrikara atera ziren langile eta erabiltzaileak.



EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika · BERA  
[zubiondojatetxea.com](http://zubiondojatetxea.com)

**Ainhoa Altzuguren Mitxelena**

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. *Deitu hitzordua hartzeko*

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - [ainhoaltzuguren@gmail.com](mailto:ainhoaltzuguren@gmail.com)



## 934.450 euroko aurrekontua izanendu aurten udalak

Zugarramurdiko bidea zolaberritzen eta argiteria berritzen eginen ditu inbertsiorik handienak

### IRUNE ELIZAGOIEN

2022ko aurrekontuen inguruan, 2021eko abenduaren 16an udalak egindako ohiko bileran eman zitzaion hasierako onspena eta 934.450 euroko aurrekontua onartu dute. Joan den urteko aurrekontua 863.000 eurokoa izan zela kontuan hartuz, %8,3ko igoera izan da. Horren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko urtarrilaren 10ean, eta jendaurrean egonen da hamabortz egun baliodunean.

### Argiteria berritzea eta Zugarramurdiko bidea

Bi inbertsio nagusi aurreikusi dituzte. Alde batetik, herriko argiteria berritzeko 105.000 euro erabiliko dituzte eta bertzetik, abeltzaintza azpiegituak hobetzeko lanen barrenean, Zugarramurdiko bidea zolaberritzeko 105.000 euro inbertituko dituzte. Lan hauetarako Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak espero ditu udalak.

Baina horietaz gain, bertze zenbait lan ere egin nahi di-

tuzte aurten. Honela, Oreneta auzora eta Olako baserrira bidea hobetzeko 50.000 euroko inbertsioa aurreikusia dago eta bertze horrenbertze oihanberritze lanetarako eta basoko mantentze lanetarako. Baserrietako pistetako erortzeak eta bertzelako ezustekoei aurre egiteko 17.000 euroko diru-saila ere gorde dute. Bertze aldetik, bestak antolatzeko 25.500 euroko aurrekontua izan da, musikarako kiosko bat erosteko 20.000 euro. Gainera, Bortzirietako Euskara Mankomunitateari 27.000 euro ordainduko dizkio eta 11.000 euro bideratuko dituzte erabilera anitzeko langilearen ordezkapena egiteko.

### Diru-sarrerak

Diru-sarrerei dagokienez, Nafarroako Gobernuak bizilagun kopuruaren arabera herriari ematen dien diru-sailetik 288.000 euro espero dituzte eta hiri-kontribuziotik 152.000 euro. Ibilgailuen zergatik ere 67.000 euro sartuko dira. Abeltzaintza azpiegituretarako dirulaguntzak ere izan da.



JOSEBA OLAGARAI

## 'Biba zuek' ETBko saioan herriko berri

Joseba Olagarai herriko kazetariak zuzeneko konexioa egin zuen Etxalartik *Biba Zuek!* saiorako. Benantxio Elizagoienek Iriondoko baserriko tresna zaharren erakusketa erakutsi zuen. Ainara Berrueta eta pandero-joleek erakustaldia egin zuten *Olentzero* kantua zeinu hizkuntzan kantatuz.



SERGI PARAMÉS

## Itsaso Elizagoienen bira Nuñezekin

Seigarren Eguberrietako bira egin du Carlos Nuñez gaita-jole famatuarekin Itsaso Elizagoienek. Guztira 25 kontzertu eskaini dituzte, azaroaren erdian hasi eta urtarrilaren hondarrera arte. Otsail bukaeran Argentina eta Txilera bidaiatuko dute kontzertuak eskaintzera.



## PRIM, c.b.

### Fisioterapia Zentroa



*Etorri eta probatu debalde!*

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA  
Colón Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina.tolosaechepare




**USOA**  
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244  
**ETXALAR**



Denda, 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean Erreformak, etxe berriak Lantegietako mantenu lanak**

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxeko konponketa  
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Ibilgailu astunek sartzeko eta ateratzeko errazagoa izanen dute. MAITE, ANA ETA ITZIAR

## Hilerriaren ondoan aparkalekua egokitu du udalak

Kanposantuaren ate nagusiaren ondoan zeuden zaborrontziak ere bertara eraman dituzte

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Kanposantu ondoan duen lursail bat aprobetxatu du udalak aparkaleku ttiki bat egokitzeko. Hilerriko erabilitzaileentzako aparkatzeko lekua irabazteaz gain, gaur egun ate nagusiaren aitzinean dauden zaborrontzien kokapen berria izanen da gune berri hau. Horrela, «bai duen edertasunagatik, bai sinbolismoagatik, ematen dioguna baino tratu hobea merezi duen leku bat» ordenatu eta balioetsi nahi dute.

Lanak, gainera, mendiko sarrera eta irteera hobetzen

die ibilgailu astunei, tamainagatik eta bidearen estutasunagatik beraien lana egiteko zailtasunak zituztenei.

### Mus eta partxis txapelketa

Eguberrietako azken ospakizunen ondotik (*Santaktan* ibili ziren Biltoki Tikikoak urtezahar egunean bertotan etxez etxe eta errege kabalgata) Biltokiko mus eta partxis txapelketak martxan dira. Ilbeltzaren 14an mus txapelketa abiatu zuten eta 15ean, berriz, partxisekoa. Otsailaren 26an finalak jokatu dituzte. Zorte on denei.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

## Urteko lehen dantza saioa eskaini dute

Ilbeltzaren 7an urteko lehen dantza saioa izan genuen. Emanaldi polita izan zen egiatan. Joan den urteko abenduan behar zuen baina gibelatu behar izan zuten. Saio ederra eskaini zuten herriko dantzariak eta disfrutatze aukera izan genuen, nahiz eta eguraldiak batere ez zuen lagundu.



UTZITAKOA

## Eukeni Etxenike txapeldunorde

Abenduaren 31n Berako Eztegarra pilotalekuan Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten eta hauetako batean herriko Eukeni Etxenike ere aritu zen. Gaztetxo mailako finala jokatu zuen. Ekai Madariaga arantzarraren kontra galdu eta txapeldunorde izan zen

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria  
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Astelehenetik ortziralera:  
07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandea:  
08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

**Arduo**  
arropa-denda  
etxeko osagarriak | lenteria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

**ANTZUZELAI**  
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17  
info@antzuzelai.com  
www.antzuzelai.com

HARGINTZA  
FATXADAK  
TXIMINIAK  
ZOLAK  
TAILLA ARTISTIKOAK  
OBRAK



TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook  
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Lehenbiziko mailako ikasle batzuk zaborrak biltzen. ESKOLAKO UTZITAKO ARGAZKIA

## Eskolako irakasleak eta ikasleak ere auzolanean

Aurten ere zaborrak biltzen ari ditu dira herrigunean eta inguruetan

### NEREA ALZURI

Herriko auzolan sisteman parte hartzeko eta ingurumenaren zaintzaren garrantziaz ohartarazteko helburuarekin, bertze urte batez, herrigunean eta inguruetan zabor bilketa egin zuten eskolako ikasle eta irakasleek ilbeltzaren 14an.

Taldeka, herriko hainbat txokotan aritu ziren zaborra biltzen: Haur Hezkuntzakoak parketik Apezenera artean; Lehen Hezkuntzako lehenbiziko mailako ikasleak eskolatik frontoira arteko bidean; bigarren mailako neska-mutikoak aparkalekuan eta Beheko Pi-

suetan; hirugarren eta laugarren mailako taldeak Osiñan eta Goienburun; borzgarren eta seigarren mailako ikasleak Meaka aldean eta, DBHko ikasleak Txaneko borda aldean.

Orokorrean herria garbi egoten bada ere, beti izaten dira zabor batzuk lurreen. Horiek bildu, sailkatu eta edukiontzi egokietara bota zituzten. Ttikitatik, herriko betiko ohitura den auzolana zer den ezagutu eta bidenabar, herria eta ingurumenaren zainketan sentzibilizatzen dira gisa honetako jarduerekin. Aunitz ikasten dute jarduera hauek landuz.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Euskal presoak gogoan

Euskal Herriko bertze bazter aunitzetan bezala, Arantzan ere euskal presoaren eskubideen aldeko elkarretaratzera egin zuten joan den ilbeltzaren 8ko arratsaldean. Sarek egindako deialdiarekin bat eginez, herriko plazan bildu ziren herritarrak.



AMAIA APAOLAZA

## Bortzirietako banakakoan bi txapel

Abenduaren 31n jokatu zituzten Bortzirietako banakako pilota txapelketako finalak eta bederatzi txapeletatik bi Arantzara etorri ziren. Kimuen A mailan Ander Etxegarai Maiz nagusitu zen eta gaztetxoaren kategorian, berriz, Ekai Madariaga Apaolazak txapela jantzi zuen. Zorionak bikote!

**E D A R I A K**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
 Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
 tabernabera@gmail.com  
 www.tabernaedariak.eus

**caser**  
residencial

[www.caserresidencial.es](http://www.caserresidencial.es)

**Egonaldi motak**

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
  - 365 egunetan irekiak
  - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendalara
  - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

**ANAKA** | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780  
**BETHARRAM** | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

## Bigarren urtez inauteriak bertan behera utzi dituzte

Gazteek oharra kaleratu dute inauteriak ez egiteko hiru arrazoi nagusiak zein diren esplikatuz

### MAIDER PETRIRENA

Covid-19ak eguneroko martxa aldatu izan ez balu, herritarrok hain maiteak ditugun inauteriei begira egonen ginatke egunotan. Bigarren urtez, ordea, ez da halakorik izan. Inauteriak antolatzeaz arduratzen diren gazteek aurten ere inauteriak ez ospatzea erabaki dute. «Kontrolik gabeko Covid kasuen gorakada» izan da gazteek inauteriak alde batera utzi izanaren arrazoietakoa bat. Horrekin batera, «ez baserrietan, ezta herriko etxeetan ere, eskea ez egitea erabaki dugu». Azal-

du dutenez, «etxe eta baserrietako batzuek dagoeneko ezetza eman digute eta denen osasuna begiratu beharra dago».

Igandeko karrozen desfileari lotutakoa da hirugarren arrazoiak. Gazteek jakinarazi dutenez, lerro hauek idazterakoan, «udalaren aldetik oraindik erantzunik ez dugula ikusita, igandeko orgen desfilea ez da egingen». Horren harira, aipatzekoa da, inauterietako desfilean jatekoa ematen duten hiru karrozak nahiko hondatuak gelditu zirela abenduko euriteen ondorioz.

## Hiru meza grabatu ditu ETB1ek hilabete honetan

Ba al zenekien berriki ETBk Sunbillako emandako mezak grabatu dituela? Zehazki, urtarrilaren 8an, 15ean eta 22an ETB1erako mezak grabatu zituzten. Ez da herriko elizan ibili diren lehenbiziko aldia. Orain dela bost urte ere ETBk aukera hori eman zuen.



**LIZUN**  
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

## Desfibriladorearen ikastarorako dirua biltzeko hiru lote zozketatuko dituzte

### M. PETRIRENA

Desfibriladorearen ikastaroko gastuak ordaintzeko hiru lote osatu dituzte. Parte hartzeko Marisol janari-denda, Fonda ostatuan eta Bustitz ostatuan zenbakiak jartzeko aukera izanen da bi euroren truke. Otsailaren 1eko, 2ko eta 3ko ONCeren azken bi zenbakiak kontuan hartuko dituzte. Otsailaren 1ean Marisol janari-dendako lotea zozketatuko dute; otsailaren 2an Fonda ostatuko egingen dute eta otsailaren 3an Bustitz ostatuko.



Lotearen irudia. AITOR IBARRA



Nahia Bertiz Babaze eskuinean, Bortzirietako pilota txapelketako finalean.

## Herriko pilotariak eta txirrindulariek lanean segitzen dute

### M. PETRIRENA

Hainbat kirol kontu izan ditugu azken asteotan. Abenduaren 31n, adibidez, Bortzirietako banakako txapelketen finalak jokatu zituzten eta Nahia Bertiz Babaze herritarrek finala jokatzeak aukera izan zuen. Nahiz eta txapela herrira ez ekarri, aunitz erran nahi du finalera ailegatu izanak.

Horrez gain, Ados pilota klubak berriki hasi duen Eusko Label bikotekako txapelketan, Nahia Bertiz Babaze eta Iraide Iriarte Petrarena herritarrek hainbat jaialditan parte hartzeko gonbidatuak izan dira.

Pilotarekin segituz, Nafarroako Kirol Jokoak eta Malerreka-ko XX. txapelketa ere martxan dira, eta hainbat herritar ari dira parte hartzen: Aimar Bertiz Babaze, Ibai Maritxalar Ibarra, Santi Jimenez Etxeberri, Nahia Bertiz Babaze eta Iraide Iriarte Petrarena.

Bertzalde, urte hasieran, Ba-luarten egindako Nafarroako Txirrindularitzaren Galan herriko bi txirrindulari saritu zituzten Nafarroako Kirol jokotan lortutako emaitzengatik: infantiletan Ulibeltzak taldeko Aitor Igoa Arretxea eta kadeteen Eneit Bertiz Apezetxea.

# Etxeko hegaztiak kanpoan haztea debekatu dute

Hegazti gripea prebenitzeko neurri hau hartu du Nafarroako Gobernuak eta guttienez otsailaren 15era bitarte egonen da indarrean



Hegazti basatiekin kontaktua ekidin beharko da.

## TTIPI-TTAPA

Hegazti gripeak azken aldian izan duen bilakaerari aurre egiteko, Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak birusaren aurkako prebentzio eta kontrol-neurriak ezarri ditu, Nafarroako hegazti instalazio guztiei eraginen dietenak.

Urtarrilaren 5ean egindako ebazpenaren arabera, «debekatuta dago etxeko hegaztiak aire zabalean haztea eta hegazti basatiek erabili ahal izan dituzten deposituetatik datorren urarekin hornitzea». Honez gain, hegaztiak hazteko ustiapenetan «biosegurtasunari dagozkion neurriak zorroztea» gomendatu dute, «instalazioetako bisitak minimizatuz eta garbitasun eta desinfekzio protokoloak aplikatuz ibilgailuetan eta pertsonengan».

## Otsailaren 15a arte

Hegaztiak aire zabalean ez haztea posible ez den kasuetan, «alanbre-sarea edota hegazti basatiak sartzea eragozten duen bertze gailuren baten ezarpena eginez» baimenduko da hegaztiak kanpoan edukitzea. Hegaztiak barruko janari eta edariarekin hornitu beharko dira eta kontaktua ekidin beharko da hegazti basatiekin.

Neurri hauek indarrean izanen dira otsailaren 15era arte eta orduan arrisku epidemiologikoaren ebaluazioa egingen dute, mantenduko diren edo aldatuko diren erabakitzeko.



**Xabier PÉREZ**, Elizondo >

**«Graduak gastronomia eta sukaldeaz haratago errealitate ezberdinak modu zabalagoan ulertzeko aukera eman dit»**

**Definitu apur bat zure burua (adina, herria, gradua eta kurtsoa)**

Xabier Pérez (Elizondo, 21 urte) Gastronomía eta Sukaldaritza Arteak graduko 4. maila burutzen ari da. **Zergatik aukeratu zenuen Gastronomía eta Sukaldaritza Arteen gradua?**

Sukaldaritza belaunaldi ezberdinetan zehar nire familiaren ogibidea izan delako. Bertzalde, sukaldaritza inguratzeko aukera paregabe gisa ulertzen nuen.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Arras aberasgarria izan da, gehienbat nire begiak irekitzen erakutsi didalako eta baita izaera eta pentsaera kritikoa garatzeko aukera eman didalako. Era berean, gastronomia eta sukaldeaz haratago mundu hau osatzen duten errealitate ezberdinak modu zabalagoan ulertzeko aukera eman dit.

**Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Batxilergoko metodologiara ohitua egonda aldaketa handia izan da Basque Culinary Centerren sartzea. Izan ere, bertan errealitatean oinarritutako kasu praktikoei irtenbidea bilatzera bideratuz, egiteko gai izan naitekeena frogatzeko aukera izan dut.

**Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko?**

Gustuko dut unibertsitatean jatorri aldetik elkartzen garen jende aniztasuna, munduko bazter ezberdine-



tako pertsonak ezagutzeko aukera delakoan. Bertzalde, interesgarria da gastronomiaren mundu zabala ezagutu eta bere aniztasunaz jabetzeko ematen zaigun aukera, ikasturtean zehar, gastronomiarekin lotura duten alor ezberdinen inguruan antolatzen diren hitzaldi eta jardunaldi ezberdinen bitartez.

Hobetu daitekeen aspektuen artean, unibertsitate honek duen izen eta mundu mailako ospari lotuta, ongi legoke, esparru nazionaletik haratago lurralde eta kultura gastronomiko ezberdinak tokian bertan ezagutzeko aukera izatea.

**Zer nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak?** Aukera paregabea eskaini didate ostalaritza enpresa bat osatzen duten aspektu ezberdinak ezagutu eta ulertzeko.

**Etokizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Gastronomiak gure ingurumena eta gizartearen aldatzeko duen potentzialaz jabetuta, gure gizarte hobetzeko asmoa duten proiektuetan parte hartu edota sortzea gustatuko litzaidake.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



Leire Ortuoste alkatea eta Pello Grazenea zinegotzia, Parrokia karrikan. A.AROTZENA

## Mugikortasuna hobetzeko lanen berri eman dute

Merkatu Plazako eta Bordatxokoez gain, Aranzokoko bidean 50 autorendako aparkaleku berria atonduko dute ilbeltzean

### MARGA ERDOZAIN

Herria bizigarriagoa egiteko lanean ari da udala eta mugikortasun planaren barrenean egiten ari diren ekintzak aurkeztu zituzten ilbeltzaren 11n udaletxean Leire Ortuoste alkatea, Pello Grazenea hirigintza zinegotziak eta komunikazio aholkulari lanak egiten ari den Oroitz Zabalak.

Alkateak aipatu zuenez, «gure herria aspalditik arrastaka duen arazo bati irtenbide emateko ordua da, orain arte izandako udal gobernuek eta herritar guztiok aski ongi ezagutzen duguna. Herritarren bizi kalitatea hobetu nahi dugu, Doneztebe bizitzeko atsegina eta erosoagoa izatea. Eta horretarako, herriko mugikortasuna hobetzeko garaia heldu da».

Izan ere, erdiguneko karraketan desoreka handia dagoela uste du udalak, «kotxeek espazio handiegia okupatzen dute, nonahi aparkatzen dira, bai espaloian, baita karrikan bertan ere. Berdin du kotxez, oinez edo bizikletan ibili, karririk igarotzeko zailtasunak nabarmenak dira eta honek

konponbide bat eskatzen du, aspalditik gainera».

### Hiru ordenantza berri

Testuinguru honetan, udalak 2019an parte-hartze prozesu bat martxan jarri zuen herritarrekin, ostalariekin eta teknikariek batera irtenbide bat bilatzeko. Pandemiak prozesu hau baldintzatu du baina, hala ere, «arras aberasgarria» izan da eta horren emaitza hiru udal ordenantza berri dira:

• **Trafiko Ordenantza:** otsailko udalbatzarrean onartuko dute. Alde Zaharra 20 km/orduko zonaldea izendatuko du, oinezkoen eta txirindularien eskubideak handituz, eta kotxeak espaloietatik ateratzeko aparkamenduak erregulatuko ditu.

• **Badoen erregulazioa:** hau ere otsaileko udalbatzarrean onartuko dute eta Doneztebe beharrei erantzunez, bi bado modalitate sortuko ditu: permanenteak eta ordukoak.

• **Terrazen Ordenantza:** abendu udalbatzarrean onartuko zuten eta karraketan oreka

bilatu nahian, kotxeen, oinezkoen eta ostatuen arteko elkarbizitza arautzen du, ostatuen terrazak mugatuz eta segurtasun distantziak zehaztuz.

Interbentzio zehatzei dagokionez, azaroan eta abenduan hainbat karraketan seinaleztapen-horizontalak eta hobekuntzak egin dituzte, Parrokia karrikan espaloia handitu eta gehienbat oinezkoendako prestatuko dituzte, zama lanentzako eta tokiak eta txandakako aparkalekuak sortu dituzte eta, horrekin batera, seinalizazio bertikal berria instalatu dute.

Alde zaharrean kotxeen kopurua murrizteko asmoz ilbeltzean Merkatu Plazako eta Bordatxoko aparkalekuak atontzen ari dira eta Aranzoko bidean 50 autorendako aparkaleku berria sortuko dute. Hiru aparkaleku hauek erdigunetik gehienez bi minutura daude. «Honekin guztiarekin, kotxeen, oinezkoen eta bizikleten arteko bizikidetza indartzera goaz, bazen garaia. Honek guztiak ohitura aldaketa txiki batzuk ekarriko ditu, noski, eta guztion onurarako izanen da. Herriaren onurarako izanen da», aipatu zuen Leire Ortuostek.

Hobekuntza hauek ezagutzera emateko eta ohitura aldaketak laguntzeko komunikazio kanpaina ere martxan jarri dute, *Gozatu karrika denona. Doneztebe a pie, en bici y en coche* leloa duena. Horren baitan WhatsApp informazio kanala, kartelak, buzoiratze eskuorria eta bertzelako bitartekoak martxan jarri dituzte. «Karrika denona da eta denon artean gozatu nahi dugu. Karririk paseatzeko, erosketak egiteko, jolasteko, senide eta lagunekin biltzeko, hemendik harat mugitzeko, elkarrekin disfrutatzeko... egin dezagun karrika gozagari! Egin dezagun Doneztebe bizigarri!», erranez akitu zuten agerraldia udaletxean.

## Idazketa tailerra abiatuko da otsailaren 1ean liburutegian

### M. ERDOZAIN

Poesia tailerraz eta irakurketa taldeaz gain, otsailaren 1ean idazketa tailerra martxan jarriko dute liburutegian. Ekimen honen helburua norberak sormen artistikoa garatzea, norberak barruan bere baitan dituen bizipenen kontaketa idaztea eta gainerakoekin partekatzea da. Hitzorduak hamabortzero izanen dira, liburutegian, 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak 948 48 09 09 telefonora deitzen ahal dute.

### Liburu aurkezpena

Elixabete Badiola Leonen *Antes de la última casa* eleberriaren aurkezpena ilbeltzaren 28an, ortziralea, 18:00etan egingen dute liburutegiko aretoan. Bertaratzeko honako telefono honetan konfirmatu behar da: 669 27 03 23.

### Irakurketa taldea

Ilbeltzaren 31n, astelehena, gaztelaniazko irakurketa taldeak hilabete honi dagokion lana landuko du: *El vagón de las mujeres*; otsailerako auke-ratutako lana Esther Tusquetsen *Correspondencia privada* eleberria izanen da.

## Zinema emanaldiak Erreka Guraso Elkartearen eskutik

Eguberrietako oporretan abiatu ziren Erreka Guraso Elkarteak antolatutako hamabortzeroko zinema emanaldiak. Hurrengo hitzordua ilbeltzaren 30ean, igandea, izanen da, 17:00etan. Bazkideek euro bat eta bazkide ez direnek bi euro ordaindu behar dute. Emanaldietan osasun neurriak eta elkarbizitza arauak ere bermatuko dira.



Temperatura hotzak ez zituen Arkupeak elkarteko mendizaleak kikildu. P. IRASTORTZA

# Arkupeak elkarteko mendizaleek lehen txangoa egin dute

Donezteben hasi eta akitu zuten ilbeltzaren 18ko ateraldia jubilatuen elkarteko 48 mendizalek

## P. IRASTORTZA

Arkupeak elkarteko 48 mendizalek (2020ko otsailaz geroztik kopururik handiena) egin zuten ilbeltzaren 18an Doneztebe-Gaztelu-Trosketako urjauziak-Artze-Kanposantua-Donztebe ibilbidea. Zeroz behetiko bi graduko hotz zorrotzak ez zituen kikildu, eta 09:00etan, zintzo demonio, ekin zioten bortz orduko lanari. Hasieran behe lainoa bazegoen ere, goizean zehar eta mendia igo ahala, inguruko herriak eta mendiak ikusteko aukera bikaina izan zuten. Covid kutsaketak dire-



Mendizaleak Donamariako gazteluan.


la eta, bakoitzak bere modura antolatu behar izan zituen ondorengo bazkari kontuak. Hurrengo hitzordua Beran izanen dute, otsailaren 15ean.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Eusko Label txapelketako jardunaldia

Eusko Label binakako txapelketako jardunaldia jokatu zuten ilbeltzaren 15ean Ezkurra pilotalekuan. Etxekolonea zubieta-rrak eta Mujikak 22-17 irabazi zieten Etxeberría eta Iraetari. Promozio mailako partidari, Rodriguez eta Mondragon II.ak 22-18 irabazi zieten Peribañez eta Alduntzini.



ERREKA KE

## Errekaren neguko fitxaketak

Urte berriari garaipenarekin ekin zion Errekako eskubaloi talde nagusiak eta horretan lagundu zuten neguko fitxaketek ere: Mario Lopez gartzaindarra, Mattin Jaunsaras eta Javi Gago taldera bueltatu dira. Ilbeltzaren 16an jokaturako partidari 30-17 irabazi zion Errekak BM Noaini.

## AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

### GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

## ola

SAGARDOTEGIA

[www.olasagardotegia.eus](http://www.olasagardotegia.eus)

bisitatu gure online denda!

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
- Sagardo ekologikoa
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua
- Covid-aren aurkako neurriekin
- Asteartetik larunbatera afariak, larunbat eta igandeetan bazkariak

SAGARDO BERRIAREN GARAIA

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130



Tere Arretxea ikastetxeko matrikula liburua eskuetan duela.

## «Maitatua eta baloratua sentitu naiz eta hori izugarria da»

**TERE ARRETXEAK IRAIZOZ DONEZTEBEKO ESKOLAKO ETA INSTITUTUKO ADMINISTRARI OHIA**

23 urtez Doneztebeko eskolako eta institutuko administrari izan denak erretiroa hartu du. «Lanean hagitz gustura» aritu dela dio, eta etxerako bidea «penaz» hartu omen du. Bi hamarkadatan «nire etxea» izan deneko hainbat kontu izan ditu hizpide TTIPI-TTAPAREKIN

### **G. PIKABEA**

Bat baino gehiago ilusioz egonen da amestutako erretiroa hartzeko, lanean emandako hainbertze urteren ondotik, deskantsurako garaia izan daitekeelako, edo denbora norberak nahi bezala antolatzeko aukera ederra. Tere Arretxea Iraizozek (Sunbilla, 1961), ordea, halabeharrez hartu du erretiroa, eta aitortu digunez,

«pena handia» du, eta «lehenbiziko egunetan arraro» ere sentitu da, lantokian «etxean bezala» aritu delako. Eguneroko errutinari gustua hartuta, lanean «kontent» aritzeko eta «gozatzeko» zortea izan du Arretxeak. 23 urtez Doneztebeko San Miguel eskolako eta Mendaur institutuko administraria izan da, eta tarte horretan, ikasle kopuruekin dantzan,

garraioarekin puzzleak egiten, behatzak teklatuan, eskuak paper artean, oharrak pasilloetan alde batera eta bertzera eramanez edo telefono deiei erantzunez ibili da. Orain erretiroa hartzeko tenorea ailegatu zaio Sunbillako Aldameneko bordako alabari.

### **Zer moduz erretiroa hartuta?**

Hagitz gustura aritu naiz lanean, gozatu dut, eta pena handia-

rekin baina uzteko eguna ailegatu zait.

### **Betitik izan duzu ikasteko gogoia?**

Lau senide gara, hiru ahizpa eta anaia, eta nik bakarrik ikasi nuen. Garai hartan, lanbide eskoletako zuzendariak apezak izaten ziren eta Berako Luis Aizpuru apezka baserrira agertu zen Berara ikastera joan nahi nuen galdetzeko. Nire gurasoek baietz erran zioten eta bere bitartez, Berako eskolara joan nintzen. Lanbide Heziketako 1. maila egiten bi urte pasatu nituen eta hura akitutakoan, Leitzara joan nintzen, oraingo goi mailako zikloa egitera. Bertze hiru urte pasatu nituen. Handik enpresa ikasketak egitera Iruñera joan nintzen, baina ez nintzen batere jarri hiriko girora, hagitz zaila egin zitzaidan. Gainera, ordurako, Ibardinen lanean ari nintzen, gehiegixko zen eta utzi nuen. **Tarte horretan, lana eta ikasketak uztartu zenituen?**

Bai, bai. 1980an akitu nituen ikasketak, baina ez zegoen administrari aritzeko lanik. Ordurako ostalaritzan hasia nintzen. 14 urterekin Lizuniagan hasi nintzen, eta gero Ibardinen aritu nintzen, guztira hamar urte ostalaritzan.

### **Zergatik aukeratu zenituen administrari ikasketak?**

Garai hartan horixe zen Beran zegoena...

### **Ez zegoen aukera handiegirik...**

Ez, eta gainera ez ginen aunitz ikasteko bidea hartu genuen neska baserritarrak. Nire gurasoak ikastearen aldekoak ziren, baina oroitzen naiz osaba baserrira etortzen zen aldirorotari «zer, neska hau oraindik ikasten ari duk? Gero esposituko da eta hara hire dirua!» erraten ziola. Nire lehengusinek ez zuten ikasi.

### **Garbi zenuen ez zenuela ostalaritzan segitu nahi?**

Ostalaritzakoa lan polita da, baina ez du deus ikustekorik. Asteburuak besta, abuztua libre... Ostalaritzan aritu nintzenean abuztuan oporrak izanen nituela erran izan balidate, zeinen kontent jarriko



nintzatekeen. Gainera, garai hartan ostalaritzako lanak ez zuen ordutegirik, sartu eta lana akitzean ateratzen ginen. Edozein moduz, hasierako urteetan administrari lanean aritzen nintzen arren, ez nuen ostalaritza alde batera utzi, tarteka joaten nintzen. Haurdun gelditu nintzenezan utzi nuen alde batera.

**Eta nolatan hasi zinen Doneztebeko eskolan administrari lanean?** Lehenbizi, azterketa batzuk gainditu eta Donezteben mankomunitatearen bulegoan hasi nintzen, lanaldi erdian. Mankomunitateko lehenbiziko administraria izan nintzen. Gero bertze azterketa batzuk gainditu eta, Iruñean, abeltzaintzako departamentuan lan egiteko deitu zidaten. Haren ondotik, oposizioak atera nituen, eta administrariaren zerrendan sartu nintzen. Euskarako titulua izateak aunitz lagundu zidan, horrek zerrenda aunitz murriztu baitzuen. Eta hala, Elizondoko Lanbide Eskolan hasi nintzen. Huraxe izan zen funtzionario bezala lan egin nuen lehenbiziko lekua. Handik Doneztebeko institutura joan nintzen, orain dela 23 urte.

**Zer moduzkoa izan zen hasiera?** Doneztebeko institutuko lehenbiziko administraria izan nintzen, nire aitzinetik ez zegoen bertzerik eta hasieran dena hankaz goiti zegoen. Maria Jesus Perurena zuzendariak utzi zuenean, zuzendari berria etortzekoa zen ikastetxera, baina honek administrari ez bazen ez zela etorriko erran zuen. Orduko ikuskariak lanaldi erdia Elizondon eta bertze erdia Donezteben egitea proposatu zidan, eta hala hasi nintzen. Urte bat pasatu nuen Elizondon eta Donezteben bietan lanean. Gero, ordea, Donezteben lanaldi osorako administrariaren lanpostua ateratzea erabaki zuten, institutuko eta eskolako administrari lanak egiteko, eta Elizondokoa utzita, egun osoz Donezteben hasi nintzen.



Arretxea urte luzez bere lantokia izan denaren atean.



#### Zer izan da zure ardura?

Matrikulak egitea, ikasleen datuak sartzera eta ikasturte hasieran tutore bakoitzari ikasleen zerrenda, gurasoen datuekin eta telefonoarekin pasatzea, telefonoa hartu eta mezuak pasatzea, zuzendari-zakoekin egon hau edo bertzea nola egin adostea... Garraioa antolatzea ere nire ardura izan da eta sei linea izanda, konplikatua samarra da, herri batetik hainbertze heldu direlako, ondoko herritik bertze horrenbertze... Osatzea ez da erraza.

#### Hainbat aldaketaren lekuko izan zara...

Teknologiarena, adibidez, ikaragarria izan da. Lehen dena paperen bitartez egiten genuen, gelaz gela oharrak banatzen ibiltzen nintzen, eta bereziki pandemiaren geroztik, papera desagertu egin da eta familiekin harreman guztia posta elektronikoki bidez egiten da. Hasi nintzen garaian faxa ere ikaragarriko abantaila zen. Amari faxa zer zen esplikatzeko

nik idatzi eta papera hegaka joaten zela erraten nion, telebistako iragarkian bezala. Gaur egun, faxa erabiltzea pentsaezina da. Duela bi urte bota nuen, ez zuelako deusetarako balio. Telefonoekin ere aldaketa handia izan da. Lehen denak telefono finkoak ziren, eta orain dena mugikorak dira, lehen ikasleek bazekizkiten etxeko telefonoak eta orain ez. Lehen dena telefonoz egiten zen, eta orain, guraso aunitz posta elektronikoz zuzenean irakaslearekin jartzen dira harremanetan. Teknologia abantaila aunitz ekarri ditu.

#### Gurasoen artean ere aldaketak sumatu dituzu?

Bai, bai. Lehen eskolako kontuetan guttiago sartzan ziren. Orain zerbait pasatzen bada, segidan hor daude. Irakasleek erraten dutenez, hemen oraindik hagitx ongi gaude, baina Iruñerrian gurasoak segidan seme-alaben alde jartzen omen dira, zer gertatu den galdetu gabe edo bertze alderdia aditu

gabe. Joera hori honat etortzen ere hasia da, nabari da.

#### Donezteben garai batean A, B eta D ereduak izan ziren aukeran, gaur egun A eta D ereduak. Hor aldaketarik sumatu duzu?

Bai. A ereduko hiru ikasgela ezagutu izan ditut Donezteben, eta DBH ere A eredukoa izan zen. Orain A ereduko gela bakarria izaten da Lehen Hezkuntzan eta hamar bat ikasle izaten dira. Ikasturte honetan izan den ikasle kopururik handienetakoa da, 553 ikasle, eta gehienak D ereduan dira.

#### Gelatik kanpo zein da joera?

Gelatik kanpo lehen baino erdara gehiago sumatzen dut. Lehen, klasetik kanpo, ia denak euskaraz aritzen ziren, orain ez. Garai batean, baserriar batzuk erdaraz ikasteko A ereduan sartzan zituzten, eta horiekin euskaraz ez zekitenek ere euskaraz ikasten zuten. Gaur egun, ez da holakorik pasatzen. Erdaraz solas egiteko joera izugarria da, eta ttikitatik nabaritzen da.

#### Herri ttikitatik Doneztebera bada aldea?

Herri ttikitako haurren artean guttiago sumatzen da erdara, baina lehen baino gehiago.

**Doneztebeko eskualde mailako eskola da. Zein dira zure ustez horren alde onak eta txarrak?** →

**«LEHEN DENA PAPERAZ ZEN, ETA ORAIN PAPERAZ DESAGERTU DA»**

**«LEHEN GURASOAK GUTTIAGO SARTZEN ZIREN ESKOLAKO KONTUETAN»**



Tere Arretxea Doneztebeko eskolako bere bulegoan.

Nire etxea izan da eta ez diot alde txarrik ikusten. Doneztebeko eskola kontzentrazioa ireki zutenean, OHO Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko zortzigarren maila bertan egin nuen. Orduan hagitz eskola tristea iruditzen zitzaidan, baina orain, bertze aldetik begiratuta, diferentea ikusten dut. Alde txarren artean, eskola ttikietan jende guttiago izaten dela eta alde horretatik familian bezala sentitzen direla erraten ahal da. DBH egitera lehenbiziko aldiz etortzen direnean nabaritzen da, izutu egiten dira, lehenbiziko hiru hilabeteetan «hau zer da?» galdetzen dute.

**Hainbertze urtez anekdota azkar-ki izanen dituzu, ez?**

Beti erraten nuen gurasoek errandakoekin liburu bat egin behar nuela, baina ez dut fundamenturik egin. Oroitzen naiz, behin, atta batek, erdaraz, «aukeraketa normal egin duzue edo tonto guztiak nire semearen gelan paratu dituzue?» bota

zidan. Bertze batean, irakasle batek ikaslea bete-betean harapatu zuen txuletarekin. Lan bat entregatu behar zutenean edo kopiak nahi zituztenean, aunitzetan niregana etortzen ziren kopiak egitera, ordainduta. Nire ordenagailutik fotokopiagailu-inprimagailura bidaltzen zuten inprimatzera. Nik ez nuen ikusten zer inprimatzen zuten, eta behin, ikasle batek inprimatzera bidali zuenean, fotokopiagailuan zegoen irakasleari bere ikasgaiko txuletak agertu zitzaizkion eskuartean. Irrigarria izan zen. Horrelako anekdota aunitz pasatu dira, baina ez ditut apuntatu eta ez naiz oroitzen. **Bada bereziki gogoan gelditu zaizun momenturen bat?**

**«URTE POLITAK PASATU DITUT ETA AKABAILA ERE HALA IZAN DA»**

Momentu tristeak ere izan dira. Urteotan irakasle bat eta hiru ikasle hil dira, eta horiek momentu gogorak dira.

**Eta onak?**

DBHkoekin laugarren maila akitzen dutenean egiten den besta hagitz polita izaten da, edo Haur Hezkuntzakoekin irteeraren bat dutenean izaten duten ilusioa ederra da. Momentu polit aunitz izan ditut.

**Zer eman dizute Doneztebeko eskolak eta institutuak?**

Maitatua eta baloratua sentitu naiz, eta hori izugarria da. Ez dute nire lana bertze batekin konparatzeko aukerarik izan [irriz], baina beti eskertu didate egin dudana. Urte hauetan, harreman onak eta lagun handiak egin ditut,

**«PENA SENTITU DUT ETA HASIERAN KOSTAKO ZAIT ETXEAN EGOTEA»**

eta haurrek eta gaztetxoek bizipoza eman didate.

**Inoiz sentitu duzu hori ez zela zure tokia?**

Beti gustura aritu naiz. Noiz-behinka haserretzen nintzen, gurasoekin, irakasleren batekin edo bertze lankideekin... Nik ere badut nire jenioa... [irriz] Baina kontent aritu naiz.

**Omenaldia ere egin zizuten...**

Abenduaren 31n hartu nuen erretiroa, eta 22an egin zidaten, hagitz polita izan zen. Gauden garaian ezin da gauza haundurik egin, eta gainera bezperan gelaz gela bideotxoak bidali zizkidatenez, ez nuen deus espero. Baina hagitz polita izan zen. Txistua sumatu nuen, eta kanpora ateratzeko erran zidaten. Ikasleek aureskua dantzatu zidaten, eta lore eta opari aunitz eman zizkidaten. Hankak daldara batean sentitunituen, baina hagitz kontent. Urte politak pasatu ditut Donezteben eta akabaila ere hagitz polita izan zen.

**Ordezkoari erakusten ere egokitu zaizu...**

Nire ordezkoiailbeltzaren 10ean hasi zen, eta hasierako egun batzuetan berari erakusten aritu naiz, baina ez dut balio horretarako.

**Hemendik aitzinera zein asmo dituzu?**

Ez dut asmo haundirik. Mendira joatea gustatzen zait eta orain gehixeago joanen naiz, baita Sunbillara amari bisita egitera ere. Gainerakoan, loreak aunitz gustatzen zaizkit, eta pilatesera joaten segituko dut. Eskulanak egitea ere gustatuko litzaidake eta noizean behin bidaia ttiki batzuk ere egin nahiko nituzke, baina ez dut deus antolatua. Gustura egoten naiz etxean, baina nahia go dut lanera joan. Aitortu behar dut pena handia sentitunitu dudala eta hasieran kostako zaidala etxean egotea, gustukoa baitut eguneroko errutina. Eta ez nuke denei eskerrak eman gabe gelditu nahi: lagunei, familiari, irakasleei, zuzendaritzakoei... Eskerrak aunitz denei.

## Apirilaren 5ean eta 9an eskualdean izanen da Korrika

Euskararen aldeko lasterketa erraldoia martxoaren 31n aterako da Amurriotik eta Donostian bukatuko da apirilaren 10ean

### TTIPI-TTAPA

22. Korrikaren ibilbidea jakinarazi du AEKk eta aldi honetan ere TTIPI-TTAPAK hartzen duen eremuan barna ibiliko da euskararen aldeko herri lasterketa erraldoia. Martxoaren 31n Amurriotik aterako da mezu sekretua daraman lekukoa, 16:30ean, eta hamaika egunez Euskal Herri osoan barna ibili ondotik, Donostian bukatuko da, apirilaren 10ean.

### Apirilaren 5ean Baztanen

Apirilaren 5ean, asteartea, ailegatuko da eskualdera. Eguneko lehenbiziko orduak Zuberoan emanen ditu Korrikaren lekukoak, eta hortik Nafarroa Beherera joanen da. Baigorritik Erratzurako bidea hartuko du goizaldea eta 05:55 aldera Erratzun izatea aurreikusitako dute. Arizkundik (06:15) Elizondora (06:47) joanen da eta Ziga (07:36), Berroeta (08:02) eta Almandoz (08:21) gibelean utzita, Ultzama aldera joanen da.

### Apirilaren 9an Leitzaldean, Malerrekan, Bortzirietan eta Xaretan

Ondoko egunak eskualdetik kanpo egingen ditu Korrikak, baina apirilaren 9an, larunbata, berriz ere bueltan izanen da. Gauerdian, Berastegitik Leitzara (00:35) sartuko da lekukoa. Handik Basakabin barna, Ezkurrara (01:53) joko du. Maldan beheiti lekukoak Zubietara (02:54) izanen du hurrengo helmuga, handik Doneztebe aldera (03:40) joateko. Sunbillara (04:06) joanen da gero, eta handik Bortzirietara sartuko da.

Bortzirietan, Igantzi (05:07), Lesaka (05:40) eta Bera (06:17) zeharkatuko ditu Korrikak eta Ibardinen barna, Lapurdirako bidea hartuko du.

Urruñatik (07:11) eta Azkainetik (07:44) pasatu ondotik, Senperen (08:23) eta Saran (09:34) barna ibiliko da eta

Zugarramurdi (10:40) utzita, Ainhoarako bidea egingen du. Ondoko orduetan Lapurdin izanen da eta apirilaren 10ean Gipuzkoara sartuko da. Egun horretan, 22. Korrikaren lekukoa 12:30 aldera bere helmugan izanen dela aurreikusitako du AEKk.

### Korrika batzordeak martxan

Eskualdean Korrika batzordeak martxan paratzeko bilerak egingen hasiak dira. Aste honetan eta hurrengoan egitekoak dituzte lehenbizikoak: Malerrekako Korrika Batzordea urtarrilaren 25ean Donezteben (Malerrekako Mankomunitatean, 19:00etan); Bortzirietako Korrika Batzordea urtarrilaren

26an Beran (Beralandetan, 18:00etan); Zugarramurdi-Urdazubiko Batzordearen bilera urtarrilaren 28an (Akelarrenean, 19:00etan) eta Baztango Korrika Batzordea otsailaren 2an Elizondon (Suinki euskaltegian, 18:00etan).

Bertzalde, kilometroak erre-serbatzeko aukera otsailaren 1ean zabalduko dute.

*Hitzekin* lelopean egingen da aurtengo Korrika, «hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aitzinera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktikara, salto egingen dutenak».

**22. korrika HITZEKIN**  
Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

korrika.eus

Mar. 31	Amurrio-Basauri
Api. 1	Basauri-Agurain
Api. 2	Agurain-Lerin
Api. 3	Lerin-Irunberri
Api. 4	Irunberri-Donapalau
Api. 5	Donapalau-Acedo
Api. 6	Acedo-Bilbo
Api. 7	Bilbo-Mutriku
Api. 8	Mutriku-Berastegi
Api. 9	Berastegi-Urruñia
Api. 10	Urruñia-Donostia

APIRILAK 5, ASTEARTEA		APIRILAK 9, LARUNBATA	
Erratzu	05:55	Leitza	00:35
Arizkun	06:15	Ezkurra	01:53
Elbete	06:43	Zubietara	02:54
Elizondo	06:47	Ituren	03:20
Gartzain	06:58	Elgorriaga	03:33
Irurita	07:05	Doneztebe	03:40
Ziga	07:36	Sunbilla	04:06
Aniz	07:49	Igantzi	05:07
Berroeta	08:02	Lesaka	05:40
Almandoz	08:21	Bera	06:17
		Ibardin	07:05
		Urruna	07:11
		Azkaine	07:44
		Senpere	08:16
		Sara	09:34
		Zugarramurdi	10:40

Korrikaren ibilbidea eta eskualdean egingen duen bidea.



Martxoaren 26an «zutik gaudela aldarrikatzeko» eguna antolatu dute. UTZITAKOIA

## «Bortzehun urteren ondotik oraindik zutik gaude»

Malerrekako Ernaik hori aldarrikatzeko eguna antolatu duela iragarri du Makilipurdin

### TTIPI-TTAPA

Gaztelako tropek Makilipurdin zegoen Orzorrotzeko gaztelua suntsitu eta erre zutenetik 500 urtera, Malerrekako gazteak Makilipurdin bildu dira, eta martxoaren 26an hori oroitze eta «zutik gaudela aldarrikatzeko» eguna antolatuko dutela iragarri dute.

Malerrekako Ernaik deituta, hainbat gazte Makilipurdi mendian bildu ziren ilbeltzaren 16an, eta Orzorrotzeko gaztelua zegoen tokian oroigarria paratu zuten. «Malerrekako gazteak Makilipurdira goitu gara, baina ez gara kasualitatez data hauetan mendi honetara igo. Izan ere, duela 500 urte Gaztelako tropek zegoen Orzorrotzeko gaztelua suntsitu eta erre zutelako gaude hemen».

Gisa honetara, «500 urte eta gero zutik gaudela» aldarrikatu nahi dute: «500 urte pasatu diren honetan, herri zanpatua izaten segitzen dugu, Espainiar eta Frantziar estatuen menpe segitzen dugu, askea ez den Euskal Herri batean bizitzera kondenatu nahi gaituztelako». Emaireren hitzetan, «zapalkun-



Orzorrotzeko gazteluaren oroigarria.

tzara kondenatu nahi izan gaituzte, baina haien zoritxarreko herri hau bizirik dago, bizirik gaude. Orzorrotzeko gaztelua eraitsi zuten, baina ez zuten herri nortasuna desagertzetik izan, horregatik gaude gu hemen».

Are gehiago, «irudikatzen dugun Nafarroa askea ametsa baino gehiago» dela nabarmendu zuten agerraldian: «Guri dagokigu 500 urtetako sua bizirik mantentzea, guri dagokigu herri honen memoria eraikitzea, guri dagokigu oraina, eta guri dagokigu etorkizuna». Hori horrela, martxoaren 26an «zutik gaudela aldarrikatzeko egun osoko egitaraua» antolatuko dute: «eskualdeko gazteria aldarri independentisten bueltan biltzeko garaia delako».



Ttikienek joareak jantzi zituzten errege bezperan. UTZITAKOIA



Gau partean gazteak ere ez ziren gibelerara gelditu. UTZITAKOIA

## Neurri ttikiagoko inauteriak ospatuko dituzte aurten Iturenen


### TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz, errege bezperan hasi ziren inauterietako ospakizunak Iturenen. Joareak jantzi eta harat-honatean ibili ziren ttikienak egunez eta gazteak gau partean. Baina, aurten bai, inauteriek segida izanen dute beraien ohiko egunetan. Inauteriak antolatzen dituen batzordeak, Nafarroako Gobernuaren aldetik eragozpenik ez dagoela ikusita, aitzinera egitea erabaki du, beti ere behar diren neurriak betez. Hala aipatu digu Jabier Bereau alkateak. «Gauza hauek egiten ahal dira, aire librean eta segurtasun neurriak betez, eta udaletik ezin dugu ezetzirik erran. Foruzaingoari eskatuko diogu errepidea mozteko, joaldunak herri batetik bertzera lasai joateko». Hala ere, Bereauren ustez, «bertze urteetan baino ttikiagoa izanen da, gazte jendea aterako da,

baina jende heldua beldur-tuago dago eta ez du egingen». Eskala ttikiagoko inauteriak izanen direla aipatu digu alkateak, «joaldunak ere gutti-xeago bilduko gara, baina gainerakoan, ordutegiak eta betikoak izanen dira. Seinale bezala zerbait egingen da. Joan den urtean ez genuen egiterik izan eta gazteak batez ere ilusioz zeuden. Eta posible den bitartean eta posible den neurrian egingen dugu ospakizuna».

### Aurtizko ostatua txukundu ondotik zabaltzear

Elgorriagako Eva Martin Ibarrrak hartu du Aurtizko Ostatua eta azken asteetan txukuntze-lanak egin ondotik, aste honetan irekitzekotan dira. Hiru eskaintzen artean berea izan da udalak aukeratutakoa eta, beraz, inauterietan estreinatuko da Aurtizko ostatu berri-tua.



Ilbeltzaren 15eko bileran erabaki zuten inauteriak egitea. UTZITAKO ARGAZKIA

## Murrizketekin bada ere, inauteriak ospatzeko gogoz

Gehienez ere gazteen taldean izena ematen duten 60 lagun sartzen ahalko dira estalpeko otorduetara

### FERMIN ETXEKOLONEA

Aldaketa eta murrizketa handiek izanen bada ere, inauteriak ospatzeko erabakia hartu zuten gazteek ilbeltzaren 15ean egindako bileran eta aurten joare soinuak adituko dira seguruenik.

Hau idazterakoan oraindik dena erabat lotu gabe baldin badago ere, otordu batzuk egitekoak dituzte, baina gazteen taldean sartzen direnak bakarrik egiten ahalko dituzte. 60 lagun gehienez sartzen ahalko dira estalpean, hamarko mahaiak eta ahal bada talde egonkorrekin. Taldeak eta mahaiak osa-

tzeko aurrezerranda bat presatuko da eta ilbeltzaren 26an akituko da bertan izena emateko epea, 50 euro ordainduta. Horren arabera, neurrian egingen dituzte erosketak. Sukaldaria, laguntzaileak eta langileak lotuxeak dituzte horretarako. Larunbatean afaria izanen dute, igandean, astelehenean eta asteartean gosaria eta bazkaria eta asteazkenean bazkaria. Modesto soinularia astelehenean eta asteartean bakarrik ariko da, baina ezin izanen da dantzatu eta estalpean ezin izanen du gazte taldekoa ez den inor sartu.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Inauteriei buruzko panel informatiboak

Inauterien inguruko informazioa, testigantzak eta argazkiak biltzen dituzten borts panel jarri dituzte estalpean. Pello Iriartek diseinatu ditu, Luis Mari Etxartek eta Izaskun Zubialdek utzi dituzte lehengo eta oraingo argazkiak eta testigantzak lortzeko Eusko Kultur Fundazioaren laguntza izan dute.



LURDES ELIZALDE

## San Anton egunaren seinalea

Osasun egoerak horrela aginduta, ez zen garai bateko ospakizunik ezta azken urteetan izan dituzten musikaririk edo otordurik izan ilbeltzaren 17an. Baina San Anton eguneko seinalea egin zuten San Anton baseliza inguruan. Meza ospatu zen eta ondotik hamaiketako banatu zuten atarian.



## Baztango

Inmobiliaria agentzia - API 358  
Herentzian espezializatutako abokatua

San Esteban 11 behea  
BERA (31780)  
Nafarroa

620 028 625  
www.baztango.com

Askatasunaren Hirib. 17-2ª  
DONOSTIA (20004)  
Gipuzkoa

## LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

### Baztan Bidasoko sagardotegiak

**Dolarea**

**Eskualdean egindako sagardoa**

**Txotx denboraldiaren irekiera**

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

## Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



**«Hiletetan zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu»**

**ANDONI ANDUEZA INTXAURRONDO**  
IRACHE TANATORIOA - DONEZTEBE



Duela 46 urte ireki zuten lehenbiziko Irache beilatokia eta badira 27 urte inguru gure eskualdean aritzen direla lanean; Donezteben, Leitzan, Beran, Lesakan eta Elizondon.

Hileta zerbitzuan «dena» eskaintzen dute; «beilatoki zerbitzua, tanatopraxia, errausketa, lurperatzea, hilerriko lanak...». Tradizioei eutsi eta hildakoei lur ematea gustatzen zaienik badira, «baina egia da geroz eta gehiago egiten ditugula errausketak». Azken agurra emateko moduak ere aldatzen ari dira, «eta geroz eta gehiago eskatzen digute hautsekin bitxiak egitea. Hagitz eramangarriak dira, diskretuak». Internet bidezko zerbitzua ere ematen dute, «lehenbizikoetariok izan ginen eskelak online paratzen eta Whatsapppe bidaltzen, baita dolu mezuak eta loreak Internetez bidaltzen ere, eta ongi funtzionatzen du».



**«Gure itsasoko arrainekin egiten dugu lan bereziki»**

**XABIER LASAGA TELLETXEA**  
DONOSTIAKO AQUARIUMA - DONOSTIA



1908an sortu zen Gipuzkoako Ozeanografia Elkarte, eta arrantza eskola bat zen hasieran. 1928an gaur egungo eraikineri lekualdatu zen, «eta bertan ireki zuten Donostiako Aquariuma, Europako akuario zaharrenetariko bat». 90eko hamarkadaren bukaeran izan zuen aldaketarik handiena, kristaletik metakrilatora pasatzean. «Akuario handiagoak edukitzeak aukera eman zigun, presio gehiago jasaten zuten, eta orduan sortu zen tunela». Museoan «euskaldunak itsasoarekiko dugun erlazio guztia» erakusten da, 1878an harrapatutako balea izanik erakusgai nagusia. Arrainei dagokionez, 250 espezie desberdin dituzte, «baina Kantauri itsasoko espezieekin lan egitea gustatzen zaigu bereziki, gure itsasoan dauzkagun animaliak eta problematikak ezagutzera emateko».



**«Herriaren erdigunean dugu tailerra eta leku estrategikoa da»**

**ION SANSIÑENA ZUBIETA**  
SANSIÑENA TAILERRA - ELIZONDO



1980. urtean ireki zuten Sansiñena anaiek tailerra Elizondon. Urteekin haien semeek hartu zuten lekukoa eta «modernizatu» egin dute. Auto, traktore eta kamioi ttikiekin egiten dute lan; «konponketak eta salmentak, berriak zein bigarren eskukoak. Salmenta profesionaleko webguneetatik erosten ditugu autoak, garantia ematen diegu eta gero guk saltzen ditugu. Batzuek kotxe berriak nahiago dituzte baina badira bigarren eskukoak bilatzen dituztenak ere». Herriaren erdigunean dago tailerra, eta hori «leku estrategikoa» da; «aparkalekua badugu eta jendea oinez bueltatzen ahal da etxera». Koronabirusarekin, neurriak hartu eta lan egiteko modua aldatu behar izan dute «baina badugu lana, ez gara kexu».



**«Erosketak egiteko eta saltzeko modua aunitz aldatu da»**

**MARI JOSE FAGOAGA ETXEBERRIA**  
KIROLAK ZELA - BERA



1983an ireki zuten Fagoagak Zela kirol-denda Beran, «gordeta neukan diru pixka batekin». Geroztik «pila bat» aldatu da saltzeko eta erosketak egiteko modua; «lehen saltzen genuenaren arabera erosten genituen produktuak, orain kristoren inbertsioa behar duzu aitzinetik eta zazpi-zortzi hilabete lehenago erosi behar ditugu hurrengo kanpainako gauzak». Kirola egiteko jantziak eta osagarriak saltzen ditu gehienbat, baina baita jantzeko arropak ere. Urte aunitz dira lanean eta «esperientzia handia» daukate, «bezero gehienak herrikoak edo ingurukoak dira eta harremana ona da, jendearekin egotea gustuko dut eta konfiantza ematen dit. Alde horretatik kontent nago».


# Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan  
CIEsek **Nafarroa Garaiko  
mendialdean** hartu duen  
111 udalerrien eremuan ere.




**ttipi-ttapa**

**30.000 irakurle**



**Diario de Noticias**  
9.000 irakurle



**Diario de Navarra**  
6.000 irakurle



**Bertze batzuk**  
4.000 irakurle



**Berria**  
3.000 irakurle



**Gara**  
3.000 irakurle



## SEXUAREN ARABERA

**%55,6**  
EMAKUMEAK

**%44,4**  
GIZONAK

## ADINAREN ARABERA



## IKASKETA MAILAREN ARABERA





lazko azaroan Lodosara egindako irteerako parte-hartzaileak. PABLO IRASTORTZA

## lazko balantze gazi-goza egin du elkarteak

Denera 32 jarduera antolatu zituzten 2021ean. Kopuru mugatuarekin, baina iragarritako ia dena burutu zuten

### P. IRASTORTZA

Urte gogorra izan zen iazkoa elkartearentzat. Elkartearen helburu nagusienetakoa bat jendea han-hemen elkartzea da, eta osasun arauak multzoak elkartzea debekatzen dutenez, ez zen urte emankorra izan. Pandemia egoerak ez zuen 2021ean bidaia, festa, omenaldi eta antzekorik antolatzeke aukera izpirik sortu. Urte hasierako mus finalak, hara eta honarako egun bateko txangoak, penintsulan barnako egonaldiak eta abar, jende aunitzen irrikak itzaliz eta denen pena handiz, bertan behera utzi behar izan ziren, koronabirusa dela medio.

### Bilerarik ez delegatuekin

Elkarte guztiaren probetxurako urteetan zehar hainbertze lan egiten duten herrietako delegatuekin elkarlanak ere zeharo maingtu daude aspalditxoan, jende kopuruak direla eta bilerak xume bat ezin eginez.

Lehenik, ordezkariari barkamena eskatuaz, betiko harremanak lehenbailehen berreskuratzeko gogo irmoa azaldu nahi du Elkarteko Batzordeak.

### Joan den urtean egindakoaren emaitzak

Nahasmenaren erdian ez da dena porrota izan, nahiz eta kopuru mugatuagoarekin, iragarritako ia guztia aintzineratzea lortu baita. 2021ean pandemiaren aurkako arauak konplizteko eginahaletan nahiko lan izan du elkarteak.

Gainera, Covid-aren uste gabeko bertze olatu baten azpian, abenduko eta urtarileko ekintzak garai hobe baterako utzi behar izan ditu elkarteak.

Hemen zenbakiak:

- **Jarduerak:** 32 jarduera mota antolatu dira.
- **Herriak:** Bederatzi (Aranza, Bera, Doneztebe, Elizondo, Leitza, Lekunberri, Lesaka, Oronoz eta Sunbilla).
- **Partehartzaileak:** 2283 bazkide.
- **Txangoak:** Bi Lodosara (110 bidaiari).
- **Egonaldiak:** Bat Benidormen (102 bidaiari).
- **Mendi irteerak:** Hamabi (Bederatzi Nafarroan eta hiru Gipuzkoan. 395 parte-hartzaile denera.)



P. IRASTORTZA

## Abenduko saria Jesus Anbustegirentzat

Abenduko galderan Iruñeko Orfeoak 2020. urtean 155 urte bete zituela asmatu zutenen artean, Jesus Anbustegi Gaston izan zen zorteduna. Argazkian azaldu bezala Jesus berak jaso zuen oparia. Oroitu urtarrileko galdera zein den: Zenbatetik behin publikatzen da TTIPI-TTAPA aldizkaria?

### Otsaileko galdera

Zein herritan sortzen da Baztan-Bidasoko ibairik handiena?  
☎ 618 56 78 37.

## Andaluziara bidaia antolatu du Arkupeak elkarteak

### P. IRASTORTZA

Bi urteko geldialdiaren ondoren, aurtengo Andaluziara bidaia antolatu du elkarteak. Urtarrilaren 10ean eta 11n izan ziren izen-emate datak eta hagitz arrakastua suertatu zen. 2020. urtean izena emandakoen zerrenda bikoiztua izan da aurtengo izen-ematean. 2022ko martxoaren 25etik

apirilaren 1era egingen dute bidaia, eta bertzeak bertze, Valdepeñas, Sevilla, Granada, Kordoba eta Sigüenza bisitatuko dituzte.

Andaluzia ezagutu nahi duten bazkideei, oraindik leku batzuk badaudela adierazi nahi zaie lerro hauen bidez. Telefonoak: 948 45 08 78 edo 618 56 78 37.

## 2022ko lehen sei hilabeteetarako egitarau oparoa prest du elkarteak

### P. IRASTORTZA

Aurtengo lehen sei hilabeteetarako egutegia prest du elkarteak: **Urtarrilean eta otsailean** herrietako mus txapelketak; **Otsailaren 17an** bazkaria Andoni Egañarekin eta Sebastian Lizasorekin Oianume sagardotegian; **Martxoaren 8an**

Xabierera irteera; **Martxoaren 25ean** Andaluziara bidaia; **Apirilean edo maiatzean** erremonite partida, Galarretan; **Maiatzean** Benidormera irteera; **Maiatzean edo ekainean:** Soinketa eguna; **Ekainaren 9an:** Lourdesera ateraldia; **ekainean** Zaragozara irteera.





Baztan-Bidasoko Pentsionistak deituta, ilbeltzaren 17an egin zuten urteko lehen elkarretaratzea Elizondon. UTZITAKOIA

## Pentsiodunen mugimenduak karrikan segitzen du

Duela lau urte abiatu zen eta Baztan-Bidasoko Pentsionistak taldeak urteko lehen elkarretaratzea egin zuten Elizondon

### TTIPI-TTAPA

2018ko ilbeltzaren 18an hasi zituzten pentsiodunen protestak eta laugarren urteurrena gogoan, ilbeltzaren 15-16ko asteburuan Hego Euskal Herriko hiriburuetan eta bertze zenbait herritan manifestazioak egin zituzten. Baztan-Bidasoko Pentsionistak ere karrikara atera ziren berriz, hilabetero bezala, eta urteko lehenbiziko elkarretaratzea Elizondon egin zuten ilbeltzaren 17an. Argi utzi nahi izan zuten «borroka hau ez dela soilik adinekoen edo erretiratuena afera. Benetan jokoan dagoena etorkizuneko pentsio sistema eta zaintza duina eta publikoa da».

Protestak hasi direnetik lau urte pasatu direla oroitarazi zuten Baztan-Bidasoko pentsiodunen mugimenduak Elizondon egindako mobilizazioa eta egindako bidea goraiatu nahi izan zuten: «pentsiodunen mugimenduak leku bat ireki du Euskal Herriko jendartearen, eta estatu espainiarrean ere erreferente bihurtu da dauden pentsiodunen mugimenduentzako».

Taldearen irudiko, «agerian gelditu da ez dela norgehiagoka dinamika bat, elkartzasun eta pertsona guztien bizi duin baten aldeko lan tinkoa baizik».

Pentsiodunen borrokaren «izenburuak» ere gogora ekarri zituzten Baztan-Bidasoko pentsiodunen mugimenduko kideek: «pentsioak KPIaren arabera egokitzea, kaltegarri izan diren erreformak bertan behera uztea...». Baina salatu zuten, «akordioak ez dira bete, iruzur egin dute aplikatzerako orduan». Gisa honetara, «gobernu sozialistak eskuineko lobbyekin hausteko gaitasunik ez duena ageria gelditu» dela adierazi zuten, eta «borroka dinamikak ezin ditu besoak jaitsi».

Borrokatzeko nahiko arrazoi dagoela nabarmendu zuten pentsiodunek: «Osasun zaintza eta adinekoen zaintza alo-

**«AKORDIOAK EZ DIRA BETE, BERAZ IRUZURRA EGIN DUTE»**

rrean ezin dugu besoak errotzen utzi. Bidasoko kirofanoa SOS egoera jarri du administrazioak; Elizondoko Osasun Zentroan mediku gabeziak segitzen du, nahiz gaurko mediku baten postua beteko dela iragarri duten; zahar etxeko langileak lan hitzarmen duinaren alde mobilizatzen ari dira...».

Bide beretik, joan den asteazkenean «langileen lan baldintzak direla eta» Francisco Joakin Iriarte egoitzaren aitzinean elkarretaratzea deitu dutela oroitarazi zuten eta «gu ere hor egonen gara».

### «BORROKA HAU EZ DA ERRETIRATUEN AFERA BAKARRIK»

Taldearen hitzetan, «borroka hau ez da adinekoen edo erretiratuena afera bakarrik», eta hori «gero eta oihartzun zabalagoa hartzen ari da. Benetan jokoan dagoena etorkizuneko pentsio sistema eta zaintza duina eta publikoa da». Horregatik uste dute «gure indarrak eta gazteagoen freskotetasunak bat egin behar» dutela «emaitza duina lortu nahi badugu».

Sinetsita baitaude «horrek ekarriko duela benetako erresetua eta aldarrikapenak gauzatzea».

**«GURE INDARRAK ETA GAZTEAGOEN FRESKOTASUNAK BAT EGIN BEHAR DU»**

## Bizilagunen komunitateetan gastua murrizteko iracheren neurriak

### TTIPI-TTAPA

Gastua kontrolatzea komeni da, eta gehien xahutzen den gauzetan aurrezteak. Irache kontsumitzaileen elkarteak oinarritzko gomendio batzuk eman ditu, komunitate bakoitzak dituen beharren arabera kontuan hartu beharrekoak:

- **Aseguruen eskaintzak konparatzea.** Aseguruen polizen arteko aldeak nabarmenak izan daitezke. Estaldurak eta baldintzak aztertu behar dira, baina aseguru konpainia batetik bertzerera egon daitekeen diferentzia % 30era irits daiteke.

- **Faktura elektrikoa.** Komunitatearen beharretara egokitzten den kontratu elektriko bat aukeratzeak gastua nabarmen murriztea ekar dezake. **Potentzia kontsumo-beharretara egokitzea** ere lagungarri izan daiteke.

- **Plaka fotovoltaikoak.** Bizilagunen komunitateek auto-kontsumorako plaka fotovoltaikoak jar ditzakete. Instalazioak bere kostua duen arren, urtean 3.000 eta 4.000 euro artean aurrez daitezke.

- **Igogailuaren mantentze-lanak.** Oro har, igogailuaren mantentze-lanak kontratatu ohi dira igogailua jarri zuten konpainiarekin. Hala ere, zerbitzua bertze enpresa batek egin dezake, eta kostuan % 15etik goitiko aldeak daude.

- **Dirulaguntza handiak daude** eraikinen ingurutzailera hobetzeko obrak egiteko. Berrikuntza horiei esker, eraikinek isolamendu termiko hobea eta energia-eraginkortasun handiagoa dute, kontsumoan aurrezpen handiagoa ahalbidetzen baitute.

- **Bankuek kontuarengatik kobratzen duten komisioak.** Komisio baxuagoak lortzeko negoziatzeak gastua nabarmen murriztu dezake.

## Itzuliko bigarren etapa Leitzan hasiko da

Apirilaren 5ean Leitza eta Viana lotuko ditu Euskal Herriko Itzuliak

### TTIPI-TTAPA

Aurtengo Euskal Herriko Itzuliak Hondarribian izanen du abiapuntua, erlojuaren kontrako proba batekin, eta bigarren etapa, Leitzatik aterako da, apirilaren 5ean. Leitza eta Viana lotuko dituen 206 kilometroko proba izanen da. Txirindulariak herriko plazatik aterako dira eta hasierako metroak herrian barrena egingen dituzte, lehiatu gabe. Horren ondoren, herritik atera eta Uitziko bidea hartzen dutenean hasiko da proba lehiakorra.

Egun hori berezia izatea nahi du udalak, eta herritarren eta eragileen parte-hartzearekin «plazan ekitaldia» egiteko asmoa dutela aurreratu du Mikel Zabaleta alkateak: «zerbait irekia eta parte-hartzailea izatea nahi dugu, go-

zatzeko eta parte izateko eguna izatea, eta hori aprobetxatuz, herriko plazan ekitaldia egingen dugu».

### 2023an gehiago

Ez da aurtengo kontua bakarrik izanen, 2023ko itzulirako ere hitzarmena lortu baitu udalak. Euskal Herriko Itzuliko antolakuntzak eta Vianako eta Leitzako udalek sinatu duten akordioari esker, «datorren urtean itzuliko proba bat alderantziz egingen dute, hau da, Vianatik abiatu eta Leitzan izanen du helmuga», azaldu du Zabaletak.

Ez da Euskal Herriko Itzuliak herriangeldialdia egingen duen aurreneko aldia. 1978ko itzuliko lehenengo etapa, esate baterako, Leitzatik atera zen eta Biarritzan izan zuen helmuga.



AITZIBER BERGARA

## Masaje tailerra egin dute

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuak antolatu, atzerriko emakumeei zuzendutako masaje tailerra egin dute Atekabeltzen. Erlaxatzeko, bizkarreko, hanketako eta buru-aurregiko masajea ikasteko bi saio egin dituzte eta bildutakoek masajeaz ikasteko aukera izan dute.

## 2022ko inauteriak bertan behera utzi ditu udalak

### JUAN MARI BARRIOLA

Udalak ohar bidez jakinarazi du aurreneko ez duela *ihoterietan* ekitaldirik antolatuko. «Osasun egoerak okerrera» egin duela eta, «koherenteak izatea» erabaki du. Bestalde, egoerak hobera egitean «herritar eta eragileekin, horrenbeste maite

ditugun ospakizunak, *pesta* eta ekitaldi jendetsuak» berrartuko dituztela dio. Dena den, guraso elkarteak, ikastetxeek, Atekabeltzak eta Alkek hainbat hitzordu antolatu dituzte. Horrez gain, Altsasuko Momorrotxoen erakusketa aste honetan ikusgai izanen da Herri Aretoran.



EDURNE ARRAZUBI

## Elikadura osasuntsuaren garrantzia

Sukaldatu-ZukAldatu kanpainaren barne, azaroan hasita saioak egin ditu Kikilisdako lantaldeak elikadura osasuntsua etxean sustatzeko. Azkena ilbeltzaren 14an egin zuten eskolan. Bertako produktuak dastatzeko aukera ere izan zen.

## Abenduko eta ilbeltzeko euriteen kalteekin lanean

Abenduko eta ilbeltzeko euriteek eragindako kalteak kudeatzen jarraitzen du udalak. «Dirulaguntzak kudeatzen eta Nafarroako Gobernuari berriridagozkion lanak bere gain har ditzan lanean ari gara», adierazi du alkateak.



Lizarraga kalean izandako erortzea.

# Herri Aretoko otsaileko agenda prest

Hamabostean behin film emanaldiak izanen dira, hilabeteko bigarren igandean antzerkia eta aurretik hitzaldia

## TTIPI-TTAPA

Zinema, antzerkia, hitzaldia... Otsailean ere ez da kultur hitzordurik faltako Herri Aretuan.

## Zinema otsail hasieran

Otsaileko lehenbiziko eta hirugarren asteburuetan zinemak hartuko du protagonismoa. Otsailaren 5ean eta 6an, 16:30ean, 6 urtetik gorakoentzat *Zutik* pelikula pantailaratu dute. 19:00etan, berriz, *Next door (La puerta de al lado)* filma emanen dute. Otsailaren 5ean, larunbatean, bertsio originalean jarriko dute, azpitituluekin, eta igandean, bikoiztua.

## Gurasoentzat hitzaldia

*Gurasoak eta seme-alabak pantailan aurrean.* Izenburu hori duen hitzaldia emanen du Miren Ros hezitzaileak otsailaren 10ean, 18:00etan. 3 eta 14 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendutako saioa da eta sarrera librea izanen da.

## Antzerkia

Oinarritzko programazioan hitzartu bezala, hilabeteko bigarren igandean antzerkiak hartuko du lekukoa. Otsailaren 13an, Geuretik Sortua programaren baitan sortutako emanaldiekin hasiko dira. Egun horretan, Oier Zuñigaren *Eresia* antzezlanak ikusteko aukera izanen da. Dolu errituen inguruko gogoeta egin asmo duen ikuskizuna 19:00etan izanen da.

## Egonaldia

Otsailaren 14tik 18ra, berriz, Axut! eta Artedrama konpainiek egonaldia egingen dute Leitza.

Elkarlanean *Hondamendia* obra prestatzen ari dira, eta sorkuntza prozesu bete, hainbat egonaldi aurrekusi dituzte. Horietakoa bat Leitzaan egingen dute, Herri Aretuan, eta Miren Tirapu kultur teknikariak onartu duenez, «pozik» daude, «etorriko den lehen konpainia delako». TTIPI-TTAPARI aurreratu dionez, «*Hondamendia* antzezlan urrian estreinatuko dute eta estreinatzen dutenean, Leitza ekarri nahi genuke».

## Zinema gehiago

Otsailaren 19an eta 20an zineak hartuko du berriz Herri Aretoko pantaila. Biegunez, 16:30ean, adin guztietako jendearentzako *Spiderman no way home* ikusteko aukera izanen da, gaztelaniaz. 19:00etan, berriz, helduentzat *Ilargi guztiak* filma jarriko dute. Larunbatean azpitituluekin emanen dute, Tirapuren hitzetan, «euskaraz ikasten ari direnek aukera izan dezaten» eta igandean gabe.

## Herri Aretotik kanpo herri kirolak

Herri kirolzaleek hitzordu ederra dute larunbat honetan, ilbeltzaren 29an. Besteak beste, Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako kanporaketa jokatu dute Eneko Saralegi eta Txomin Amundarainek, Jon Rekondo eta Ibai Soroak, eta Ugaitz Mugertza II.ak eta Julen Gabirondok. Otsailean egingen diren finalerdien eta martxoaren 6an Azpeitian jokatu den finalaren atarian, lehen faseko azken saioa izanen da eta 18:00etan hasiko da.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA

## Presoen aldeko mosaikoa

*Elkarbizitarako, bakerako eta etxerako bidean* lelopean, salbuespenetzko espetxe legediarekin amaitzeko mosaikoa egin zuten herriko plazan ilbeltzaren 8an. 140 lagun bildu ziren. Horretaz gain, euskal preso bakoitzari postal bana bidaltzeko erronka bota zuten eta ekimenak arrakasta izan zuen.



Ilbeltzaren 14an gaztetxean ping-pong txapelketa egin zuten. ATEKABELTZ GAZTETXEA

## Hilabete behin pintxo-poteak eta hainbat txapelketa gaztetxean

### TTIPI-TTAPA

*Negun Atekan hotzik ez* lelopean, bada mugimendua Ate-kabeltz gaztetxean. «Herriko gazte guztien topaleku» izateko nahiari eutsita, pintxo-poteak eta hainbat txapelketa egiteko asmoa iragarri dute.

Ilbeltzaren 14an, esaterako, ping-pong txapelketa egin zuten eta antolatzaileek adierazi dutenez, «ongi» ateratu zen. 15 bat partaidek parte hartu zuten, eta horien artean, Iñaki Zabaleta *Koxme* nagusitu zen. Ez zen, ordea, horrekin bukatu jokoa eta txapelketaren ondoren nahi zuten guztiek ping-

-pongen ibiltzeko aukera izan zuten.

Ping-pong txapelketaren aitazakiarekin, pintxo-potea ere egin zuten gazteek, eta «hilean behin pintxo-potea egiten jarraitzeko» asmoa dute. Gainera, «tarte ping-pongekoko mahaia jarrita utziko dugu, nahi duenak erabil dezaten. Ping-pongez gain, bestelako txapelketak ere antolatuko ditugu». Gaztetxeko ateak irekiak daudela ere oinarritzen dute: «asteazkenean zehar bertaratu nahi duenak asanbladako kideren bati edo Instagrametik idatz dezake, eta gaztetxea ireki dezakegu».

## Otsailean hasiko da Mendialdeko binakako txapelketa

Benjaminiek, kimuek eta infantilek otsailean ekinen diote txapelketari eta zaharrenek martxoan

### TTIPI-TTAPA

Leitzako Aurrera, Lekunberriko Larraun eta Beteluko Araxes pilota eskolekin elkarlanean, Mendialdeko III. Binakako Pilota Txapelketa presatzen hasi da Umore Ona elkarteak. Gaztetxoek izanen dira aurrenekoak eta ondoren zaharagoek hartuko dute lekua.

Igor Elizegi Umore Ona pilota eskolako ordezkariak aurreratu duenez, «benjaminak, kimuak eta infantilak martxoan hasiko dira eta kadeteak, juveniak eta nagusiak mar-



Umore Onako pilotari gaztetxoak.

txoan». Gaineratu duenez, Umore Ona elkarteko 16 bat pilotarik parte hartuko dute txapelketan. Xehetasun gehiago aurrerago jakinaraziko du TTIPI-TTAPAK.



FELIX LOIARTE / IGOR ELIZEGI

## Gure fauna eta flora hizpide

Herritarren interesa piztu zuen urtarrilaren 14an Iñaki Sanz-Azkue eta Eñaut Agirre hernaniarrek ganbaran egin zuen aurkezpenak. *Gure faunari eta florari begira* haien azken liburua aurkeztu zuten, eta Urumea bailarako ornodunei buruz aritu ziren zehazki.



EDURNE ARRAZUBI

## Elikadura osasuntsuaren alde lanean

Elikadura osasuntsua etxeko sukaldeetan bultzatzeko helburua izan du Kikilisdaren aurtengo *Sukaldata Zuk aldatu* kanpainak. Hainbat saio egin dituzte, tartean, abenduan Itxaro Zabaleta dietista-nutrizionistarekin eta urtarrilaren 13an Eneritz Mujika dietista-nutrizionistarekin hitzaldiak.



Enobietako urtegia hustu ondoren hartutako irudia. ARTURO ELOSEGI

## Enobietako urtegia bertatik bertara ezagutzeko aukera igandean

### TTIPI-TTAPA

Artikutza Natura programaren barne, hainbat bisita gidatu antolatu ditu Donostiako Udalak hilabete honetarako. Urtarrilaren 16an Bianditzeko tunela eta gailurrera egitekoa zen lehenbiziko ibilaldia eta hilaren 23an Goizaringo burdinolara. Hirugarrena eta az-

kena igande honetan, urtarrilaren 30ean, egingen dute eta Enobietako urtegia zenari buelta emanen diote. Sei kilometroko itzulia izanen da, «jende guztiarentzat egokia». Parte hartzeko aurretik izena eman beharra zen, baina lerro hauek idazterakoan plaza guztiak agortuak ziren.



## Ezohiko moduan baina inauteriak larunbatean

Ez da otordurik eta eskerik egingo, baina kalejira, dantza saioa eta erromeria antolatu dituzte

### TTIPI-TTAPA

Egungo egoerara egokituta, baina inauteriak ospatuko dituzte larunbatean, urtarilaren 29an Areson. Ez da etxe eta baserrietako eskerik izango, ezta elkartean otordurik ere, baina festari eutsi egin nahi izan diote Lagunartekoek: «herritarren animoa ez dago oso goian eta bizipoz pixka baten premia ikusita, mozorrotu eta kalera ateratzeko aitzakia eman nahi diegu». Osasun egoera zein den ikusita, arriskuak ekidin nahi dituzte eta horregatik jan-edanik eta eskerik ez da izango: «gainera, kalean izango da festa guztia eta dagozkion segurtasun neurri guztiak beteiko ditugu».

Larunbatean, 16:00etan egin dute hitzordua plaza zaharrean. Mozorroak soinean, herriko musikariek batera kalejira



Aurten ere kalejira egingo dute .

egingo dute. Segidan, haur eta gaztetxoek dantza saioa eskainiko dute eta seiak aldera bingoa izango da. Sariak izango direla aurreratu dute antolatuzaileek. Bukatzeko, Andoaingo Malkogariyark musika taldearen eskutik erromeria izango dute gaueko bederatzia arte.

Bezperan, eskolan urteroko inauteri festa egingo dute. Mozorroa jantzi eta emanaldia eskainiko dute eguerdi partean.

### Adur Etxezarretak bigarren postua lortu du Italian

Urteari hasiera polita eman dio herritarrek. Italiako Tarvisión jokatuak Europako kopako jaitsiera proban bigarren postua lortuta. Estatuan maila eta kategoria horretan podiora igotzea lortu duen lehenbiziko eskiatzailea da.



Adur Etxezarreta. REDFI

### Bi astean behin liburutegi ibiltaria izango dute eskolan

Nazabal eskolako ikasleak irakurketa-idazketara gerturatzeke, irakurketa plana abiatu dute Leitzako liburutegiarekin elkarlanean. Bi astean behin liburutegi ibiltaria izango dute eskolan, asteazkenetan. Hala, liburuak etxera eramateko aukera izango dute ikasleek eta hurrengo saioan itzuli beharko dituzte eskolan edo aurretik liburutegira eramanda. Gustuko liburuen rankinga ere egingo dute eta irakurketa-ekin zerikusia duten berriak bilduko dituzte, irakurketa-panela osatuz.

## Pasa den urtearen erreposoa egin du udalak

### TTIPI-TTAPA

Udalak 2021ean egin dituzten hainbat ekintza eta lanen berri eman du. Hala, azaldu dute hirigintza arloan aurrerapauso garrantzitsuak eman dituztela. Batetik, Hirigintza plan berria osatu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dute, une honetan Nafarroako Gobernua eskuetan dago lurralde eskumeneko departamentuak azter dezan. Bestetik, Aresoko Hirigintza Elkartea desegin dute. Eluseder industrialdea kudeatzeko sortu zuten eta aurten Espainiako Industria Ministerioak emandako maileguaren azken kuota ordaindu ondoren, elkartea disolbatzeko tramiteak gauzatu dituzte.

### Jarduera ekonomikoen zerga

Nafarroako Ogasunarekin hitzarmena sinatu du udalak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga berrikustea adostu dute. Horrek industrialdean dauden enpresetan eragina izango du. Atzera eraginkortasuna dela eta, 38.588 euro jasoko ditu udalak eta aurrerantzean errealitatearekin bat datozen kantitateak bilduko ditu.

### Udal langilea

Udal langileetan ere izan da aldaketarik. Zerbitzu anitzetako langilearen ordezkia kontratatu zuten martxoan eta titularraren eszedentzia baimenak iraun bitartean ariko da lanean. Udal eraikinen garbiketa zerbitzuan ere aldaketak izango dira datozen asteetan. Orain arteko langilea erretiratu denez, lan deialdia argitaratu dute. Interesa zutenek urtarilaren 21era arteko epea zuten izena emateko.

### Hainbat inbertsio

Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako hainbat inbertsio ere egin dituzte. Eluseder industrialdeko eta udal eraikinetako argiteria LED sistema-

ra aldatu dute eta herriko deposituan hobekuntzak eta konponketak egin dituzte.

Eskolako eta Pake Toki elkarreko inguratzailer termikoaren hobekuntza lanekin bukatzeko, azken leihoak aldatu dituzte: 4.049 euroko kosta dira eta Toki Administrazioetik % 85eko dirulaguntza jasoko dute. Nazabal eskolan segurtasun neurriak betetzeko egokitzapenak ere egin dituzte eta horretarako Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentutik 2.976 euroko laguntza jaso dute.

Bestetik, herritarrek udaleko zenbait tramite elektronikoki egiteko aukera izan dezaten, moldaketak egin dituzte 3.979 euro inbertituta. Erdia dirulaguntza bidez ordaindu dute.

### Basoko lanetan auzolana

Basoko lanetan auzolana eta herritarren parte-hartze zuzena sustatu nahi izan dute. Hirumugarrietako mendian garbiketa auzolanean egin eta basoan eroritako zuhaitzak herritarren eskura jarri dituzte. Basoa garbi mantentzearekin batera, egur loteen banaketa sistema zaharrak udalari eragiten zion kostua murriztea lortu dute. Basoko pistak hobetzeko neurriak ere hartu dituzte. Udalak bere gain hartu du Urteaga gainetik Altzegira doan bidearen eta Peñako pistaren kostua. Berastegiko mugako itxituraren konponketak eta haizeteek botatako zuhaitzek eragindako kalteak txikuntzea ere bere gain hartu du udalak.

### Erabilera anitzeko gela

Eskoletxean erabilera anitzeko gela bat egiteko proiektua berreskuratu, eguneratu eta dirulaguntzen deialdira aurkeztu dute. Dirulaguntzek baldintzatuko dute proiektua aurrera ateratzea. Lortuko balitz, Nafarroako Hezkuntza Departamentuan ere laguntza eskuratzeko saiakera egingo lukete.

## «Proiektua bertan behera utzi arte ez gara geldituko»

**MILOTXURI BIZIRIK PLATAFORMAKO KIDEAK** ARIZKUNGO HERRITARRAK

Canteras Acha enpresak Arizkun eta Elbete artean egin nahi duen harrobiaren kontra batu dira Arizkungo hainbat herritar eta martxan paratu dute herri ekimena



Proiektuak kaltetuko lituzkeenak eta hainbat herritar kezkatuk osatzen dute Milotxuri Bizirik plataforma. UTZITAKOIA

**R. OSKARIZ** | ARIZKUN

Canteras Acha enpresak zundaketak egin nahi ditu Arizkun eta Elbeten harrobi bat egiteko helburuarekin. «Enpresaren asmoen berri jakin bezain fite» antolatua zuen Arizkungo alkateak herri batzarra, eta bertan proposatu zuten lantalde bat sortzea. Elbeteko Miloa eta Arizkungo Menditxuri parajeak hartuko lituzke proiektuak, eta beraz Milotxuri Bizirik deitu diote plataformari, bi izenak uztartuz. Almandozko Arritxuri harrobian aspalditik egiten du lan Canteras Achak, eta bertan zundaketa gehiago egiteko asmoa dutela ere adierazi dute, Uzketan 2 izeneko eremuan.

**Nola izan zenuten enpresaren asmoen berri?**

Ustekabean izan zen. Kasualitatez, orain plataforma osatzen duen kideetako batek Estatuko Buletin Ofizialean iragarkia kusi zuen, joan den urteko azaroaren 19an. Egun batzuetara, Nafarroako Buletinean argitaratu ziren zundaketa proiektu honen nondik norakoak, baino enpresa eta inplikatuaren partetik ez dugu inongo jakinarazpen ofizialik izan.

**«EZ DUGU INONGO JAKINARAZPENIK IZAN ENPRESAREN ALDETIK»**

**Zer egin nahi dute zehazki?**

Buletinean argitaratu dena zundaketa batzuk gauzatzeko proiektua da, Arizkungo Aintzialde eta Bergara auzoetan eta Elbeteko Miloa parajeetan. Burdin-harria zein mailatan ustiatzen ahal duten jakin nahi dute. Horretarako, 30 eta 70 metro bitarteko zuloak egin nahi dituzte, hainbat teknika erabiliz, zein mineral eta zenbateko kantitatean dauden ikusiteko.

**«HERRITARREK EZEZKOA EMAN DIOGU AHO BATEZ EGITASMOARI»**

Guztira 12 tomografia eta bi zulo handi egin nahi dituzte. Dena den, proiektuan «beheren arabera miaketak desbideratzen ahal direla» paratzen du, eta honek gure kezka hauspotzen du. Badakigu zundaketak harrobi baten lehenbiziko pausoak direla eta hortaz hasmentatik mugitu gara gure lurren eta interesen kontra egiten duen proiektu hau geldiarazteko.

**Nortzuk osatzen duzue plataforma?**

Nagusiki kaltetuek eta kezka duten herritarrek osatzen dugu Milotxuri Bizirik plataforma. Lantalde anitza gara eta betebeharrak partekatuz ibiltzen gara. Taldelana arizkundarrek egiten badugu ere, Elbeteko eta Almandozko zenbait ordezkariarekin ere elkarlanean eta solasean ibili gara.

**Zein da zuen helburua?**

Lehenik eta behin, zundaketa proiektu honetatik eratzten ahal den ustezko harrobia gelditzea da. Gure lurra defendatu nahi ditugu, izan ere, nekazaritza eta abeltzaintza ustiaketarako aprobetxamendua edukitzeaz gain, familia ugariaren sustengua edota diru-iturri haundi bat arriskuan jar daitezke proiektu honekin. Bigarrenik, Baztango herritarren artean eztabaida sortu nahi dugu, harrobi bat bezalako egitasmoek baztandarron interesak zuzenean ukitzen baititu eta horrelakotan herritarren erabakiak kontuan hartzea nahiko genuke.

**Zein da herritarren iritzia proiektuaren inguruan?**

Alkateak deituriko bigarren batzar batean, herri galdeketa egin zen harrobiaren alde edo kontra geunden jakiteko. Ehunka herritar bildu ginen eta bozkatzeko eskubidea genuen 155 herritarretatik, denek aho batez ezezkoa eman genion harrobiaren egitasmoari. Honez gain, martxan den sinadura bilketa abiarazi genuen.

### Zer ondorio ekar ditzake horrelako proiektu batek herritarrendako?

Ondorioak anitzak dira. Batetik, lurjabeen abeltzaintzarako eta nekazaritzarako lurrakenduko dizkie (ukui-luak, bordak, kisulabeak, baratzeak, bazkalekuak, mahastiak, oihanak, iratze-zelaiak,...) eta kalte ekonomiko nabarmenak eragingen lituzke lehenengo sektoretik bizi diren 12 familiei. Bertetik, bailara guztiari eragiten diotenak daude: kamioi gainkarga errepideetan, leherketen asotsak, ur-biltegien eta Baztan ibaiaren kutsatze arriskua, hondare historikoa arriskuan paratzea... Paisaia hondatzeak turismoan ere oihartzuna izanen du.

### Plataformako kideek bilkurarik egin duzue?

Proiektuaren berri izan genuenetik gaude hemen, hasiera-hasieratik, eta asteroko maiztasunarekin bilduz joan gara. Proiektu honi eta bere ondorio posibleei hasiera batetik erantzun eraginkor bat eman nahi diogu. Horretarako helegiteak, sinadura bilketak, prentsa oharrak, alkateekin bilerak eta abar abiarazi ditugu. Gure helburua afera hau sozializatzea da, hedabideen eta gure ekintzen bitartez baztandar guziei gure mezua zabaltzeko eta mugimenduaren parte bilakatzeko. Hausnarketa bultzatu nahi dugu azken finean,



250 herritar baino gehiago bildu ziren abenduaren 19ko elkarretaratzean Aintzialden harrobiari ezetz errateko. J. ITURZAETA

Baztango bihotzean bertze harrobi berri baten agerpenak bailarako biztanle guziok pairatuko ditugun ondorio kaltegarriek ekarriko baititu. **Enpresako arduradunari gutun bat idatzi zenioten herriaren izenean, «egitasmoa lehenbailen bertan behera uzteko» eskatuz. Erantzunik hartu al duzue?**

Ez, momentuz ez dugu erantzunik hartu.

### «BAILARAKO BIZTANLE GUZIOK PAIRATUKO DITUGU ONDORIOAK»

### Elkarretaratze bat egin duzue dagoeneko. Ekimen gehiago egingen dituzue?

Bai. Proiektua bertan behera utziko duen idatzizko baieztapen bat izan arte ez gara geldituko. Gainera, bailarako antzeko kasuekin elkarlanean aritu nahiko genuke, Baztango kezka hauek guziak uztartzeko.

### Prozesu judizialik hasteko aukera aztertu duzue?

### «PROIEKTU HONI ERANTZUN ERAGINKOR BAT EMAN NAHI DIOGU»

Ez, oraingoz ez. Baina behar-tuak ikusiz gero, ez dugu aukera baztertzen.

### Zerbait gehitu nahi duzue?

Eredu ekonomiko alternatibo baten alde gaudela plazaratu nahi dugu, etekin ekonomiko azkarra bilatzearen ordezkari momentuko behar-arrak asetzeko haina lehengai ustiatzen dituen eredu baten alde, alegia. Gure lurrak zainduko ditugu, beren aniztasun ekologiko eta kulturalak babestearren. Akitzeko, gure kasua ezagutzera ematen laguntzen ari zireten guziei eta elkartasuna adierazi diguzuen guziei eskerrak eman nahi dizkizuegu Arizkungo herriaren izenean.

**BRIKO**  
**LIMPIEZA, SL**

MOTA GUZTIETAKO  
GARBIKETAK:  
etxeak  
landetxeak  
lokalak  
komertzioak  
enpresak

**konfidantzazko zerbitzua**

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**  
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

**www.zergalan.es | zergalan@asegi.es**  
**www.asegi.com**

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

# «Aizkorarekin lanean segituko dut ahalik eta maila altuenera iristeko»

**JOXEAN ETXEBERRIA OSAKAR** ZIGAKO ALKATEA ETA AIZKOLARIA

Denbora galtzen ez duen gaztea da Joxean Etxeberria. Joan den urtean herriko alkatetza hartzea erabaki zuen eta aizkora profesionalarekin uztartzen du agintaldia

**R. OSKARIZ** | ZIGA

Lehenbiziko agintaldia du aurtengoa Joxean Etxeberriak (Ziga, 1995) Zigako alkatetzan. «Jakin-minagatik» erabaki zuen aurkeztea eta gaur egun lana aizkorarekin uztartzen du, aitaren pausoak segituz.

Celestino Osakar, Miriam Barberena, Txema Mairena eta Javi Sanz ditu kargudunak, eginbeharrekin laguntzen diotenak. «Ez gara denbora jakin batero biltzen, herriko gaien bati buruz solastatzeko beharra ikusten dugunean baizik». Bortzen artean bannaten dituzte ardurak gauza batzuetarako, «baina berte batzuetan ahal duenak egiten du». Alkatearen lanak «ugariak» dira, «adibidez, herritarren eskariak udalera eramatea».

Hainbat behar ikusten ditu alkateak Zigan, «baserrietara doazen bideak hobetzea» izanik handienetarikoa bat, «nahiz eta badauden behar gehiago ere». Eta horretan jardun dira agintaldia hasi dutenetik. «Oraingo, baserri batzuetako bideak konpontzen hasi gara eta aitzineko urteetan egin izan diren jarduera eta auzolanekin segitu dugu».

Aurten, 2021ean egindako bide beretik segitzeko asmoa dute; «auzolanak egin herria txukun mantentzeko eta bide batzuk konpontzen segitu, ahal den heinean». Herriak «etorkizuna baduela» uste du Etxeberriak, «gazte batzuk bertan gelditu dira bizitzen



Binakako aizkolaria txapelketarako prestatzen hasi da Etxeberria. UTZITAKOIA

eta hurrengo urteetan bertze batzuk ere geldituko direla uste dut». Hurrengo agintaldira begira, ez du baztertu alkatetza errepikatzeak aukera, «ez dakit, beharbada bai, baina momentua ailegatzean ikusiko da». Zailtasun handiena «denbora bilatzea» du, izan ere, alkatetza ez du eginbehar bakarria.

**«BASERRIETAKO BIDEAK HOBETZEA DA BEHARRIK HANDIENA ZIGAN»**

**Aizkora, ttikitako pasioa**

«11 urte izanen nituen lehenbiziko aldiz aizkora bat hartu eta enbor gainera igo nintzean». Aita ere aizkolaria da, Felix Etxeberria, eta laguntza handikoa izan du bere ibilbidean. «Gauza aunitz irakatsi dizkit, aizkorak zorrotzen eta egurrak jartzen laguntzen didan guztiaz aparte».

**«AIZKORAREN INGURUKO GAUZA AUNITZ IRAKATSI DIZKIT AITAK»**

21 urterekin eman zuen profesionalki lehiatzeko pauso. «Salto nahiko handia izan zen, batez ere konpromiso aldetik. Entrenamenduak maizagoak, kontrolatuagoak eta gogorragoak izaten hasi ziren». Izan ere, astean sei egunetan entrenatzen da gaur egun Etxeberria.

Hainbat txapelketa profesionaletan aritu da, maila handiko aurkarien kontra, eta emaitzak ez dira kaskarrak izan; azkena, Nafarroako Aizkora Txapelketa Nagusiko finalean lortutako bigarren postua. «Pixkanaka hobetzen ari naizela uste dut, eta lanean gogor segitu nahi dut ahal dudun mailarik altuenera ailegatzeko». Gaztea da oraindik, baina adina abantailatzat hartzen du; «osasuna eta zortea izanez gero eta gauzak ongi egiten baditut, oraindik goi mailako kirolaz gozatzeko urte dezente ditut».

Eta ez du denbora galtzen, txapelketetan ez dagoenean erronkak botatzea gustuko baitu. Sherpa.ai Aizkolaria Txapelketa Nagusiko finalista desafiatu zituen abenduan, «desafioa botatzeko momentua zela iruditu zitzaidalako». Tolosako Kantabrikan paratu zuen hitzordua, «baina ez zen inor agertu».

«Edozein kiroletan zenbat eta gehiago lehiatu eta zenbat eta maila handiagokoak izan lehia horiek, orduan eta sasoi hobia izaten du kirolariak». Hortaz, txapelketen arteko «egonaldietan» prestatzen segitzeko, beharrezkoak ikusten ditu lehiak, «hurrengo hitzordura ahalik eta hobekien ailegatzeko».

«Etorkizun ona» ikusten dio aizkolaria, «azken bi urteak ez dira errazak izan antolatzaileendako baina txapelketak egin dituzte». Bere buruari dagokionez, «hobetzeko saia-keran» segituko du Etxeberriak. «Orain binakako txapelketa hasiko da eta ahalik eta maila hobereana ematen saiatuko naiz».





Iñigo Gorrotxategi zuzendariak bildu zuen saria ekitaldian. UTZITAKOIA

## Lanbide Eskola 'Ikastetxe Bikain' izendatu dute

Bertzeak bertze, programazio didaktiko ona eta pertsonen eta baliabideen kalitatezko kudeaketa aitortu dute


### TTIPI-TTAPA

Pasa den abenduan Elizondoko Lanbide Eskolak Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak emandako kalitatezko aitorten gorena lortu zuen, hau da, Ikastetxe Bikainaren zigilua. Aitorten hori 2021-2022 ikasturtean lortu du lehen aldiz, eta hau zentroa 2020ko IKKS (Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistema) araudiaren irizpideetara moldatu delako eman diote.

Ikastetxe Bikainaren zigilua-ekin ikastetxeek matrikulazioarekin, garraioaren plan-

gintzarekin, ikaslearen harre-  
rarekin, programazio didak-  
tikoarekin eta pertsonen eta  
baliabideen kudeaketarekin  
lotutako prozesuetan, bertzeak  
bertze, kalitate-estandarrekin  
borondatez hartutako kon-  
promisoa aitortzen da.

Iñigo Gorrotxategi, zentro-  
ko zuzendariak, Hezkuntza  
Departamentuko ordezkarien  
eskutik bildu zuen ziurtagiria  
abenduan. Orain ikastetxeak  
adierazi duenez, «gure helbu-  
rua antolaketa eta funtziona-  
mendu honi eustea da eta  
horrela Ikastetxe Bikaina urte  
luzez izaten segitzea».



Santiago egunean erraldoi eta buruhandien topaketa egin zuten. ONDIKOL

## 20.687 euroko superabitarekin akitu du urtea Elizondoko Herriak

### TTIPI-TTAPA

Ohi bezala, Errege Egunean urteko kontuak aurkezteko batzarreak egin zituzten Baztango herri gehienetan, nahiz eta batzuetan gibelatu egin dituzten, hainbat herritar konfinaturik daudelako.

Elizondon bai, aurkeztu zituzten 2021eko kontuak Aitor Bazterrika alkateak eta kargodunek. Zehazki, Jaime Fagoaga kargoduna izan zen diru-kontuak azaldu zituena. Oro-tara, 20.687,50 euroko superabitarekin akitu dute urtea Elizondon. Diru-sarrerak 83.737,65 eurokoak izan ziren eta gastuak 63.050,12 eurokoak.

Bizilagunek ordaintzen du-  
ten kuotaren bidez 57.019,32  
euro bildu ditu herriak. Igo-  
era handia izan da kontzeptu  
honengatik, ahalik eta herritar  
gehienengana ailegatzeko  
eginahal berezia egin baitute

alkateak eta kargodunek eta  
herritarren erantzuna arras  
ona izan da. Baztango Udala-  
ren aportazioa 11.884,77 eu-  
rokoa izan da.

Udazkeneko feriena izaten  
da bertze diru-sarrera handi  
bat, baina iaz erdizka bakarrik  
egin ahal izan zituzten, dirurik  
handiena uzten duten karrika-  
saltzailerik gabe. Honela, 500  
euro bakarrik lortu ziren, ne-  
kazaritza-tresnak erakutsi  
zituzten enpresek paratuta-  
koak.

Gastuei dagokienez, Santia-  
go bestetan 18.225,04 euro  
erabili dituzte. Ohiko bestarik  
izan ez bazen ere, Iriarte pi-  
lotalekuan zenbait kultur eki-  
taldi egin zituzten, betiere  
araudia betez.

Hilerriko kontuak aparte  
egin dituzte. 2021ean 10.905,63  
euroko diru-sarrerak izan ziren  
eta 12.201,65 euroko gastuak.



**ANZABAL**  
inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T. 948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com



**EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**



**BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE**



Abenduaren 13an Elizondon egin zuen agerraldia gazte taldeak. ERNAI

## 2022ko gazte martxa Baztanen eginen du Ernaik

Apirilaren 14tik 17ra Zugarramurditik Elizondora joanen dira eta bertan musika jaialdia eginen dute

### TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 13an Elizondon egindako prentsaurrekoan jakinarazi zuten, Zugarramurdira, Erratzun eta Elizondon eginen dute Ernaiko kideek urteroko gazte independentisten topaketa. Koronabirusaren ondorioz 2020ko ekimena bertan behera utzi zuten eta 2021ean hainbat kontzertu antolatu zituzten, baina aurten «ohiko moduan egiteko asmoa» dutela adierazi dute.

Amaiurko gazteluaren setioaren bortzehugarren urteurrenari keinua eginez, *BostEHun eta zutik!* lelopean antolatu dute ekimena. «Aitzinera begira» segitu nahi du antolakundeak; «Euskal Errepublikan sozialista, feminista eta euskalduna eraikitzeke gazterien grina eta bultzada» irudikatuz, Euskal Herri «feminista, justu eta ekologiko» baten alde. «Gazteok egunero lanean ari gara bide hori eraikitzen; herriz herri, auzoz auzo, gazte asanbladetan, neska\* gazteen taldeetan, ikasgeletan, bertso eskoletan, osasungintzaren aldeko plataformetan...».



'BostEHun eta zutik!' leloa sortu dute

### Musika jaialdi formatuan

Apirilaren 14an, ortzeguna, Zugarramurditik abiatuko da ekimena. Erratzun eginen dute geldialdia, eta handik Elizondora joanen dira hurrengo egunean. Bertan ekinen diote egitarau politikoari solasaldi eta tailerrekin, baina musika eskaintza eta aisialdiko jarduerak ere izanen dituzte. Ortzirale eta larunbatean hainbat taldek parte hartuko dute musika jaialdian: Xiberroots, Herdoil, Perlata, Iheskide, Tribade... eta bertze hainbertzek. Apirilaren 17an, Aberri egunean, egitasmoari akabera emanen diote. Ernaik adierazi duenez, «hemendik aste batzuetara iragarriko dugu kartela osorik, sarrerak salgai jartzearekin batera».

## Ekitaldi kultural ez beteak datoz urtarrila eta otsaila

Jokoak, antzerkiak eta musika izanen dira nagusi bi hilabete hauetan Baztango herrietan

### TTIPI-TTAPA

Hainbat jarduerak izan dira Baztanen urtarrean eta hila-betea akitzeko bertze hainbertze izanen ditugu. Otsailan ere herritar guztiendako aukerak izanen dira bailaran.

### Mahai-jokoen kutxa ibiltaria

Iruritan eta Arizkun ibili da azken egunetan mahai-jokoen kutxa ibiltaria, Udaleko Kultura Zerbitzuak eta herriek antolatua. Elbeten izanen du hurrengo geldialdia, ilbeltzaren 29an eta 30ean. Otsailaren 5ean eta 6an Anizen izanen da, hurrengo asteburuan, 12an eta 13an, Almandozen eta 26an eta 27an Gartzainen txanda izanen da. Heldu, haur eta gazteendako aukera izanen da, nahi duenak joan, begiratu eta gozatzeko.

### Musikaz beteriko igandeak

Ohikoa den bezala, Baztan Kantuz ekimeak bere ibilbidea segitu du aurten ere. Lekarozen hasi zuen urtea eta Arraiozen izanen da otsaileko hitzordua, hilaren 20an herriko plazan 12:00etan. Kantatzea gustuko duen herritar guztiendako irekia dago ekimena. Baztango Kultura Zerbitzuak antolatu du, Nafarroako Gobernuaren 2022ko Arte eta Kultura programaren babesarekin.

Bertzetik, Amaiurren bailabeak izanen dira otsailaren 13an. Baztango Dantzarien eta Elizondoko Gaiteroen eskutik, muxikoak, jotak eta larraindantzak dantzatzeko aukera izanen dute bertaratzen diren guztiok. 12:30ean izanen da ekitaldia, lekua oraindik zehazteke dago.

### Helduendako antzerkia Iruritan

*Hotzikara, gozamen erotikoren historia* antzerkia aurkeztuko dute Ines Bengoak eta Iosu Lizarragak otsailaren 6an Gizarte Builgunean 19:00etan. Munduaren hastapenetik hasten da ikuskizuna, eta erostimoa historian zehar nola gertatu den kontatzen dute Bengoaren ahotsak eta Lizarragaren musikak. Hainbat egoera, pertsonaia eta istorio aurkeztuko dituzte, ikus-entzuleak bidaia baten sartuz pasioaren, zoramenaren eta umorearen bitartez. Baztango Kultura Zerbitzuak antolatu du ekitaldia, 2022ko Arte eta Kultura programaren babesarekin.



Arima Soul taldeak Elizondon joko du.

### Soul kontzertua Elizondon

Otsailaren 20an 19:00etan Arizkunenea Kultur etxera 70eko hamarkadako R&B, soul, funk, groove eta jazz soinuak ekarriko ditu Arima Soul taldeak. Lidia Insaustik (ahotsa), Mikel Makalak (baxua), Paul San Martinek (teklatura) eta Hilario Rodeiro (bateriak) osatzen dute laukotea eta euskaraz kantatutako haien abesti propioez gain, hainbat artista adierazgarriren bertsioak ere eginen dituzte; Etta James, Curtis Mayfield, Maria 'Queenie' Lyons...



Alvaro Beñaran pedagogo eta psikomotrizista izanen da hizlaria. UTZITAKOA

## Otsailaren 3an solasaldia ikastolan

Haurraren (6-12) egoera ulertuz... helduaren lekua argituz solasaldia antolatu du Baztango Ikastolak Alvaro Beñaran pedagogo eta psikomotrizistarekin otsailaren 3an, 17:00etan, Arizkunenean. Interesatuak izena eman beharko dute: 948 452 448 telefonoa edo [idadzaritza@baztangoikastola.com](mailto:idadzaritza@baztangoikastola.com).

## Etxeko eta zaintza langileendako informazio saioa

### TTIPI-TTAPA

Baztango Berdintasun Batzordeak etxeko eta zaintza langileen lan-baldintzei buruzko informazio saioa antolatu du. LABeko Arantxa Ordoñez eta Joseba Pagola izanen dira hizlariak. Otsailaren 5ean izanen da solasaldia, Arizkunenean 16:00etatik 18:30era, eta hainbat gai landuko dituzte; etxeko langileen erregimen berezia, oinarrizko lan-baldintzak... Izena emateko idatzi 613 003 634 zenbakira edo [berdintasuna@baztan.eus](mailto:berdintasuna@baztan.eus) helbidera.

## Gazte kritikoaren talde antolatu du Udalak

### TTIPI-TTAPA

14 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako taldea antolatu dute Baztango Kultur Zerbitzuak eta Liburutegiak. Otsailetik maiatzera Elizondon bilduko dira gazteak hainbat gai buruz solastatu eta hausnartzeko; «zer diote komunikabideek gazteoi buruz? zer diogu guk? eta musikari, generoari, munduan eta etxean pasatzen denari buruz, zer?». Hedabideek erraten dutenari ere kritika egingen diote. Izen-ematea hetsi dute dagoeneko.



JAIME VIGURIA

## 'Jostailugilea' aurkeztu du Koro Ttikik

Irurritako dantzarien eta Baztango Udalaren laguntzarekin aurkeztu zuen urtarrilaren 16an Elizondoko Koro Ttikik *Jostailugilea* ipuin musikatua Irurritako Gizarte Bilgunean. 50 bat kantari eta musikari bildu ziren eta jende aunitz gatekoa zenez, bi saio egin zituzten.

## Antzerki tailerra Arizkunenean

Josune Gorostegi aktorearen eskutik, *Interpretazio jolasa* izeneko ikastaroa antolatu du Baztango Kultura Zerbitzuak Arizkunenea Kultur etxean 14 eta 15 urte bitartekoendako. Otsailaren 1etik martxoaren 29ra asteartero bilduko dira 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea hetsi dute dagoeneko.

**ZIGA**  
ELEKTRIZITATEA

**647 77 31 33**

Eguzki plaken instalazioak,  
argiztapen-azterketak  
eta elektrizitate lanak orokorrean





Zenbaki saridunak atera zituzten Elizondoko eskolako lau ikasleak. JUAN MARI ONDIKOL

## San Anton Eguna ospatu dute Elizondon

Zahar etxearen aldeko zozketa egin zuten eta bertsolariak aritu ziren kantari, baina baztan-zoparik ez zuten banatu

### TTIPI-TTAPA

Ohiko egitaraurik gabe, baina, San Anton eguneko zozketa egin zuten ilbeltzaren 17an Balleko Etxean Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen alde. Elizondoko eskolako

Ainhoa Jubera Cacho, Joanes Jauregi Bajo, Eñaut Auzmendi Fernandez eta Gisell Coimbra Rocha izan ziren zenbakiak ateratzeko arduradunak. Ondorengoak dira zenbaki saridunak:

- **Aretzea: 5.975 zenbakia.** Uxoia okindegiak edo Xabier Iruretak saldua.
- **Txerria: 5.472 zenbakia.** Iruritako farmaziak edo Xabier Iruretak saldua.
- **Bi Bildots: 6.223 zenbakia.** Erratzuko Altxuko dendan saldua.
- **Urdaiazpiko bat: 3.040 zenbakia.** Malkorran saldua.

Zozketa aitzinetik, goizean txistularien doinuek alaitu zituzten Elizondoko karririk, eta Aitor Almandoz eta Xabier Silveira bertsolarien saioa ere izan zen. Baina baztan-zoparik ez zuten banatu.

## Amaiur Sokatira Taldeak egindako zozketako zenbaki saridunak

### TTIPI-TTAPA

Amaiurko Sokatira Taldea boletoa saltzen ibili da taldeko gastuak aitzinerat ateratzeko asmoz. Urtarrilaren 16an zozketa egin zuten:

- **1. saria:** Bertako ekoizleen produktuekin osatutako xaretua. 0381 zenbakia.
- **2. saria:** Tirolina + pendulo BKZ (2 pertsona). 0191 zk.
- **3. saria:** Tirolina BKZ (2 pertsona). 0513 zk.
- **4. Saria:** Mendi ostatuan otordua (2 pertsona). 1835 zk.

15 egunez aipatutako zenbakiak ateratzen ez badira, ilbeltzaren 30ean ordeko zenbakiak izanen dira saridunak. Taldetik eskerrak eman nahi dizkiete zozketa hau aitzinerat ateratzeko laguntza eman dutenei: Baztango xurie, Larraldea sargardoa, Kisua, Irular marmeladak, Kortariko gasnak, Jauregia esnekiak, Arkupe, Malkorra, Ernaut, Dutarimuno, Orraxa ezitia, Baztango ezitia, Amaiurko garagardoa, Fantxike, Mendi eta Intza ostatuak eta BKZ.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Musika eta poesia uztartuz Arizkunenean

*Oraindik, orain eta oraingoz* poesia eta musika emanaldia aurkeztu zuten ilbeltzaren 16an Arizkunenean Jon Basaguren musikariak eta Iñigo Astiz idazleak, Baztango Kultura Zerbitzuak antolatua. Beraien azken disko eta liburuetakoa abesti eta poemak eskaini zituzten.



ARANTXA GAMIO

## Egunsentia Abartanetik

Arantxa Gamio zigatarrak ilbeltzaren 18an izandako egunsentiaren argazkiak bidali dizkigu. Irudiak Abartango kaskotik atera zituen, eta ageri diren tontorren artean Saioa eta Auza mendiak ageri dira. Egun berriari ekiteko paraje ederrak eta irudi ikusgarriak.



Elkarteko goitiko solairua txukundu zuten auzolanean. MARIFA ETA KORO

## Batzorde osoa aldatu du Akelarre elkarteak

Ilbeltzaren 8an egindako auzolanean goitiko solairua garbitu eta txukundu zuten

### MARIFA ETA KORO

Abenduaren 30ean urteko asanblada orokorra egin zuen Akelarre Elkarteak, eta Batzorde osoa aldatu zuten. Asanbladan hartutako berteze neurri garrantzitsuak hauek izan ziren: Akelarreneko goitiko solairua garbitu eta txukuntzeko auzolana egitea. Hori, argazkietan ageri denez, ilbeltzaren 8an egin zuten. Elkarteko zenbait kide, gazteak gehienak (eta beteranoren bat) elkartu ziren eta lan polita egin zuten. Eta behin hori egin ondotik, erabilera egokia egiteko deialdia zabalduko dute.



Auzolanean aritu zirenak.

### Herriko etxeko erremolkea desagertua

Herriko Etxeko langileak erabiltzen duen erremolkea desagertu zen Azketako aparkalekutik abenduaren 30eko gauean. Tresna zaharra da, baina lanerako ederki baliatzen dena. 2x2 neurrikoa da, eta matrikula hau da: SS9662BD. Norbaitek ikusten badu deitu 670 30 54 41ra.

### Xaretako pastoralaren mustiraka igandean

Xaretako pastoralaren entseguak (mustirakak) abiatu dira. Urtarrilaren 16an hasi eta bi igandetik behin egingen dira. Oraindik jendea sartu daiteke, beraz, animatzen dena agertu dadila urtarrilaren 30ean, 15:00eta, frontonera edo *xaretanpastorala@gmail.com* idatzi.



MARIFA ETA KORO

### Migel Mari Iturbide hil zuten lekura txangoa

Jangoneko bordako Migel Mari Iturbide hil zuten tokia ezagutzeko ibilaldi bat egin zen urtarrilaren 1ean. 54 urte pasatu dira, eta bazter haiek aunitz aldatu dira. Belategiak ireki dira, eta bidexkak galdu. Ez zen erraza izan toki zehatza bilatzea, baina oroimenerako berteze keinu bat egin zitzaion Migel Mariri.

**IBARDIN**  
31780 Bera

**BEHOBIA**  
20305 Irun

**LUZAIDE**  
31660 Luzaide

**DANTXARINEA**  
31712 Urdax

**EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE**  
\*Abenduaren 25' eta urtarrilaren 31'ean ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

**TTIPI-TTAPA**  
SARE SOZIALETAN

**facebook**  
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



2020ko tripotx bazkaria. Aurten ez da eginen oraingo. ARTXIBOKOA

## Urte hasierako ekitaldi gehienak ezeztatuak dira

Kontseiluaren agiantzarik ez da izan eta otsailaren 12ko erretretatuen tripotx bazkaria ere ez da oraingo eginen

### GANEX

Nola aurten pandemiarengatik ez den agiantzarik izanen Battite Laborde auzapezak, bere kontseiluarekin eta herriko enplegatu guztiekin batera urte berri on eta zoriontsua desiratu die saratar guzietan.

Otsailaren 12an kontseiluak pentsatua zuen erretretatuei

tripotx bazkaria egitea baina Covidarengatik ezeztatua da eta badute esperantza berantago egiteko.

### Txertoa urtarrilaren 20an

Bertzalde txertoak ematen segitzen dute eta urtarrilaren 20an izan zuten horretarako aukera.



GANEX

## Eskolako gurasoen selauru hustea

San Josepe eskola publikoko haurren gurasoek selauru hustea antolatu dute otsailaren 13an, igandearekin, 09:00etatik 18:00etara, kiroldegian. Parte hartu nahi duenak, bere txokoa antolatzeko lekua eska dezake, 18 euro ordainduta. Horretarako, 06 29 38 18 28 telefono zenbakira deitu behar da.

## Haurrentzako albumak sortzeko 2022ko Etxepare Sariaren oinarriak argitara

### TTIPI-TTAPA

Haurrentzako albumak sortzeko Etxepera Saria martxan da aurten ere. Nafarroako 22 toki entitatek eta haien euskara zerbitzuek antolatu dute, haien artean Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Malerreka Mankomunitateak. Lehiaketan parte hartu nahi dutenentzako, oinarriak zeintzuk izanen diren azaldu dute antolatzaileek.

Lehiaketan parte hartzen dutenek albumaren maketa aurkeztu beharko dute. Lanak etxeparesaria.eus webgunearen bitartez aurkeztuko dira, horretarako prestatutako formularioaren bidez. Aholkatzen da fitxategiek 20 Mb baino gehiago ez izatea. Egileek nahi badute, irudi originalak bidal ditzakete posta arrunt bidez epaimahaikideek jatorrizko lana ikus dezaten.

Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Lanak posta arrunt bidez bidalitz gero, lanarekin batera gutun-azal itxi

bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren edota pasaportearen fotokopia eta egilearen aipamen bio-bibliografikoa.

### Leitzan aurkeztu beharrak

Lanak posta arrunt bidez bidalitz gero, helbide honetara bidaliko dira: *ETXEPARESARIA, Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leizta (Nafarroa)*.

Obrak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 6an, ostiralean, itxiko da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2022ko ekainaren 30a izanen da.

Sari bakarra emango da, 5.000 eurokoa. Zergen atxikipena indarrean dagoen legediari jarraiki eginen da.

Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpenaren Etxepare sariaren aipamena eginen da.

**BERRI S.L.**  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

**KATEA BIKE**

Kanttonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
joxemi@kateabike.com  
[www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)

SCOTT PINARELLO MASSI MERIDA BIKES  
BERGAMONT BH colver LOOK



Herriko pilotariak eta arduradunak elizan kantari. JL BESSONART

## Pilota batzordearen kantaldi ederra urte bukaerarako

Herriko pilotari eta arduradunen ondotik, Eñaut Elorrietak kontzertu bikaina eman zuen

### JL BESSONART

Elizaren gerizan, publikoak gozaldia ederra hartu zuen herriko pilota batzordeak antolatutako kantaldiarekin. Lehen partean, herriko pilotari eta arduradunek, jo eta jo, apunatik edo airetik baina ozenki plazaratu zituzten lau kantu. Pilota final handi batean ari bailiran, txalokada ederrak irabazi zituzten.

### Eñaut Elorrieta lorietan

Ondotik, mikroa edekirik utzi zituen goi mailako artista eta

poeta den Eñaut Elorrieta bizkaitarrari. Ezin jakin elizan izanagatik den, baina izigarriko komunioa sortu zuen ikus-entzuleekin. Bere ahots zoragarriak inarrosita utzi zituen bazterrak. Eta nola ez testu mamitsuek bakoitzaren barneak eta gogoetak astintzen dituzte. *Irteera argiak* bere azken diskoa aurkeztu zuen. Emanaldia bururatzean, parte-hartzaile guzietatik xutik luzaz eskertu zuten Eñaut Elorrieta, honek utzi baitzituen denak «lorietan».

## Haurren herriko kontseiluak urteko lehen bilkura egin du

### JL BESSONART

Urte hastapenean iragan da haurren kontseilua herriko etxean. Hautetsiak izendatuz gero lehen elkarteak zuten. Sekulako asmoak erakutsik zituzten aitzineko bilkuran, orain ideiak gauzatzeko zuten xedea. Hobeki errateko, belu-naldien arteko lehen trukaketaren antolatzea finkatu dute.

Hor deliberatua izan da 85 urtez goitiko ikustera joatea edo bederen agiantza karten banatzea.

Ekimen honen bidez, belu-naldien arteko harremanak denendako beharrezkoak baitira, zubiak eraikiz gizarte guzira hobetzea dute xede. Uste ezinean haurrek norabide onak erakusten dituzte.



Herriko etxearen aitzinean bildu zen jendea urte-zahar egunean. JL BESSONART

## Euskal presoei elkartasuna adierazteko jendea bildu da

### JEAN LOUIS BESSONART

Urtarrilaren 8an iragan ze presoen aldeko manifestaldia Baionan, hiru ibilbide elkartu ziren San Andreseko plazan. 2.000 kidek parte hartu zuten arduradunen mintzaldietan. Aste bat lehenago, aitzinean herrietan bezala, abenduaren 31n eguerdi irian, jende bilketa bat iragan zen herriko etxearen aitzinean beren sustengoa adierazteko euskal

presoei. Hauen artean, azpimarratzekoak dira Ion eta Unai Parot, baita Jakes Esnalen kasua ere. 70 urte baino gehiago dituzte gaur egun eta 31 urte dituzte kartzela barnean. Nola daiteke onartu holako egoera, heriotzera arte behar ote dute kondena jasan? Azken urte hauetan, bake prozesuan engaiatua da euskal gizartea, herra eta gorrotoak ez dira atera bideak.

## Magallaestik Elkanora mintzaldia Inharrian

Urtarrilaren 28an, ortziralean 19:00etan Inharrian, *De Magallaen à Elkanora* (Magallaestik Elkanora) mintzaldia emanen dute. Euskaldunek badakigu azkeneko honek bururatu zuela lehenbiziko munduaren itzulua. Getaria beren sorterrian betidanik ospatu izan dute Elkanora, herriaren ikurra bilakatu da geroztik. 1519an Espainiako erregeak Magallaesi eskatu zion espeziaren uhartera, Indonesiako Molukoetara, espedizioa egitea. Agorrrilaren 10ean, 5 itsasontzi eta 237 marinelek itsasoa hartu zuten Espainiako Sevillan. Hiru urte eta hilabete bat geroago, Juan Sebastian Elkanoren Victoria itsasontzia baizik ez zen itzuli Sevillara 21 itsas gizonekin.

## Bertso-krakada urtarrilaren 29an Larraldean

Bertso-krakada iraganen da Larraldean urtarrilaren 29an, larunbatean, 17:00etan, Amets Arzallus eta Julio Soto bertsolari handien parte-hartzearekin.

## Landarbaso abesbatza elizan otsailaren 6an

Landarbaso abesbatzak kontzertua emanen du otsailaren 6an (18:30) elizan. Sarrerak salgai Euskal Elkargoko turismo bulegoetan eta Senpereko Kultura eta Ondarearen elkarrearen webgunean. Prezioa 15 euro; ikasle eta 18 urtez behekoek 10 euro.



Beti Gazteko pisu astuneneko gizasemeen taldea, txapelarekin. XAGU-LESACA

## Beti Gaztek txapela jantziz hasi du Euskal Herriko txapelketa

680 kiloko gizasemeen taldeak irabazi zuen ilbeltzaren 8an Ibarra (Gipuzkoa) eta bertze kategorietan ere hasiak dira

### TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 9 eta 10eko aste-buruan abiatu zuen Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa eta Beti Gaztek lehenbiziko txapela lortu zuen. Larunbatean Ibarra (Gipuzkoa) jokatu zen 680 kiloko txapelketa, jardunaldi bakarrean eta lesakarrak gailendu ziren tiraldi guztietan. Zurai-de izan zen bigarren, Ibarra hirugarren eta Ñapurak laugarren. Muruetak ez zuen parte hartzerik izan. Beti Gazteko zortzikote txapeldunear Karmelo Mitxelena, Lander Landiribar (Amaiur), Oskar Telletxea, Guy Larralde (Ezpeleta), Beñat Ordoki, Beñardo Iantzi, Eneko Saldias eta Julen Palenzuela aritu ziren tiran, Paxkual Taberna entrenatzaile eta Ander Mitxelena laguntzaile zutela.

Biharamunean, Abadiñon (Bizkaia), gizasemeen 640 kiloko lehen jardunaldia hasi zen. Hemen zortzi talde hasi dira lehian eta hemen ere lesakarrak gailendu ziren tiraldi guztietan. Azpimarratzekoa

izan zen Amaiurren jarduna ere, hirugarren izan baitzen.

**Urtarrilaren 16an** Bilbon jokatu zen kategoria honetako bigarren jardunaldian ere Beti Gazte nagusitu zen. Finalerako txartela lortu zuten lesakarrak eta Amaiurrek. Emakumeen 540 kiloko lehen jardunaldia ere jokatu zuten. Beti Gazteko eta Gaztediko emakumeek berdindu egin zuten lehen postuan.

**Urtarrilaren 22an** jokatzekoa zuten gizasemeen 640 kiloko finala eta emakumeen

540 kiloko bigarren jardunaldia Berangoan (Bizkaia).

### Datozenak

**Urtarrilaren 29an**, emakumezkoek 540 kiloko azken jardunaldia eta gizasemeek 600 kiloko lehen jokatu dute Bakion (Bizkaia). Gizonezkoen hamabi talde lehiatuko dira kategoria honetan, tartean Amaiur eta Beti Gazte.

**Otsailaren 5ean** Erandion (Bizkaia), gizasemeen 600 kiloko bigarren jardunaldia eta emakumeen 500 kiloko lehen jokatu dute. Emakumeen pisu arinean hamar talde ariko dira, Amaiur eta beti Gazte tartean.

**Otsailaren 12an** jokatu dute gizonezkoen 600 kiloko hirugarren eta azken jardunaldia eta emakumezkoen 500 kiloko bigarrena, hau idazterakoan erabaki gabe zegoen herrian.

**Otsailaren 19an**, txapelketa mistoa (580 kilo) erabakiko da egun bakarrean, Ibarra (Gipuzkoa). Hamar talde ariko dira, Amaiur eta Beti Gazte barne.

**Otsailaren 26an**, azkenik, emakumezkoen 500 kiloko hirugarren eta azken jardunaldiaz gain, gizonezkoen 560 kiloko txapela jokatu da egun bakarrean Ibarra (Gipuzkoa). Etxeko taldearekin batera, Beti Gazte, Txantrea, Abadiño, Gaztedi, Ñapurak, Murueta, Goiherri eta Berriozar ariko dira azken txapelaren bila, bederatzi talde denera.

### Munduko txapelketa bertan behera

Osasun egoerak zalantza bete segitzen duela eta martxo hasieran Herbehereetako Doetinchem hirian jokatzekoa zen munduko goma gaineko sokatira txapelketa bertan behera uztea erabaki du TWIFek (Tug Of War International Federation), nazioarteko sokatira federazioak, alegia. Bertan parte hartzekotan ziren Lesakako Beti Gazteko neska-mutilak eta espero zitekeen erabakia izan arren, penaz hartu dute. Oraindik ez dakite aitzinerago jokaterik izanen den eta apirilean bertze bilera bat egitekoa du TWIFek.

## ADANOri 10.500 euroko dohaintza egin dio Erremonte Fundazioak

### TTIPI-TTAPA

Euskal Jai Berri erremonte fundazioak 10.500 euroko dohaintza egin dio Nafarroako minbizia duten haurrak eta senideak biltzen dituen ADANO elkarteari. Diru kopuru hori fundazioak antolatutako erremonte jaialdietan bildutakoa da. Ilbeltzaren 12an egin zen ekitaldia Nafarroako Parlamentuko atarian. Bertan izan ziren Inmaculada Jurio, Parlamentuko presidenteordea; Merche Almiñana, ADANO elkarteako presidentea; Rebeca Esnaola, Nafarroako Gobernuako kultura eta kirol departamentuko kontseilaria, Pozueta Nafarroako Kirol Insritutuko zuzendaria, erremonte fundazioko eta erremonte enpresako ordezkariak eta zenbait babesle.

## Patxi Mindegia eta Joxean Etxeberria ongi hasi dira Urrezko Aizkoran

### TTIPI-TTAPA

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako hogeita bigarren edizioa abiatu zen ilbeltzaren 16an Arabar Errioxako Villabuena/Eskuernaga herrian jokatu zen lehen jardunaldiarekin. Bikote egiten dute Zigako Joxean Etxeberria eta Zubietako Patxi Mindegia txapelketa honetan eta Kañamarestarrak baino 40 segundo azkarragoak izan ziren. Larunbat honetan, hilak 29, Leiztan jokatu dute txapelketa honetako bertze saio bat Eneko Saralegi-Txomin Amundarain, Jon Rekondo-Ibai Soroa eta Ugaitz Mugertza-Julen Gabirondo bikoteek.





Adur Etxezarreta Tarvision podiora igo ondotik. UTZUTAKO ARGAZKIA

# Adur Etxezarreta bigarren Europako Kopako proban

Eskiatzaile aresoarrak bere ibilbideko emaitzarik onena lortu zuen urtarrilaren 14an Tarvision (Italia)

## TTIPI-TTAPA

Italiako Tarvision urtarrilaren 14an jokaturako Europako Kopako jaitsiera proban bigarren sailkatu zen Adur Etxezarreta Aresoko eskiatzailea. 26 urte betetzeko egun gutxi falta zituela (urtarrilaren 27an egitekoak ditu), bere ibilbideko emaitzarik aipagarrie-

netarikoa lortu zuen Etxezarretak.

«Urtebete daramat momentu honen zain eta azkenean lortu dut. Bai nik baita taldeak ere lan handia egin dugu. Emaitza garrantzitsua lortu dugu eta etorkizunera begira konfiantza handia ematen dit, etorkizuneko munduko ko-

patan lagunduko baitit». Halaxe, pozik eta gustura, mintzatu zen Adur Etxezarreta Rezola (Areso, 1996) Italian lortutako emaitzaren ondotik. Izan ere, emaitza historikoa izan zen Etxezarretarena. Espainiar estatuan, gizonezko eskiatzaile batek lehen aldiz lortu du Europako kopako proba batean podiora igotzea.

Aresoarrak minutu bat, 47 segundo eta 71 ehunen behar izan zituen helmuga zeharkatzeko, Nicolo Molteni italiarrak bezala, eta hala, bigarren postua bientzat izan zen. Lars Roesti suitzarrak irabazi zuen proba, 15 ehunen gutxiagoko denbora eginda.

Ibilbide ederra osatzen ari da Etxezarreta. Aurreko denboraldian, esaterako, munduko kopako hiru probetan parte hartu zuen eta Italiako Cortina d'Ampezzon jokaturako munduko txapelketan ere izan zen. Europako kopan, seigarren postu bat lortu zuen Santa Caterinan, Italiako Lonbardian eta hamabigarrena Orcieres Merletten, Frantziako Alpeetan.

Aurten, berriz, urtea hasi orduko, lehenengo lorpena lortu du Italian jokaturako Europako kopako jaitsiera proban.

# Malerreka eskuz binakako 20. txapelketa azken txanpan sartua

## TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 9an abiatu zen Doneztebeko Erreka elkarteak hogeigarren urtez antolatutako eskuz binakako pilota txapelketa eta dagoeneko azken txanpan sartua da, otsailaren 19an Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan jokaturako diren finalen bila. Joan den asteazkenean, hilak 19, jokatzekoak zizutzen elite mailako finalerdiak: Ugaitz Elizalde iturndarra (Zugarralde) eta Urrozola (Pagazpe) - Elola (Aurrea Tolosa) eta Cuairan (Erreka). Exposito (Hernani) eta Aizpuru (Tolosa Aurrera) - Zubizarreta eta Garmendia (Lapke). Beraz, lehen finalistak zein diren jakina da honez gero. Asteazken honetan, hilak 26, jokatzekoa dute senior mailako lehen jardunaldia eta otsailaren 2an finalerdiak. Kategoria ttikiagoetan, benjamin, alebin, infantil, kadete eta jubentil mailan, otsailaren 6an jokaturako dituzte finalerdiak.



UTZITAKOIA

# Txirrindulari gaztetxoak sarituak

Nafarroako Txirrindularitzaren Galan eskualdeko zenbait txirrindularik sariak jaso zituzten, Nafarroako Kirol Jokoetan mendi bizikletan nahiz errepidean lortutako emaitzak direla eta: Julen Valer, Iratxe Ibañez, Aitor Igoa, Oihan Aleman, Eneit Bertiz, Unax Eraso, Joritz Barberena eta Ivan Villoria.



UTZITAKOIA

# Urki Txoperena fitxatu du Barakaldok

Urki Txoperena Elozegi jokalaria lesakarra fitxatu du denboraldi honetarako eta hurrengorako Barakaldo futbol taldeak. Beti Gazteko jokalaria zen orain arte Urki Txoperena, eta hirugarren mailako lehen denboraldi honetan golegile nagusia: jokatu dituen 18 partidetan zortzi gol sartu ditu.



Bengoetxea VI.a sakean, ia hogei urteko ibilbide profesionaleko mila partida baino gehiagotako batean.

## «Galtza txuriak azken aldiz Leitzako plazan jantzi nahi ditut»

**GINATZ BONGOETXEA BERASATEGI** LEITZAKO PILOTARIA

Labriten hasi zuen bere ibilbidea profesionalean Oinatz Bengoetxeak 2002ko urrian eta leku berean jokatu du azkena hilaren 29an. Halere, ondotik, frontoi txikiagoetan ariko da urrirarte

**AITOR AROTZENA** | LEITZA

Abenduan jakinarazi zuen bideo baten bidez pilotari profesional izateari utziko ziola Oinatz Bengoetxea Berasategik (Leitza, 1984ko abuztuaren 28a). 2002ko urriaren 5ean egin zuen debuta Iruñeko Labrit pilotalekuan, 18 urte bete berriak zituela. Frontoi berean jokatu du azkena hilaren 29an. Imaz bizkarzain duela, Laso eta Aretxabaletaren kontra ariko da. Frontoi handi edo industrialetako hondarreko partida izanen da, baina urrirarte bitarte frontoi txikiagoetan jokatzeko asmoa duela ere azaldu digu. Eta azkeneko urrian, Leitzako plazan jokatu nahi luke. Leitzako alde

zaharrean jaioa eta hazia izaki, plazan eman baitzituen lehen pilotakadak eta bertan eman nahi ditu azkenak ere. Profesionaletako ibilbide horretan hiru txapel nagusiak jantzi dituen historia osoko zazpi pilotarietako bat izatea lortu du. Eskuz banakakoa bitan irabazi du (2008an Abel Barriola herritararen kontra jokatu du final gogoangarria eta 2017an Irribarriaren kontra); eskuz binakakoa ere irabazi zuen 2015ean Untoria-ekin bikote eginez eta lau eta erdikoa 2016an, Altuna III. ari 22-21 irabazita. Baina txapelak txapel, denbora honetan egin duen ibilbideaz «harro» mintzatu zaigu Oinatz Bengoetxea.

**Lortu duzun txapel guztien artean zein azpimarratuko zenuke?**

Nik uste buruz buruko bi txapelak pixka bat berezixeagoak direla, baina lau eta erdikoa ere oso berezia izan zen, 22-21 Jokin Altunaren kontra Gasteizen... Binakakoa ere gauza polita izan zen, txapelak denak dira onak. Gero, beste hiru ere badituz Nafarroako lau eta erdikoa eta horiek ere garrantzitsuak dira niretzat.

**«NIRETZAT HIRU TXAPEL HANDIAK IRABAZTEA MARKA POLITA DA»**

Txapelak denak dira ederrak, denak ongiak.

**Hiru txapel handiak jantzi dituzten pilotari bakaretakoa zara. Zutaz gain, Julian Retegik, Fernando Arretzek, Abel Barriolak, Aimar Olaizolak, Juan Martinez de Irujok eta Mikel Urrutikoetxeak bakarrik lortu dute. Zer garrantzi ematen diozu horri?**

Egia esan marka polita da eta historiako geldituko den marka. Oraingoz zazpi pilotarik bakarrik lortu dugu hori eta hor gauden guztiok harro esan dezakegu esku pilotako modalitate guztietan txapel nagusia jantzi dugula. Gauza handia da, hor dauden izenak ikusi besterik ez dago eta ni horien artean egotea ohore handia da.

**Han eta hemen agurreko partidak jokatzeko ari zara. Pilotazaleen eta pilotarien estimazioa sumatzen ari zara pilotaleku guztietan. Zure bizitzako egunik sentimentalena izaten ari direla ere aipatu duzu...**

Ni berez ez naiz oso sentimental, baina egun hauetan ari zait zerbait mugitzen bai. Pilotalekuz pilotaleku agurrak oso politak izaten ari dira, batean bertsoa, bestean kantua, dantza... Garai sentimentalak izaten ari dira niretzat, bai... Alde batetik jendearen *kariñoa* nabaritzen ari naiz eta bestetik, hainbeste urteren ondoren niretzat bizitza osoa izan den pilota uzteagatik... Nahiko egun sentimental eta politak izaten ari dira, egia esateko.

**Azken partida urtarrilaren 29an Labriten, Imazekin bikote eginez, Laso eta Aretxabaletaren kontra... Duela ia hogeitau urte debutatu zenuen leku berean... Urduri?**

Ez ez, oraingoz lasai nago. Azken partida hurbiltzen ari da, baina lasai nago. Aurreko agurreko partidak ere ongi ateratu dira, Bilboko eta Donostiko oso ongi, Arrasaten ere ederki, Gasteizkoa ere polita izan zen... Joko nahiko onean nagoela iruditzen zait, zaleak gustura gelditzen ari dira eta ni nahiko lasai.

## Halere, frontoi “ez industrialetan” hoge urtera ailegatzeko asmoa baduzula ere aipatu duzu...

Frontoi handietako agurra izanen den Labritekoaren ondotik ere partida batzuk jokatzen segitu nahi dut urrira bitarte, frontoi txikiagoetan, orduan beteko baititut hoge urte profesioaletan hasi nintzenetik. Herri txikietan partidak ateratzen ari zaizkit eta azken azken partida Leitzako plazan jokatzekeo intentzioa dut urrian. Galtza txuriak azken aldiz Leitzan jantzi nahi ditut. Ni Leitzako alde zaharreko semea naiz eta plazan hasi nintzen pilotan eta hortxe bukatzekeo asmoa dut. Oraindik ez dakit zeinek jokatuko dugun baina polita iruditzen zait.

### Zer aldatu da 2002ko urrian debutatu zuen Oinatz Bengoetxea hartatik 2022ko urtarrileko Bengoetxea VI.a honetara?

Bai pilotari bezala bai pertsona bezala bilakaera izan dut, jende guztiak bezala. Bizitzak gauza asko erakusten dizkizu eta pentsatzen dut pilotari bezala, pixkanaka teknikoki nahiz fisikoki eboluzionatu dudala. Orduan, 18 urterekin, oraindik ume bat nintzen eta orain gizon bihurtu naiz.

### Zerk harrotzen zaitu bereziki zure ibilbidean? Eta, zerbait aldatzekotan, zer aldatuko zenuke?

Gauza asko dira, mila partida baino gehiago jokatuta, denetan ahalik eta hobekien jokatzen... Konpetitiboa izaten saiatu naiz, txapel batzuk lortu ditut eta horretaz aparte, partida garrantzitsu asko jokatutako pilotari handien kontra, batzuk irabaziak, galdutakoak ere... Gero, beti jendearekin konexio ona izan dut, denarekin nago pozik eta gustura. Harro nago gauzak nola egin ditudan, hoge urtetan gauza batzuk beste batzuk baino hobekiago egin ditut, noski, baina egia esan ez nago deustaz damutua eta gustura nago egin ditudan gauzekin, beti intentzio onenarekin egin ditudalako.



Frontoi handietako azken partida larunbatean jokatuko badu ere, urriarte frontoi txikiagoetan segituko du Oinatzek.

### Mila partida baino gehiago jokatut ditzuzu... Horien artean ba al duzu bakarren bat bereziki gogoan gelditu zaizuna?

Beharbada Nafarroako lau eta erdiko azkeneko txapela, San Fermin egunean Jokin Altunaren kontra lortutakoa. Final eta txapel handietaz aparte, partida hori dut buruan, partida handia egin nuen eta asko akordatzen naiz partidur horretaz.

### Lehen Irujo, Olaizola, Barriola eta azken aldian Urruti, Altuna, Irribarria... horien guztien artean puntan ibiltzea lortu duzu. Ez da erraza izan hainbesteko kolpea ez duen pilotari batentzat horien artean lehian aritzea.

Azkenean nik nire baliabideak eta kualidadeak izan ditut eta horiek lantzen eta kantxaratzen saiatu naiz. Pilotari bakoitzak bere kualidadeak ditu eta horiek esplotatzen saiatu behar du. Nire gorpuzkeragatik, ez naiz sekula indar handiko pilotaria izan baina abila eta azkarra izaten saiatu naiz beti.

**«AZKARRA ETA ABILA IZATEA ERE GARRANTZITSUA DA PILOTAN»**

Pilota jokuan azkarra izatea ere garrantzitsua da.

### Horien artean, zein izan da zuretzat areririk zailena kantxan? Eta atzelari bezala gehien lagundu zaituen?

Aimar [Olaizola] eta Juan [Martinez de Irujo] izan dira pilotaririk gogorrenak, garai bat markatu dute. Gaur egun Jokin Altuna ere azpimarratuko nuke. Beraie irabazteko kontrario gogorrak izan dira, baina beste asko ere izan dira aurkari oso onak eta beti asko sufritu behar izan dut eta gauzak oso ongi egin behar izan ditut partidak irabazteko. Atzelari lagun asko eduki ditut eta denekin ongi eraman izan naiz, baina bat esateko, Ruben Beloki aipatuko nuke. Hasieran nire aitabitxia modukoa izan zen eta partida asko jokatu nituen berekin. Lehenbiziko finala ere berekin jokatu nuen, nahiz eta galdu, otoitzapen ona dut berekin. Bera txapeldun handi bat zen eta ni hasi berria nintzen.

**«KANTXAN ETA BIZITZAN GOZATZEA GAUZA HANDIAK DIRA»**

### Artolak bertsoetan kantatu zizunez, «Baldintza dok gozatzea», hori omen da pilotari gazteei esaten diezuna... Ez da erraza izan, publikoaren aurrean, telebista kamerekin, korredoreekin... hori lortzea. Gehiegi estutu gabe pilotan jokatzea. Baina zuk lortu duzula ematen du, itxura hori ematen duzu behintzat...

Bai, gehienetan gozatu egin dut kantxan, baina ez da beti lortzen. Kantxan gozatzea handia da, baina bizitzaz gozatzea ere gauza ederra da. Pilotariena bizimodu oso ona da, urte hauetan guztietan pilotari izanda pribilejiatua sentitu naiz eta pilotari gazteei ere hori transmititzen saiatu naiz: ikuspuntu hori edukita nahiz kantxan nahiz kantxatik kanpo gozatzea errazagoa da. **Aurrera begira, zer duzu buruan... Pilotarekin lotuta segitzea gus-tatuko litzazuke?**

Ez daukat oraindik deus zehaztua, ez dakit zertara dedikatuko naizen. Proiektutxo batzuk baditut buruan, baina ez dakit gauzatuko diren. Pilotarekin lotuta edo lotu gabekoak, oraindik ikusteko dago. Denboralditxo batez lasai hartuko dut urritik aurrera. Zerbaitea dedikatu beharko naiz, baina ez daukat argi oraindik. Etor-kizunak esango du.

## URTARRILAK 27 - OTSAILAK 10

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



LANDARBASO.COM

### SENPERE Landarbaso abesbatzaren kontzertua

Sarrerak 15 eurotan Euskal Elkargoko turismo bulegoan eta Culture et Patrimoine Senpere elkartearen webgunean. Otsailaren 6an, elizan, 18:30ean.

### LEITZA

#### Zinema

Bi pase egunean.

Herri aretoan, otsailaren 5ean eta 6an. 16:30ean 'Zutik' eta 19:00etan 'Next Door'.

### SOLASALDIAK

### SENPERE

#### 'De Magellan à Elkano'

Inharrian, urtarrilaren 28an, 19:00etan.

### ELIZONDO

#### 'Haurren egoera ulertuz... helduaren lekua argituz'

Alvaro Beñaran pedagogo eta psikomotrizistarekin, 6-12 urteko haurren gurasoendako. Arizkunenean, otsailaren 3an, 17:00etan. Izena emateko 948 452 448 edo idazkaritza@bartzangoikastola.com

### LEITZA

#### 'Gurasoak eta seme-alabak pantailen aurrean'

Miren Ros hezitzailearekin, 3-14 urteko haurren gurasoentzat. Herri aretoan, otsailaren 10ean, 18:00etan. Sarrera libre.

### BERTSOAK

### SENPERE

#### Bertso-krakada

Amets Arzallus eta Julio Soto. Larraldean, urtarrilaren 29an, 17:00etan.

### ERAKUSKETAK

### BERA

#### Oaia Peruarenaren margo erakusketa

Labiaga ikastolako areto nagusian, urtarrilaren 22tik aitzinera, asteburuetan 16:00etatik 20:00etara.

### MUSIKA

### LESAKA

#### Nafarroako VIII. trikitixa jaialdia

Harriondoan, urtarrilaren 29an, 17:30ean. Sarrerak 12 eurotan lesaka.eus-en.

### BERA

#### Perkusio entzunaldia

Kultur etxean, urtarrilaren 31n, 18:00etan.

#### Trikitixa entzunaldia

Kultur etxean, otsailaren 8an, 18:00etan.

### SENPERE

#### Landarbaso abesbatza

Elizan, otsailaren 6an, 18:30ean. Sarrerak 15 eurotan Euskal Elkargoko turismo bulegoan eta Culture et Patrimoine Senpere elkartearen webgunean.

### AMAIUR

#### Bailableak

Muxikoak, jota eta larrain-dantza. Otsailaren 13an, 12:30ean.

### HERRI KIROLAK

### LEITZA

#### Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako kanporaketa

Urtarrilaren 29an, 18:00etan.

### AZOKAK

### LESAKA

#### Merkatu ttikia

Bertako artisauek eta produktuak. Urtarrilaren 29an, 10:00etatik 14:30era.

### ELIZONDO

#### Bartzango artisauek eta zapoak

Plazan, otsailaren 5ean, 10:00etatik 14:00etara.

### JARDUNALDIAK

### GOIZUETA

#### Ibilaldia Artikutzan

Enobietako presari buelta. Eskaseko atezaindegitik, urtarrilaren 30ean, 09:15ean.

### IKUSKIZUNAK

### BERA

#### 'Bidaide (metrokoadroka)' antzerkia

Kultur etxean, otsailaren 6an, 17:30ean. Sarrerak 4 eurotan.

### IRURITA

#### 'Hotzikara, gozamen erotikoaren historia' antzerkia

Gizarte Bilgunean, otsailaren 6an, 19:00etan.

### LEITZA

#### 'Eresia' antzerkia

Oier Zuñigak Geuretik Sortua programaren baitan eginda. Herri aretoan, otsailaren 13an, 19:00etan

### ZINEMA

### LESAKA

#### Zinema

Guraso elkarteek antolatua. Harriondoan, urtarrilaren 30ean eta otsailaren 6an, 17:00etan.

## «Garrantzitsua da gure jatorria ezagutzea eta kultura babestea»

KRISTOBAL ZELAIETA OHARRIZ IRURITAKO DANTZARIA



«Iruritar saltsero, dantzari eta alaia» da Kristobal Zelaieta Oharriz (Irurita, 1984), «ongi pasatzea gustuko duena». Iruritan sortu zen, eta Elizondo eta Zozia artean hezi bada ere, sorterrian bueltan da gaur egun. Dantzas gain, musika, irakurketa eta «kultur adierazpen guzien zalea» da. «Otordu on baten plazeraz» eta «solasaldi sakonez» gozatzeko gustuko du, «eta nahia-go dut beti proiekturen bat burutan eduki».

**Dantzariaren lehen urratsak** Elizondon hasi zen dantzak ikasten 13 urte zituela; «hiru lagun engainatu nituen mutil-dantzen aitzakiairekin dantzak ere ikasteko, eta Izaskun Eguirekin hasi ginen. Ondotik, Mari Kruz Goñi, Irantzu Izeta eta Amadeo Arretxea ere izan nituen irakasle, eta

beraiekin ikasi nuen dakidan guzia».

16 urterekin ikaskuntzatik irakaskuntzara eman zuen pausoa. «Irakasle lanak hasi nituen kurtso batez, afizioa nuen eta bertze irakasleek talde batzuk pasa zizkidaten». Gero, bertze lanetan aritu zen urte batzuk, «eta duela 12 urte bueltatu nintzen Iruritan dantza irakasle lanetara».

### Dantzan bizitzen

12 urte hauetan hainbat herritan ibili da Zelaieta dantzak irakasten; Iruritan, Elizondon, Oronoz-Mugairin, Narbarten,

**«MOMENTU GOXO PILA BAT OPARITZEN DIZKIT DANTZAK BEHIN ETA BERRIZ»**

Azkainen eta Beskoitzen. Beraz, Baztan eta inguruko hainbat haur eta gaztek berearekin egin dituzte lehen urratsak.

Euskal dantzak irakastea «gure kulturaren transmisio garrantzitsua» da; «gaur egun, Interneta dela eta, gure bizitzeko modua hainbertze aldatu da, eta etxetik atera gabe diziplina aunitz lantzeko aukera dugu. Erraza da gure kultura eta ohiturak alde batera uztea». Hortaz, «garrantzi handia duela uste dut, nondik heldu garen ezagutzea eta gure kultura babestea, hori bai, egungo egoerara moldatuz».

Hala ere, ez du bere burua dantza estilo bakarrera mugatzen, «dantza orokorrean dut gustukoa, berdin zait dantza klasikoak zein gaur egun TikTok-en modan daudenak. Hilabete batzuek dantza latinoak ikasten ere aritu nintzen».

«Momentu goxo pila» oparitu dizkio dantzak Zelaietari, eta batez ere egindako bidaiak «aunitz disfrutatu ditut». Izan ere, leku aunitzetan ibili da dantzari; «Europako zenbait hiriburu eta herri ezagutzeko aukera izan dut, eta Estatu Batuetan ere izan naiz, udalekueetan dantzak irakasten. Gauzak ongi baldin badaude, aurten ere udalekueetan parte hartzeko asmoa dut Bakersfielden».

### Irurita, herri dantzaria

Baztanen, herriren bat nabarmentzekotan, Irurita izanen litzateke dantzariena. Bertakoa da Zelaieta eta bertan ematen ditu klaseak duela 12 urte. Adin guzietako jen-

deak ikasten du dantza egiten berarekin; «aurten, zortzi urteetatik 40 eta pikora, hainbat lagun dut dantza taldeetan».

Dantzatzea ez ezik, ikasitako erakustea gustuko dute iruritarrek, eta horretarako hainbat ikuskizun prestatu dituzte azken urteetan Koro Tikirekin batera. *Bagara* ikuskizuna egin zuten 2019an, 2020an *Izarrak* aurkeztu zuten eta 2021ean *Terra*.

Guztietan lanean ibili da Zelaieta buru-belarri; «Lan pila bat dute gibeletik, baina gustoz eta plazer haundiarekin egindako lana izaten da. Kantak eta dantzak aukuratu eta prestatu behar dira, entseguak egin, arropak prestatu, apaintze lanak... Lan handia izan arren, lantalde ederra osatu dugu eta denon artean emanaldiak aitzinerat eramatea posible izan dugu».

### Etorkizunera begira

Egindako lanek beren fruitua eman dute, ikuskizunak zein baino zein arrakastatsuagoak izan baitira eta behin baino gehiagotan errepikatu behar izan baitituzte. Hortaz, lanean segitzen dute; «egun hauetan *Jostailugilea* ipuin musikatua aurkeztu du Koro Tikik, eta dantzariak ere laguntzen aritu gara. Uda alderako bertze emanaldi bat prestatzen ari gara, eta urteroko plana izaten saiatuko gara!»

Dantzatik bizitzea ez du «inoiz burutan izan. Ordu pila bat lan eginez posible litzateke, baina kasu eman behar da, ez delako ogibide egonkorra. 20 urte pasatu ditut dantzan, eta ziklikoak izan dira beti dantzarien kopurua eta afizioa».

Hala ere, «arras kontent» dago momentuan dagoen bezala eta «proiektu eta kolaborazio gehiago egin nahiko nituzke Iruritako Dantzariarekin eta bertze zenbait talderekin».

**«UDA ALDERAKO BERTZE EMANALDI BAT PRESTATZEN ARI GARA»**



URTEBETETZEAK

**GANIX**  
Tallerra

948 63 06 69  
Zalain Pol., 11 . BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan

**ARANTZA**  
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA  
647 810 144 · 626 093 181

**IXAPARTEGI**  
INMOBILIARIA

**Arraioz (Baztan):**  
Herrigunean bi  
lur eremu salgai,  
familia bakarrekotea  
eta bi bizitzako  
etxea eraikitzeko.

API Pinar 7- IRUN  
656 708 180  
info@inmotxapartegi.com  
www.inmotxapartegi.com



Etzeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. ☎629 45 14 26.

Arkon edo **kutxatzar** baten bila ari dira. Norbaitek sobran badu eta gai-netik kendu nahi badu... gustura hartuko dute. ☎660 94 35 49.



**Bi koltxoi** salgai beraien zorroekin, somierrak eta burkoak. 105x190 neurria. Erabilera bakarrarekin, espazio faltagatik. ☎625 51 63 99.

**GALDU-AURKITUAK**

**BERA.** Toki Ona institutuko atean giltzak agertu dira. ☎848 43 17 10.



Arraiozko **Aiora Arraztoa Agerreberek** urtarrilaren 22an 9 urte bete ditu!! Auniz urtez familia guziaren partetik baina bereziki bere anaia Oinatz eta Urkoren partetik!! 9 muxu potolo!!!



Arraiozko **Urko Arraztoa Agerreberek** otsailaren 7an 3 urte beteko ditu!! Auniz urtez familia guziaren partetik baina bereziki bere arreba Aiora eta anaia Oinatz partetik!!! Egun polit bat pasa dezazula!!! 3 muxu potolo!!!




Zorionak bikote!! Aresoko **Naroa Belauntzan** eta Leitzako **Eñaut Bidartek** abenduaren 12an eta urtarrilaren 17an, 11 eta 10 urte bete dituzte. Segi beti bezain jator artistak!! Muxu potolo bana osaba, izeba eta Peioren partetik.



Labaiengo **Oier Errandonea Bertizek** 9 urte bete ditu urtarrilaren 13an. Zorionak eta auniz urtez familia guziaren partetik! Muxu potolo bat!



**Naroa Mutuberria Pagola** aranztarrak 10 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Auniz urtez eta muxu haundi bat familiaren partetik. Ongi pasa eguna!



**Andres Alzugarai Contrasek** 10 urte bete ditu ilbeltzaren 17an. Zorionak Almandozko aitatxi, amaxi eta osabaren partetik.



Arantzako **Kattalin Ordoki Hualde** eta **Eneko Ordoki Agesta** osaba-ilobek urteak beteko dituzte otsailaren 1ean eta 5ean. Zorionak familia guziaren partetik eta prestatu berendu eder bat!



Zorionak **Maddi!** Otsailaren 1ean 4 urte beteko dituzulako. Ongi-ongi ospatu! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!



**Aizpea Terreros Alzugarai** lesakarrak 6 urte beteko ditu otsailaren 4an. Zorionak eta muxuak ataxi Joseren partetik.



Arantzako **Kattalin Ordoki Hualdek** 6 urte beteko ditu otsailaren 1ean. Auniz urtez atxa, ama eta bereziki zure anaia Xuban partetik. Muxu erraldoiak!!

**ETIKETAK eta PEGATINAK**

**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:  
Tel: 948 63 54 58  
kulturkari@ttipi.eus  
www.kulturkari.com

**AGORLEKU**  
ARDI GAZTA QUESO DE OVEJA

**DISEINU eta INPRENTA LANAK**  
Hainbat neurritakoak - Itsasgarriarekin edo gabe  
Elikadura-packagingerako berezia

## HILBERRIAK

- **Matthieu Alzate**, Sarakoa, abenduren 19an 32 urte zituela.
- **Marie Luise Zamora**, Sarakoa, abenduaren 25ean 88 urte zituela.
- **François Leizagoien**, Sarakoa, urtarrilaren 3an 76 urte zituela.
- **Francisco Jabier Otondo Iribarren**, Erratzukoa, urtarrilaren 6an, 84 urte zituela.
- **Juan Bautista Agirre Gogortza**, Leitzakoa, urtarrilaren 7an, 86 urte zituela.
- **Mª Luisa Gomez Elizondo**, Berakoa, urtarrilaren 7an.
- **Jose Cruz Etxeberria Etxeberria**, Elizondokoa, urtarrilaren 7an, 67 urte zituela.
- **Fermin Legasa Inda**, Lesakakoa, urtarrilaren 8an.
- **Katti Zabaleta Azpiroz**, Leitzakoa, urtarrilaren 10ean, 69 urte zituela.
- **Julian Jaimereña Igoa**, Elizondokoa, urtarrilaren 10ean, 96 urte zituela.
- **Patxi Otxandorena Mutuberria**, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 11n, 87 urte zituela.
- **Luis Marquinez Urroz**, Elgorriagakoa, urtarrilaren 13an, 82 urte zituela.
- **Jose Gartzia Holgado**, Lesakakoa, urtarrilaren 13an, 93 urte zituela.
- **Juan Mª Egurtza Miranda**, Elizondokoa, urtarrilaren 13an, 90 urte zituela. i
- **Clementine Pacheco Vicente**, Berakoa, urtarrilaren 13an, 90 urte zituela.
- **Aitor Juaristi Mintegi**, Elizondokoa, urtarrilaren 13an, 55 urte zituela.
- **Jesus Lasa Agirre**, Elizondokoa, urtarrilaren 14an, 90 urte zituela.
- **Juan Altzualde Meaka**, Arizkungoa, urtarrilaren 15ean, 85 urte zituela.
- **Antonio Iturria Lekuona**, Lesakakoa, urtarrilaren 16an, 65 urte zituela.
- **Francisca Organbide Iribarren**, Gartzaingoa, urtarrilaren 16an, 86 urte zituela.
- **Juan Mari Elizalde Colau**, Doneztebekoa, urtarrilaren 16an, 93 urte zituela.
- **Juan Elizalde Gortari**, Arizkungoa, urtarrilaren 17an, 83 urte zituela.

## SORTZEAK

- **Laia Etxegarai**, Sarakoa, azaroaren 18an
- **Kemen Etxeberri**, Sarakoa, azaroaren 26an.



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO



Gure lurra,  
gure jendea,  
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 [www.izaratanatorio.com](http://www.izaratanatorio.com)



**BAZTAN BIDASOA**  
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian  
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU** | **948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betika taldea zu laguntzeka*


**IRACHE**  
tanatorioak

**Nafarroako familien zerbitzura 1976tik**



BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



**OROIGARRIAK**


**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:  
Tel: 948 63 54 58  
[kulturkari@ttipi.eus](mailto:kulturkari@ttipi.eus)  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira




# HITZ GEZIDUNAK

	◆ Deitura ▼	Galtzen dena, galtzea ▼	Leizeak, kobazuloak ▼	Baita ▼	Tximino mota ▼
	Ezkio-Itsasoko herritarra	Gipuzkoako udalerria	Selenioa	Ardura	Detekta-gailua
	▶	▼	▼	▼	▼
	Bitxiak, ez ohikoak ▶				
	Musika nota				
Amaraun egilea ▼	Arau ▶		Ez eme ▶	Dago ▶	
Artazuri-tzeak	Tindatzeko koloregai		Kimatu ▼	Olatua, uhina ▼	
▶					
Musika nota ▶	Aranondoen fruitu ▶		Jaurtiketa ▶		
Emakume izena	Bizkaieraz, antxumeak		Txekiako hiriburua		
▶			Bitsa ▶		
			Azkeneko letra ▼		
◆ Izena ▶		Enborraren mami ▶		Bokal errepikatua ▶	Hegazti sarraskijale, putre
Goizuetako ibaia		Lehenengo letra ▼		Sagu, hitz elkarketan	
▶			Sastraka ▶		Sufrea ▶
			Bigarren pertsona		Bokalik gabeko dirua ▼
1000 ▶	Kanpo, landa ▶	Atezko kontzejua ▼			
Higuindu, nardatu	Kontsonantea	Tona, labur-labur			
▶			Ezkaratz, bebarru ▶		

◆ Eskiatzaile aresoarra

## GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Zerbait estaltzen duen gauza, estalgarria.
- [2] Ikasten ari den pertsona.
- [3] Gure lurraldeko udalerria, Bortzirietan.
- [4] Garauak, bihiak.
- [5] Karrika.
- [6] Euskal Herriko sindikatua, afiliatu kopuru handiena duena.
- [7] Gurpilik gabeko orga.
- [8] Abereak bazkatzen diren belardi.
- [9] Ilara, errenkada.
- [10] Modu horretan.
- [11] Idorrek, sikuak.

## ERANTZUNAK



E S T A L K I A  
 I K A S L E A  
 L E S A K A  
 A L E A K  
 K A L E  
 E L A  
 L E R A  
 L A R R E  
 L E R R O A  
 H O R R E L A  
 L E H O R R A K

# PLAZAN BAZAN



## MARGOTU

Hemen ikusten dituzun igel hauek munduko igelik koloretsuenak dira, baina zerorrek margotu beharko dituzu. Erabili kolore gorria, urdina, berdea, marroia, horia, beltza eta morea.

## PAREAK BAI!

Konturatu bazara, igel guztiek badute bikotea, hiruk izan ezik. Hiru horietarik bik ez dute parerik, eta hirugarrena hiru aldiz ageri da.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)



## INTERNETEN ERE BAI !


<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

# SUDOKUA

Gauza handiak egin genituen 2021ean, eta oraindik handiagoak eginen ditugu AURTEN. Bete itzazu hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiez (A, U, R, T, E eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



# MEZU GORDEA

Gaur inspiratuta jaiki da Hur. Pijama erantzi ere egin gabe, mikrofonoa hartu eta kantari hasi da, maiteminduak bezala, baina ez da ongi entzuten, bozgorailuak hots gogaikarriak egiten dituelako. Ezaba itzazu Q, W, Ç eta Y guztiak eta jakingo duzu zer ari den abesten.


Eta zein da abesti hori kantatzen zuen taldearen izena? Ez badakizu, jarri iruditxo bakoitzari dagokion hizkia ondoko biribilean eta asmatuko duzu. Ondotik, marraz ezazu atera zaizun hori, zure koadernorik maiteenean.

ÇYPGAYQUQPRWYY  
 PPEQZ ZPAWIPTUWT WWIQKUPPSWPI  
 PWPEWYZ YQPDWYDAWYZU WYDEÇIPTYUPW  
 PYETÇWA OWWRÇPDUPYAK ZUÇYWRÇYEKWIÇPNPY  
 WPBÇYEZÇPALYYA EQYMPPAN DÇQKITQYUTÇYQ  
 GÇPALWPR MAYWITAPWÇSWÇPLINYWPAZ EPWPTÇA  
 HPPERWYIOÇPTPWZAQZ WPHITWZ EGQWIN DWUGYU  
 QETÇPA TYXIÇYWMEWYLEÇYTA EYPRI BWATQ  
 QYPGEÇYLYPAN SWWARTPU ZQAIÇYPGWYUP.

PGÇALPR EÇYPLURÇYPIA  
 EÇYPGIÇYPN DÇUYYP



# ALFABETOA





**18 ETXEBIZITZA-8 LOKAL**

- **2 (80 m<sup>2</sup>), 3 (90 m<sup>2</sup>) eta 4 (100 m<sup>2</sup>) logelako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela karrikan**
- **Lokal komertzialak**

**ERAIKINA EGITEN HASIA!**